BOGA
BOGA
ITXARO BORDA

ITXARO BORDA

Boga boga

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2012ko maiatza
Edizio hau: 2012ko maiatza

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Boga boga
Itxasora z(ih)oaz
Senideak lagunak eta neska
Lehorrean utzita
Boga boga
Horrela da bizitza

DELIRIUM TREMENS

Denbora bat bada isiltzeko
Eta denbora bat mintzatzeko
Denbora bat bada maitatzeko
Eta denbora bat gorrotatzeko
Denbora bat bada gerrarako
Eta denbora bat bakerako

ECCLESIASTES

Hori da hoberena, biktima bera sakrifiziora
eramana izateaz pozten denekoa.

FEDOR DOSTOIEVSKI

Si ens aixequem ben d'hora,
però ben d'hora, ben d'hora, ben d'hora,
si no hi ha retrets ni excuses
i ens posem a pencar,
som un país imparable.

PEP GUARDIOLA

–1–

Argi zurbilek iraitzi soroaren orlegitasunak ilusitu ninduela aitor dut. Zuriz, gorriz eta urdinez apaindu deabruek hegaldarazten zuten baloia. Mukuru zen kirol zelaia eta apirileko haize hotzak ez zituen ikusleak haur mukizuen antzera mugitzetik trabatzen. Oihuz eta laidoz errausten zituzten Miarritzeko jokalariak ekintza eder baten garatzera zihoazen oroz. Yachvilik zigor ostikoa Baionako hagen artera luzatu zuenean, aho batez kantari zebilen populua: «huts eginen du!, huts eginen du!». Yachvilik ez zuen dudatu alabaina.

Baionako Aviron taldearen alde nintzen. Derrigor. Batetik, *Lapurdum* ohiko izen gabeko klinika batean sortua nintzelako eta, bestetik, Zilia adiskideak sarrera oparitu zidalako ez dakit zeren karietara. Peña Baiona sustatzaile saldokoa zen Zilia, eta aldi berean partida hasi aitzineko ikusgarriaren euskarazko ahotsa. Pottokarekin ederki berotzen zituen kirol zehatzarentzat baino gehiago Jean Dauger estadioan laurogeita hamar minutuz sortzen zen giroarentzat etorri hiritar bipilak. Miarriztarren Geronimo indioaren ba-

lentriak dastagarriak ziren halaber. Kamioi zaratatsuan hupaturik, hiria trabeskatua zuen goizean, harro, merkatuaren tenorean, baionarrak probokatzen.

Pasioa bihikatzen zuen ehun urteko ekipak. Lehiaketa abiatzear zegoela, urtea eskas, Avirongo zuzendaritzak bideratu psikodrama ahantzia zen: betaurreko beltzekiko mafioso itxurako enpresaburuak eta udalak diruz erosi zuten baionarren ohorea. Jokalariak, trebatzaileak eta arduradunak baltsari miretsi eta legendaz troxatu herenegungo errugbilarien oharrak entzun genituen, zazpigarren zerutik zetozen boz sakratuak bailiran. Baina hori bost axola: derbi egunetan betidaniko sinbiosi misteriotsuaren hegala hedatzen zen Baionako lantokietan, karriketan, ostatuetan eta berdetasun ilusikorra zeukan belardian.

Bandera zuri-urdin bat eman zidan Ziliak. Avironen himnoaren hitzak eta, orriaren atzealdean, errugbiari zegozkion euskarazko eleen zerrenda. Ama bat bezala zaintzen ninduen. Bazekien, argi azkorriko sei kilometroko lasterrez gain, ez nintzela baitezpada kirolari atxikia, are gutxiago errugbiari: euskaldun zintzo anitzen pare salbai eta frantses jostailutzat neukan, nire euskalduntasunaren erabateko zintzotasuna

frogatzeko geratuagatik. Baina hau beste istorio bat zen.

Baionarrek multzoa hautsarazi zuten zelaiaren erdian. Bat-batean lerro zuri-urdina osatu zen. Uhin larderiatsuaren moduan miarriztarren marrara hurbildu eta Remik entsegua markatu zuen. Gizon bakar, bozkariotsu zutitu zen jendaldea, auzoa txalotzen eta besarkatzen. Erran gabe doa ni ere txaloz zinpurtu nintzela.

– Hauxe, hauxe...

– Irabaziko dute?

– Zergatik *dute*? Etsaietarik zara ala?

Saihetsean nuen tripatsu satisfosak besterik ez zidan ahoskatu begietara beha. Ez zen edonorekin kexatzeko ordua oizu! Marea zuri-urdinaren abestiak itolarrian harrapatu ninduen: *allez allez les bleus et blancs de l'Aviron Bayonnais...* Euskarazko bertsioa altxatu zen handik laster, katedralaren oinarriak inarrosiz: *agur agur Aviron Baionako ekipari gure herriko xuri-urdinei biltzen gaituen Jean Dauger zelaiari*... Besaitzina oilo larruz ttakatzen sentitu nuen, ninika busti zitzaidan eta bihotzaren hondoan hazi zorion zozoz hantu nintzen. Handiosa zen. Erraldoia. Anartean miarriztarren indioak ipularretan bermatu zuri-gorriz

apaindu zaleak akuilatzen zituen. Ez baitzen partida oraindik bukatua.

Denbora erditan aldameneko gizonkotea aurkeztu zitzaidan deblauki:

– Matias nauzu, Santizpiritukoa. Eta zu?

– Amaia, Baiona Txikikoa.

– Lehen aldia duzu?

– Bai. Ageri du ala?

– Noski... Ni segitzaile suharra naiz. Etxean eta kanpoan sostengatzen ditut. Harpide txartela daukat. Aitarekin etortzen nintzen Maurice Zelai eta antzeko piztia jenialen haiatzera. Ikusiz egungo egoera nahasia, zoriontsu nago oroitzapen argitsuak bederen edukitzeaz.

– Baionak eramanen du gaurkoa?

– Baliteke, baina ez gara alor guztietan hardit eta adret. Ostikolari jeinutsu baten premia genuke naski. Horretan Yachvili gaitza da. Miarriztarren onak ezagutzen badakigu, zer uste duzu? Kontatuko dizut zerbait.

Hatsa sakon hartu zuen kapelua, lepokoa, atorra, soinekoa, zapatak, ordularia, etxeko giltzen soka, menturaz galtzoinak ere zuri-urdin zituen Matiasek.

– Duela bi udaberri Miarritzeko Aguilera estadioko sarrerako *BO Pays Basque* izenak zekarren burdinaz-

ko Y-a desagertu zen eta *Pas Basque* egiten zuen. Miarriztarrak haserre gorrian urtu ziren eta ebasketa baionarren bizkar jarri zuten. Hara non itzulerako derbian zoritxarreko Y hura berrazaldu zen, alimalea, Baionako tribuna nagusiaren gainean. Horrelakoak ehunka baditut.

– Kasu... miarriztarrak kalipuz daude.

– Iruditzen zait gureak egin duela.

Ezpainak zimurtu zitzaizkion. Betazalak apaldu zituen. Errugbian ni baino jakintsuagoa zen batengana inguratu zen. Zortzi minutu gelditzen dira. Baionak aski zukeen entsegu transformatu bat partidaren eramateko. Matiasek entzun ninduen:

– Sostengatzaile berezia zara zu. Miarriztarren joko tximista galantak goresten dituzu eta nahi zenuke Baionak irabaztea...

– Ene kontradikzioak dira... Begira jauna! Zertan dabiltza orain pataskan? Denbora badutela uste dute ala? Eta nor da jokalarien bereizteko belardira jauzi egin duen zahar hori? Sinestezina da!

– Hariñordokiren aita da! Bazauzu! Semearen laguntzera doa, ukabilka zenbait ereinez han eta hemen!

Txapela kopetan ezkel zeukala, zaindari gihartsuek garaztar izarraren etxekoa trapua bailitzan jalgi zuten eremutik. Behatzaileek ez zuten sekula horrelakorik begimendu eta derbiekiko ipuin harrigarrien zerrendan geratuko zen distiraz. Matias hargatik irriz urratzen zihoan *on est cuit on est cuit* errepikaz. Ikuslegoaren ezinegona palpagarria zen, ukigarria, klaskak, txaloak, hustuak, irainak gehitzen zitzaizkiola.

Espero genuen entsegurik ez zetorren. Behereko jargietan euskaldun zahar bat artega ageri zen:

– Jokoz kanpo dago... arbitro koskoila!

Koskoila hitza orroatzean zutitu egin zen afruntatua, horrelakorik emazteen aurrean ahoskatzen ez bailitzan. Kopeta makurtu nuen, ohitua nintzen, *eta zer?* ihardesteko moldean ahurra zabalduz. Funtsean, euskaraz izan arren ele pornografikoek ez ninduten izutzen, are gutxiago ahalketzen, ekintzek eta jaidurek baizik. Haurtzarotikako minberatasun larrutzaile batek ninderaman beti umezurtz antzera. Sumindura ziztak baztertu eta harmailetan jauzika jarraitu nuen partidan zehar auzo eta gidaria suertatu zitzaidan gizon plaxenta. Etsitua zen:

– Baionar malestrukek eskuak sobera herabe dituzte eta irudimenik gabe ari izan dira. Astean hamar

entrenamendu dauzkate omen eta benetan besterik igurikatu genezake ongi ordainduriko profesionalen partetik. Badakizu Ekis jostalaria egun ikusi dugula lehen aldiz zinez korrika eta ikasi ere beso biak erabiltzen ahal zituela! Oporretan daudela uste dute ala? Eta erranen dizut zerbait: ez du zalduna aldatzeak zamari nagia hobea egiten...

Matias mutu ezina bihurtzen zuen baionarren deboilak. Ikurrinak eta bandera zuri-urdinak plegatu ziren. Ateka hertsietarik trinko jalgitzean, adin kanonikoko andereak afruntuz amiltzeko gai zitezkeen laido zorrotz bezain garratzak trukatzen zituzten miarriztarrek eta baionarrek. Baina ondoriorik gabe, txiste memorableak salbu, hondarrean guztiak munduko adiskiderik hurbilenak baitziren eta derbietan kirolak munta handirik ez baitzuen.

Ogiz, zirkuz eta garagardoz ase populua oldeka barreiatu zen estadio ondoko ttattoletan, lantzer eztiaren azpian, elkarri desafioz, Baiona Txikiko ostatuetan hirugarren denbora harilkatzeko prest. Jean Dauger ferblankezko tupinaren pare betetzen eta husten zela hausnartzean, pasaia murritza tapatzen zidan abere puska bat bulkatu nuen:

– Ez diezu mezuei ihardesten?

– Ez zaitut ezagutzen.

– Daniel Elgebeltz naiz. E-mail bat bidali dizut duela sei aste. Samintzen nauzu arras.

– Nik?

– Bai... Gu bezalako jendaila apalari kasurik ez eginez egokiro biziko zarela uste duzu? Ez zaizu merezi?

Xifritua nintzen bat-batean. Horrelako gorroto oldea nondik zetorkidan ulertzen ez nuelako bereziki. Baionarren kostuz hiru oren eder gozatu nituen Matiasen konpainian, eta hara zakurrek ere nahiko ez zuketen hezur batekin tematu behar nuela Genieko zubiraino.

– Arrebaren berririk ez dut. Badu hogeita bost urte.

– Aspaldiko istorioa da.

– Baionako bestetako argi-zirrinta batez galdu nuen Janaren hatza. Bilatu dut denetan, hiltokietan berdin haren gorputza, zer gerta ere. Baina ezer ez.

– Ameriketan da menturaz...

Danielek mesprezioz hantu buhako bat askatu zuen *Amerika* murmuratu nuenean. Ihesi joan behar banu, ni lehen-lehenik Ameriketara abiatuko nintzen bistan dena, edo Malira, edo Greziara. Nire arrapostuan ez zen den mendreneko gaiztakeriarik. Baina gi-

zona erreus zen, zainetan, aditz bakoitzarekin ozpina aurtikitzen zidala begietara. Sorbaldetarik hartu eta Iuma-zaku zorritsuaren maneran inarrosi ninduen:

– Hastio zaitut dagoeneko.

– Ez dut zure amodioaren premiarik.

– Zein aldetan zaren ere ez dakizu.

– ...

– Gauza eta egoera argiak gustatzen zaizkit.

– Zuretzat ilunena, beraz, bizitza mutxitzen dizun Jana arrebaren desagertzearen afera da.

– Ez zaitezela nitaz trufa.

– Horrelakorik ez da nire egitekoetan sartzen.

Gogoetatsu borobildu zen Daniel Elgebeltz. Intziri beltzuria askatu zuen. Etsirik so zegokidan. Errudun sentiarazi nahi ninduen. Baina ez nintzen munduratu lagun proximo ezezagunen hoben eta min guztien garraiatzeko. Mihi haguntsuaz busti zituen ezpainak:

– Ezin dut gehiago. Gurutzatu ditudanak oro asper egotzi ditut. Familia kideak. Herritarrak. Mende laurden honetan hirira etorri polizia arduradunak. Debaldetan. Jakin egin behar dut.

– Ni naiz orduan zure azken aukera?

– Zoritxarrez.

Daniel Elgebeltzen oharrak erraiak labaindu zizkidan. Izpiritua dilindatu nuen zubia saldoan hain alegeraki zeharkatzen zuten Baionako zein Miarritzeko sostengatzaile lerro zoharretan, argizaiolen uhargietan perlatzen zihoan lantzer malko bakoitzean eta apirileko gau samurraren baitan. Zergatik kezkatu? Ez nuen maitatua izateko ohiturarik, ez eta horretarako eskaera zehatzik. Leinuz leinu merezitutako zerbait zen amodioa alabaina, ederra, aberatsa eta boteretsua izanez gero. Elgebeltzen begietan nigan ezaugarri horien falta nuen irakurtzen. Baina baneukan ederrek, aberatsek eta boteretsuek ez zuten altxor bat: erraz bihozkatzen nintzen, urrikaltzen eta urrezko aldareak uka nitzakeen jendeen arteko harremanik biluzienaren izenean. Eraz, trakaz, zakuaz edo zorroaz axolarik ez nuen. Daniel ez zen konturatzen zuen zorte onaz. Atzemanen nion arreba... bizirik edo hilik.

– Baduzu Janaren argazkirik?

Cordeliers karrikaren juntara heltzean utzi zidan karta:

– Elkar gaitezen bihar Robber tabernan. Bederatzietan. Kaferako. Txostenak ekarriko dizkizut. Arren, zoaz orain zure urrixarengana... hau eta hura galdekatuz dena jakiten baita hemen.

– Salbu zure arrebari dagokiona.

– Eiki.

Tua zintzurrean korapilatu zitzaiola zirudien. Danielen bisita-txartela purtzilikatu nuen hatzetan. Garagardo epela burrustan edatera gonbidatzen ninduen Matiasek urrunetik, algaraz eta tximinokeriaz. Etxera nindoala ulertarazi nion. Nire lehen derbiarekin batera erbia jazarri zitzaidan lurraren sabelalde hirotik.

– Zoritxarrez... galdu egin du Baionak.

–2–

Gauerditan behialako lantzerra egiazko euri bilakatu zen. Apartamentuan sartu bezain laster leihora hurbildu nintzen, Jean Dauger zelaitik saldoan zetozen sostengatzaileei behatzeko. Mozkor ederrak harrapatuko zituzten eta biharamunak alimaleko buruko minekin bilduko zituen. Ez nintzen horietarik, Matiasek menturaz ongi ikusi zuenez. Eta banintzen aldi berean, errotik baionarra izanik.

Sakela zola karrakatzean Daniel Elgebeltzen kartatxoa atzeman nuen. Bulegoko argizaiolaren maldan erromatar garaitik zuzen etorri s*igillata* txikia bailitzan ikertu nuen. Izena ez zitzaidan hain arrotz. Ez nekien ordea nondik. Oroitzapenak inarrosi nituen txori gosetiak karrikako gorotz metak egin litzakeen maneran, nahas-mahas, buru ez buztanik gabe. Berrogeita hamar urteak pasatuxean memoria dantzari bihurtzen zen, bereziki irudiak, sentsazioak edo sentimenduak sailkatzeko astia hartu ez baldin bazen. Ene kasua zen. Disko gogorra desertu zegoen eta USB giltza bihirik ez neukan.

Carmenekin nintzen denboran lagunak mahai gainean abandonatu ordenagailura lehiatu nintzen. Ez zidan besterik utzi amodioaren mihisea plegatzea erabaki zuenean. Mende oso bateko negarrak isuri eta ondoko egunak puska herrestatsu triste baten antzera eman nituen. Nehork ez ninduen kontsolatzen ahal.

– Distantzia zaintzen ikasi behar duzu, Amaia –erran zidan–. Ez zara aldi oroz horrela hausten ahal, neska soil batengatik, neska hori ni izan arren.

– Baina?

– Bilbora noa. Beharrean han nagoke.

– Nagoke...

Euskarazko potentzialezko aditzera zenbateraino gorrotatu nuen gogoratzen nintzen aldikal ordenagailua piztean. Bazauzu ba! *Nagoke*... Hondarrean ez nuen egundainokoan Carmenen agurtzeko suerterik izan. Bizitza gainera erabat kanbiatu zitzaidan: betidanik amestu lana erdietsi nuen Baionako Hiri Garbitzaileetan. Halatan Baionako besten bigarren goizean, Karimekin eta Dederekin karrika garbitzen ari nintzela, Joana Garalda besarkatzeko bozkario paregabea eduki nuen zakar pulo urrintsu baten maldan. Vall d'Aneuko Isil herriko Milia adinduaren galderaren trenkatzera deitu ninduen lasaiki. Hango nire ikerketen on-

dotik jakin genuen Miliaren anaia azkenean 1948an erail zutela Francoren soldadu itsuek, nazioarteko gerrillero talde batekin *Linea P* garratza zeharkatzen saiatu zenean. Auñamenditarron destinoa laburbiltzen zuen inkestatik landa, Margarekin motoz joan nintzen Bartzelonako *sems catalans* lemarekiko manifestaldi erraldoira. Handios.

Joana Garalda Baionako ospitalean sartu zen erizainen nagusi gisa. Bidenabar eta xuxurlaz eskatu nion larru has gozatzeko zirrikitu ñimiñorik gelditzen zenez guretzat, baina egoera azaldu zidan, zuhur:

– Badakizu lau haur gotor baditudala eta Haitz Zumeta aldamenetik desagertu zitzaidala. Ezkondu naiz geroztik eta Haltsun eraiki dugu etxea Hektorrek eta biok. Etorri nahi baduzu, zatoz lasai; piszina eta sauna erosoak baditugu.

– Ez al didazu besterik eskainiko?

– Amaia, redios, gure artekoa gaztaroko bekatua baino ez zen.

– Ahotik ezin utzia, bekatu guztien pare.

Ondikotz, Joana urrunetik ikusten nuen langileok Santizpirituko lan-burtsatik abiatuz, Baiona Txikia saihestuz eta Paulmy etorbidean behera Suprefeturara helduz manifestatzen genbiltzanean. Batez ere

erretreten erreforma salatu genuen urri gorri hartan. Ezker muturrekoak ziren Karim eta Dede, beti prest kamaradak, neoliberalismoa kritikatzen zuten terrentaz eta mundua gatibatzen zuen krisia aberatsenen erruz zetorrela zioten, pobreak are biluziago nahi zituztelako eta egitura ekonomiko garapen zaleak ez baitzezakeen, mailukatzen zigutenez, asistanta sozial jokoa etengabe eraman:

– Bai, ukaraia luzatzen diezu eta beso osoa irensten dizute.

– Hau, hau, hau, hau...

Karim eta Dede zakur zaunkak zinominokatzen irudikatzean Carmenen ordenagailuko sarrera pantailara iritsi nintzen. *Boble* bilatzailea akuilatu eta tximistaz ireki zitzaidan. Daniel Elgebeltz izena idatzi nuen. Gizonaren ospearen araberako zerrenda mamitsua agertu zen. Aski nuen hautatzea. Aitzina bada, irakurri: «Garazin sortu politikari abertzale sutsua da Daniel Elgebeltz. Teknologia berrietan zohitu enpresaburu ezaguna da. Euskalgintzako mugimendu anitzen partaidea dugu, erakunde publiko eta pribatuetako administrazio batzordeetako kide dela oraindik. Bitan dastatu zuen frantses kartzelen iluntasuna: lehenik

Iparretarrak taldekoa izatea leporatu ziotelako eta geroago ETAko bizkar-zakularia zela azaldu zelako».

Daniel Elgebeltz, honenbestez, korbe anitzetako ardia izana zen. Artikuluak zioenez, historialari gazteek egoeraren arraroa neurtzen zuten mugaz honaindian astoen moduan ahoskatuz *zuberoabenafarroalapurdi* deitu gunean. Alabaina Herriaren onartu ezinezko banaketa latza azpimarratzen zuen *Iparraldea* ahoskatze soilak. Oharra irakurtzean irriñoa marraztu nuen. Ulertu nezakeen zergatik gorakoi eta hozki mintzatu zitzaidan Daniel Elgebeltz Baiona-Miarritze errugbi partidatik lekora. Handietarik zen. Boteretsuetarik. Aberatsetarik. Ederretarik. Gizonak gizon ziren jendarteko euskal heroietarik bat. Eta ez nolanahikoa. Segur aski etsai bikoitzen atzamarretarik *Euzkal Herria azkatuko* zenean –(n)azkatuko baitzen– Garaziko sarreretan harri-tailua altxatuko zioten. Ongi merezitua naski.

Karkaza gordinez lehertu nintzen. Hori zen, bai, gustatzen zitzaidan biografia suertea, lineala, oparoa, itzalik gabea, euskaltasun zantzuak berme, urratsak argi eta begitartea beti koleran, zimur, kezkatua, euskal arazoarengatik bistakoa zenez. Estimu gutxi neukan aberezale entzutetsu mutur horiekiko: uste zuten

uraren bereizteko ezpata asmatu zutela. Hargatik Daniel Elgebeltzek bazuen uki nintzakeen beste arazo bat: arreba Janaren berririk ez zuen mende laurden honetan. Behar zuen zamak astuna eta zakarra izan Amaia Ezpeldoi bezalako bati zuzentzeraino apaltzeko. Bide guztiak agortu zitzaizkiola erran zidan Cordeliers karrikaren izkinan:

– Ez nuke otoizlariegi agertu nahi, baina lagundu nazazu.

– Bihar bilduko gara beraz.

– Robber tabernako eguteran.

Gizagaixoa… marmaratuz ordenagailuaren tapakia zapaldu nuen TV3.cat telebistako *Crackovia* emankizun satirikoko Charlie Reixachek eta Johan Cruyffek zegiten molde zainart berdinean. Satisfos. Bulegoko horman zintzilikatu argazkiak miretsi nituen banan-banan: Mariluz, Marga, Lorelei, Luisa, Kornelia, Monika, Hannah, Omaia, Rosa eta Virginia. Maitatu nituen, denak, eta agian bakanetan maitatu nindutenen begi kokinek zoramenera ninderamaten, atseginez hantzera eta bere paristar konkista zerrendaren parean Heinrich Heine bezain harro nengoen. Baina gaur nehor ez zegoen ohea berotzeko. Egiaz, ez zen hotz handirik.

Gaua biribilka zihoan. Ordulariak goizeko biak markatu zituen. Ostatuak hertsi ziren. Mozkor ahotsez marrakatu *agur agur Baionako zuri-urdinak* lanzinantea jazartzen zen oraindik Pelletier plazaren erditik. Azken putarrak. Nik ere ez nuen lotarako gogorik burumuinak derbiaren ondoko herotsez eta Daniel Elgebeltz jaunaz ikasiez beterik nituelako. Esku-ukaldia emango nion. Maiana Zartankoren etxeko giltzen bilatzeko egin nuen bezalaxe.

Istorio bitxiegia zen arras: deitu ninduen lanera giltzak galdu zituela eta detektibe baten premian zegoela otoizteko. Goizeko garbiketa saioa bukatzean ihardestea erabaki nuen. Aldi hartan ezezkoa eman nion Dederen aperitifa elkarrekin hurrupatzeko gonbitari. Maiana Zartanko zaharrak xumeki hartu ninduen ZUPeko egoitza politean. Estalki lilitsuekiko jargietara bultzatu ondoan afera azaldu zidan:

– Giltzak, bai... ez dakit non ditudan. Baina telefonoz ez nizun erraten ahal. Laster anai-arreben arteko arranjamenduak izenpetuko ditugu eta gurasoek notarioan bermarazi paper horituak desagertu zaizkit. Bidoze hegian, Erriberrin dugun Asunzuloko bordatxoa enetzat finkatzen du txostenak. Norbaitek ebatsi dit. Menturaz Ximona ahizpak. Deabruen figura baita.

– Segur zara?

– Ez naiz paranoikoa. Ez pentsa. Ximona gaitzeko krapauta izan da beti. Hosto meta hura atzeman iezadazu, arren, eta ikusten?, hor dagoen bi mila eurorekiko gutun-azal hori zurea date. Zergarik ordaindu beharrik gabe.

– *Basque je le vaux bien*...

Santa Gurutze eta Erriberriko sasitzarrak oro arakatu nituen Maianaren gurasoen testamentuaren atzetik. Hiru egunez ez nintzen lanera agertu sukartsu nintzelako aitzakiaz. Nagusia ez zen kantitu. Adiskideetarik neukan: herriko eskolan batera ibili ginen, matematikako ariketak egiten zizkidala eta trukean nik frantseseko idazketa eta konjugatzeak. Seigarrenetik hara bideak bereizi zitzaizkigun, Baionako Hiri Garbitzaileen erakundean nire kandidatura akta kausitu zuen arte. Pertsonarik egokiena sentitzen nintzen alabaina, estetikoki bezain etikoki, besteen zikinkerien xahutzeko, zaborrarekiko apaltasun nahikoa neukan eta ororen gainetik gustatzen zitzaidan, errealki edo metaforikoki kakaren nahastea, komunzki erraten zenez.

Maianaren kasuan hasieran sinetsia gezurreztatuz ez nuen gorotz askorik tapalakatu. Dokumentuak su-

kaldeko armairuaren azpian gordeak ziren, berak ezarri lekuan. Ongi gordeak ere, non ez baitzituen aurkitzen. Taulenuitaren gaineko krema koloreko gutunazala pasatu zidan. Irudiz ikatza uretan irakinaraziz adelatu kafea mahaian abandonatu nion, presatua nintzelako estakurua azpimarratuz. Paperak papoan tinkatzen zituela, zoriontasunez negarrez ari zen Maiana Zartanko.

– Ez zen Ximona orduan?

– Norbera bere buruari mesfida bekio.

– Oi, oi, oi, gaizki erranka higatu naiz...

– Zalantzarik gabeko egiarik ez.

Egiarik ez haren oiharraz gatibatu ninduen loak. Argituko zuen, bai, bihar ere. Egun bederari zama berea aski zitzaion. Baliorik ez zuten zuhurtzia eskaseko perpausak herronkatzen nituen. Larunbata zen jadanik, azkorria eta lankideak hiria zeharo garbitzen hauteman nitzakeen. Ez nintzen aspertuko gauza parrasta bat banuelako egiteko gaur.

Loa loa txuntxurun berde. Lorelei?

–3–

Garaiz heldu nintzen Robber ostatura.

Lanpetuta zegoen zerbitzaria. Bezeroek kafea hapataka irensten zuten lanera jo beharrean. Kontuarrean pausaturiko *Sud Ouest* egunkariko tituluei begiradak botatzen zizkieten. Argazki bati edo besteari. Lurraren ibilera aldatuko zukeen ezer: DSK New Yorketik itzuli zen Nafissatou Dialloren ustezko bortxaketa susmoetarik garbituta –dirua edukitzea zer den, bestenaz...–, libiar asaldatuek beti Gaddafi xerkatzen zuten, eta bezperako derbiaren bilduma gazi-gezia zetorren. Baionarrek ez zuten beraien balizko garaipenean sinetsi eta horregatik egin zituzten huts guztiez baliatu ziren Miarritzeko azeriak. Gure Irratiko uhinek estaltzen zituzten Robber tabernako haroak.

– Eta orain Benito Lertxundiren kanta Ezterenzubiko Maitexak eskaturik, bere arrasemearen urtebetetzea delako.

Oi ama Euskal Herri goxoa...

GAL mertzenario hiltzaile taldearen erasoen denboratik at saihetseko mahaian jartzeko ohitura neukan. Ihes egiteko prest. Ez nintzen ni mehatxatua,

baina psikosiak gorputzak beldur meta ibiltari moldatzen zituen. Ez baitzen txantxetakoa. Enpresa handi bateko garbitzaile gisa Parisera joan nintzeneko hilabeteetan egun oroz kasik hilotz bat bazen Baionako karriketan. Zekienak oraindik ere ikus zitzakeen Monbar, Pyrenées, Kaietenea edo Midi kafetegiko hormetan itsatsi odol tatxak. ETAko errefuxiatuen aurkako gerra zikina deitzen zitzaion. Moncloatik kudeatuta zetorrela erraten zen eta, egiaz, hamarkadaren buruan ministro zenbait auzipetuak izan ziren. Nehoiz ez zen ezabatu Baionak jasan masakrearen oroitzapena. Hortaz, Iparraldeko jendaldea gerizarik gabe geratu zen tiroen meneko, nolabait arras berea ez zen gatazka baten izenean.

Daniel Elgebeltz pareko bortatik sartu zen. Burua alderik alde higitzen zuen ene bila. *Berria* kazeta zeraman besapean. Geroago aitortuko zidan eran, ez zuen euskaraz irakurtzen, ez bederen euskara mota hori, badakizu, baina egunkaria erosiz militante ekintza zegien. Hatz erakuslea altxatuz zerbitzariari garagardoa erregutu zion eta niregana etorri zen hortzak agerian:

– Ez nuen uste tenorez zinatekeela.

– Noiztenka behar da.

– Gaitezen labur eta on mintza. Ez dut astirik zurekin galtzeko.

Garagardo basoa ezpainetara aupatu zuen. Hagguna lotu zitzaion sudur azpian. Zoriontasunezko hasperena aska zezakeen. Nor ote zen bada gosal orduan garagardoz horditzen zihoana? Heroia zitekeen edo soilik alkoholak erre izate trapusa. Dudaz nenbilen.

– Barda arratsean jakinarazi dizut arreba desagertu zitzaidala duela mende laurdena. Elkarrekin genbiltzan ikastolen, presoen eta errefuxiatuen aldeko manifestaldietan. 1985eko Baionako bestetarik landa ez nuen gehiago haren berririk jaso. Gau osoa eraman genuen lagunekin mozkortzen eta Reduit plazan agurtu ginen. Arrebak Santizpiritu auzoan zuen autoa.

– Eta kotxea...?

– Janak utzi lekuan zegoen. Atzeman genuelarik errautsez eta hosto lehorrez perdukatua zen. Leihoak alta puskatuak zituen, baina Poliziak erran zigunaren arabera gazte mukizuak ziren autoan sartu eta ateraka jostatu. Jimmy izeneko punki eratorlariaren iluneko aterpea ere izan omen zen.

Laurogeiko hamarkadaren ezinbesteko irudia baitzen kasko gainean batzuk bermarazten zuten kukurusta berdea, edo urdin flaxia, edo gorri argia: *no fu-*

ture, no fun. Jimmyz entzutea banuen alabaina. Kostaldea sutan jarri zuen Zakilots musika bandaren liderra zen, taulan uzker, tu, goitikin, poker eta oker zebilela. Bi segundoz nire baitako pentsatzeko makina tzaka-tzakaz erdutu zen:

– Agian Jimmy horrekin solastatu behar nuke.

– Basusarrin bizi da. Gizonik plantakoena duzu. Familia eta enpresaburu.

– Zerbait ikasi badezaket...

– Zuk ikus.

Godaleta brauki hustu eta behialako boteretsu keinu berdina eginez bigarren bat manatu zuen deblauki. Ostatutik agudo iragaten zirenak agurtzen zituen eta zenbait kuxeluz mintzo zitzaizkion belarri zulora. Daniel norbait zelako froga. Orbe karrikan zapatak saltzen zituen denda panpoxeko nagusia aditza harilkatzeari eman zitzaion:

– Une latz haietan gainera bazen hemen gaindi zebilen serial killer bat. Inkesta sumingarriaren ondorioz Poliziak atxilotu zuen gaizkilea. Dupont de la Cuna. Psikotropikoez hantu herresta bat. Hilotzez bukatu bi bortxaketa leporatu zizkioten. Ukatu zituen, baina hala ere hamabost urteko kartzelaldiaz zigortu zuten. Jujea ni izan banintz eta balitz, herio zigorrera konde-

natuko nuela jakizu, edo ez zela presondegitik jalgiko sekula.

– Eta bera ez bazen...

Irudiz, hobengabetasun iritzia handikientzat baizik ez zen. Herritar soilak, txikiak, apalak, arrotzak, pobreak, Elgebeltz jaunak zioenez herrestak eri ttittila mugitu orduko errudun ziren. Boteretsuaren hitza indargabearenaren trukean. Betiko istorioa. Mendeetako sarraskia.

– Non aurki dezaket Dupont hura?

– Landetako eroetxe batean dagoela entzun dut.

– Ederki. Eta zu? Poliziak ez zaitu galdekatu?

– Ni? Zergatik?

– Norbait desagertzean zirkulu hurbilenekoak baitira ardura hobendunak. Bortxaketen alorrean adibidez %90 kasuetan aita, osaba, anaia edo auzo maitagarriak dira egile bezain eragileak. Serial killerrarena estakuru errazegia da.

Niniketara beha zegokidan Daniel Elgebeltz. Ez zukeen nehoiz horrelako ahalkeizunik jasan. Alta askotan hala zen: polizia eta sokorritzaileak haur edo emazte baten gorputza bilatzeko laguntzailerik sutsuena azken finean erailtzailea bera zen. Telebistan agertzen zen kazetarien galderei ihardesten, lekuak

erakusten eta hipotesiak iruten. Ikerketaren buruan hedexuriek atxilotzen zutenean jende plaxentaren murmurra hautematen zen bazterretan:

– Bizidun normala genuen. Isila. Emazteaz eta umeez lasaiki axolatzen zena. Ez nuen nik horrelakorik sekula irudikatuko alabaina. Bost haurrak eta andrea jada putzu sakon horretan hilotz... bazauzu?

– Mundu desorekatuan irauteko zorigaitza dugu.

– Zuk erran!

Elgebeltzek laugarren garagardo basoa idortu zuen. Arranguratua zen. Aulkian bermatu eta paltoko lepotik hertsatu ninduen:

– Poliziak egin ez zuena ez didazu eginen arauz! Ez nauzu arrebaren hiltzeaz akusatuko?

– Non zinen desagertu zen gauean?

– Taldearekin. Reduit enparantzan. Marietarekin sartu nintzen Angeluko gure apartamentura. Larrua jotzen saiatu ginen, baina sobera edan genuenez zuloak non zeuden ez genezakeen asmatu. Biharamunera atzeratu genuen trahola.

– Zer bilakatu da Marieta?

– Ezkondu egin ginen 1988an. Elkarrekin bizi gara. Seme-alaba bana daukagu. Marieta nirekin ari da za-

pata saltzen. Nahi baldin baduzu solastatzen ahalko duzu.

– Eiki. Hara bederen kondaira polit bat.

Bizkar-zakua ireki zuen. Lauzpabost txosten mardul eskaini zizkidan. Dupont de la Cunaren auzikoak gehienak. Poliziaren inkestarekiko xehetasunak nabarmendu nituen lehen soakoan berehala. Interesatzen ninduen aferak. Hainbeste urteren buruan hezur eta larru hiro baizik ez zitekeen Jana. Alderantziz halaber nonbait errotu zen anaiaren bortitzetik gerizatuz ahalik urrunen: argiki Elgebeltz ez zitzaidan agrada. Anitzetan norberaren eta norbera izan zenaren artean mila legoako tartea premiazkoa zen. Soraio keinu trauskilaren ondorioz orrialde zenbait lurrera erori zitzaizkion.

– Sailkatu itzazu. Denbora baduzu zuk. Nik hamarretan zabaltzen dut zapatategia.

– Ni ere lanera noa...

– Larunbatetan?

– Bai, behar dira zaborrak bildu ezta?

– Hori ez da, etxit, emazte lana...

Esku gibelaz ezpainak torratu zituen, izkinetako hagun-mihi malguak kentzeko. Lau garagardo orenean ari zen. Zanpa-zanpaz. Purrusta gordinez leher-

tu zen *emazte lana* aipatu zuenean. Banekien bai Daniel Elgebeltzentzat, burkide parrasta batentzat bezala, emazteak ez zirela sukalde, lo, senda eta ikasgela gelberetarik jalgitzeko egokiak. Ordena moralak gaitzesten omen zituen irakasle, suhiltzaile, zabor-biltzaile, autobusetako txofer, tren gidari edo detektibeak ginen jadanik. Egoerak kanbiatzen zihoazen, baina nire maskota zen apoarmatuaren abiaduran.

– Nekez patitzen nauzun arren, zure arrebaren kasua ikertuko dut. Atzo salatu dizudanez, ez nago maitatua izateko, ordaintzen didazun ber. Bi mila euro gehi gastuak, zuregain.

– Ez zara kitorik ari?

– Bukatu da garaia.

Pannecau karrikan merkatura presatzen ziren jendeetan urtu zen Daniel Elgebeltz. Ulertezina zitzaidan asteburuetako hiritarren harramazka. Helduko ziren bai helduko zirela! Zainetako presio hutsalak akuilatzen zituen, geldirik gabe, bestela aukera galduko zutela sinesteraino. Horrelako tentsio uneak pairatu nituen noski. Zabor-biltzaile hasiz geroztik ordea, barnez lasaiago nenbilen, denboraren leize sakona preziatuz, guztiek apalesten zuten bakartasuna oparitzat hartuz eta noiztenka aldamenean zebilkidan andre

xarmanta errotik laztanduz. Begitarte triste, hits eta etsien artetik lerratzean, dirua ausarki edukitzeak zer balio zuen galdezka ari nintzela, garbi nuen inkestak doan negizkien garaia derrigor ahitua zela. Eta ez nuen damurik.

Etxeratu nintzen. Karim eta Dede aiduru neuzkan bietan. Bosgarren pisurainoko eskailerako mailak lasterka igotzean trenka-hurren sumatu nuen hatsa, Daniel Elgebeltz gizagaixoaren txosten nahasiak egongelako sofan abandonatu nituen. Derbitik lekorako urriki olde berdinak kateztatu ninduen, amodio tsunamiak eraman, laguntzeko tirriak urratu eta ezagutzen ez nuen oneziaren zagitak zitzikatu. *En plein dans le mille...*

– Ez da norbaitek estimutan atxikitzen ez zaituelako haren aurka egiterik. Jakin dezagula maitatuak eta ez maitatuak garela aldi berean, hurkoak eta etsaiak, zoriona eta zorigaitza, bizitza eta heriotza, argia eta iluna, gaua eta eguna. Eta ehun mila kontresta gehiago bistan dena.

Ez nuen damu izpirik, alajainkoa!

–4–

Lauretarik hamarrak arte lanean ari izan nintzen. Dede pausuko zen. Karimen eta Suleimanen konpainian higatu nituen beraz orduak, karrikaz karrika mondoinatu zakarrak biltzen. Euriteen ondotikako beroengatik urrin tzarra hedatzen zen ezaxolatiek kanpoan abandonatu poltsetarik. Haietarik zenbait zakur gosetiek edo kuriosek irekirik lur hasean husten ziren eta beste batzuek deus ez zeukaten hiritarren bisitak ukaiten zituzten. Beti bazen zerbait errekuperatzeko epea iraungitzear zuen janariaz aparte. Baiona Txikian ez zen zaborren bilketa selektiborik egiten. Halatan, oheko matalazak, arropa hertsiegiak, informatikako materiala, hozkailuak, telebista zaharrak bermatzen ziren are berriagoaren premia zuen kontsumo gizartearen aztarna xifrituak bailiran: erradazu zer aurtikitzen duzun, erranen dizut nor zaren...

Dutxapean egon nintzen luzaz. Iruditzen zitzaidan zaborraren epel zizkolatsua larruari josirik neramala. Biloak idortzean sukaldeko sofa erosoan pausatu Daniel Elgebeltzen txostenei behakoa bota nien: bitxia zen hainbeste denboraren buruan norbaiten hatzik ez

edukitzea... Elgebeltzez mesfidatu behar nuela nionean, Preziosen telefono-deia hartu nuen:

– Wittig-en gaude. Zure aiduru. Etorri! Badugu lagun bat gehiago gure taldean. Aurkeztuko dizugu.

– Banoa. Segidan.

Giltzak hartu nituen. Elgebeltzek biharamunera arte igurikatuko zuela iritzi nion. Lanaren saria besta zela errepikatu nuen aski gora. Behereko auzoaren eskaileretara zeraman leihoko erridaua mugitu zen. Hemen ez zen urrats bakar bat egiten ahal kukuxkatua izan gabe. Dena jakiten zen. Arrazoia zuen alabaina Elgebeltz jaunak: dena jakiten zen eta ez zegoen ezberdin bizitzeko ihesbiderik. Besondoa sudur zuloetara hurbildu nuen kamioi zaratatsuetara arraiki kargatu genituen lertzoen urrina arras desagertua zela baimentzeko.

Herriko Etxeko ttattolan igurikatu nuen A2 lineako Chronoplus autobusa. Gauekoa zen. Argitsua. Gozoki agurtu ninduen txoferrak. NY idatziekiko kapeluak atzekoz aurrera zeuzkaten mutiko gazteez mukuru zen: ZUPetik Angeluko McDo jatetxera zihoazen, goraki mintzo ziren eta Shakiraz edo Rihannaz apaindu neskek prestuki urrutizkin Xtralauak manipulatzen zituzten. Union geltokitik landa, ordea, garraio publikoa

hantu zuen harramantza jabaldu egin zen. Hurbileko itsasoko uhinen marmarrak hauteman nitzakeen. Miarritzeko udaletxean utzi ninduen. Hortik berrehun metro oinez eta Wittig Bar kuttunean nintzatekeen larunbat sorgindua adiskideekin ohoratzen.

Ostatuan sartzean, eskas nituen Miarritzeko hondartza nagusitik zetozen haize zafladak. Oteizaren burdina-tailua balakatu nuen pasatzean eta ukitzean hatz puntetan barreiatu zitzaidan herdoilak sosegatzen ninduela aitor dut: huts euskalduna ez baldin banintzen, euskaldun hutsa nintzen bederen. Gogoetaren ildo latza. Debaldearen funtsa. Kontzientzia lehertzean jada tabernako atarian nintzen. Butx erako zaindariak goitik behera aztertu ninduen:

– Aitzina...

– Mertzi biziki.

– Lagunak hor dituzu naski.

– Bai. Behingoz.

– Gau zoroa iragan ezazu.

Emaztez, neskatilez eta anderez plei-plei ziren hegiak. Izerdi usaina perfume karioenekin nahasten susmatu nuen. Nire entrebaleko umore ona emendatu zen honenbestez. Kontuarraren gibelean betiko mirailaren partez Monika Wittigen potret erraldoia heda-

tzen zen. Irriz ageri zen gure izarra, kasketa kaskoan, eskuak eskari... aterkirik gabe, alabaina, argazkia hartu zen egunean ekitoltzean zelako. Preziosek Wittigen obra azaldu zidan arren, ez nekien zuzen nor zen. Zena zelakoa Carmenekin lesbiana iluminatu gisa Bilbon plazaratuz geroztik nabaritzen nuen Wittig bereziki garrantzitsua zela niretzat. Maite nuen mende osoa gordean ihardukirik, hondarrean *lesbiana naiz* ahoskatzea, harro eta aldi berean oraindik pixka bat herabe. Maijan, Madonna, Marlen, Maria Merçez osaturiko nire panteoi andrakoiari Monikaren itxura gehitu nion.

Barraren zilarrak gatibatu ninduen. Prezios eta Zoko ikusi nituen urrutian ezagutzen ez nuen hirugarren emakume batekin solasean. Atsedenerako unea zen. Erdi biluzik zebilen zerbitzariari riesling ardo zuri basoa amoinatu nion:

– Idorra, otoi.

Hausnarrean tematu nintzen: bizitza zinez aldatu zitzaidan *lesbiana naiz* errateko lotsa gainditu nuenetik. Oinak lurrean erro eta burua zeruetarik txilintxau banitu bezala zen, egiazkotasun berri bezain finkoaren sentsazioa. Ez nintzen ez perpaus mirakulutsua net eta tink aldarrikatzeko gai oraino, batez ere lantokian eta familiako bazkarietan. Hargatik konturatzen

nintzen, lanean zeuden hamar kideetarik hiru nitaz gain, sekretuan, genero alorrean mugalari zirela. Begi-keinuz hitz hartzen ginen besteak *gouinak* eta *pedeak* ahoak eman ahala iraintzen zebiltzan bitartean, laneko barne-agiriek sexuarekiko, larru kolorearekiko zein erlijioekiko laidoak edo bazterketak gaztigagarri zirela zioten arren. Zer edo zer ikasten baldin bazuten xahu ginen. Ala on zuten haiek ere munduaren neurri bakarrak ez zirela ikastea?

– Zure rieslinga...

Joan As Police Woman taldearen *Chemmie* abestiaren erritmoan dantzan ari zen neska-saltsaren minetik urratu nuen Preziosengana eta Zokorengana. Saldoko abeslari tenebrosa ageri zen pantaila kliskatsuan, nuklear zartaketatik salbatu kotxe kaskarraren hegatsean base-ball makilaz asaldatzera zihoazkienei erasotzen. Irudi bortitzak ziren, baina benetako biolentziarekiko loturarik ez zeukaten. Mundua, eman dezagun, *A Clockwork Orange* filma edo *Roma* telesail odoltsua baino anitzez salbaiagoa zen. Tximistaren abiaduran jazarri zitzaidan Daniel Elgebeltzen begitarteak ikararazi zizkidan sinapsiak: komunioa kofesatu gabe eman geniezaiokeen gizon plaxentaren barneindar itsuaz zer?

– Bego dioenak...

– ...ego dio!

Preziosen ahotsa zen. Kikizaia askatu nuen. Doidoia ukan nuen riesling godaletaren salbatzeko astia. Paradisuan nintzen. Eta ez nuen Virgilioren premiarik. Preziosek bere bularralde oparoan tinkatu eta lepotik harrapatu ninduen musu hezea ezpainetan pausatzeko. Besoen artean kolokan geratu nintzen eternitatea zirudien une batez. Haren berotasuna maite nuen, iji eta aja gordina, izterren balantza telurikoa, sabelaren hantze-hertze lasaia, papoaren sosegua eta ororen gainetik hura halaber nire antzera arriskuan zegoela zekien lesbiana zoriontsua zelakoa. Alabaina hazi orduko Euskal Herrian berean, argizaiola itotzekoa zen moralaren onerako. Literatura-pentsalari zuhurren arabera lesbianatasunak zirkunstantzia bat baizik ez zukeen behar, azpimarrarik merezi ez zuen istorioaren iruteko funtsezko zioa bederen ez. Preziosek eta biok alderantzizkoa irizten genion: lesbiana izaera, bere itzal-argiekin, aipatzekoa zen, ikertzekoa, kritikatzekoa, gorestekoa, garatzekoa mila moldez. Jende soberak, herioraino noiztenka, sufritzen zuen bere norabide sexuala aukeratu eta onartzeko debeku subliminalaz mihian zeraman hizkuntzaren baitako eredu faltaz,

euskarak borroka armatuaren errealitateaz aparteko ezer erran ezin bailuen.

– Non daukan burua?

– Janis Joplinen maneran bezti etorri naun.

– *Cry baby*...

Riesling botila erregina baten pare zetzan lagunen mahaitxoaren erdian. Brustaz hustu nuen basoa. Arradarazi nion edaria banatzen zuen Zokori. Hormako pantailan jada Minneapolisko Sick of Sarah-ko lau neskatilak harro zebiltzan *giving up* beraien *hit* gitarratsu ozenarekin. Piercingak zilborrean, tatuaiak sorbaldetan, punk eran ebaki biloak eta diamantez hornitu belarritakoak zeuzkaten. Ikusgarriak zinez.

– Lanean hintzen?

– Bai. Leher egina naun. Jargian tapalakatzea amets dinat, Prezios. Benetan.

– Begiak beltz hituen sartzean. Arazoren bat?

– Izpiritua alha ninan. Goiz honetan inkesta berri bati baiezkoa eman zionat.

– Bahaia... Konta iezagun berehala.

Zokoren eta ezezagunaren artekan plantatu nintzen. Prezios konturatu zen ez gintuela aurkeztu.

– Nolwen... Nolwen Kergelen kapitaina. Duela bi egun Baionako komisaldegira izendatua.

– Baina...?

– Amaia –erasiatu ninduen Zokok–, ahantz itzan hire gaztaroko errebelde fantasmak eta balia hadi oparitzen zainan adiskidetasunaz.

– Polizietarik dun ordea.

– Ez gaitun klandestinoak ere. Jendea jende dun arauz.

– Bai horixe.

Zokok baimendu zuen aita zenari askotan errepikatzen entzun nion Preziosen zuhurritza. Gure zaharrak, zuhurritza erabiltzen zuen batez ere ehizan, musean, bost ehortzetan eta bi ezteietan gogoko ez zuen norbaitekin uztartua izatea agitzen zitzaiolarik. Ez zen beraz markarik hoberena. Hargatik fortuna gaitzaren aurka bihotz zabaltasunez jokatu nuen, Nolwenen ahurra samurki tinkatuz.

– Amaia Ezpeldoi naiz, hiriko zikin biltzaile funtzionariotua eta dagoeneko metropoliaren erraietan ekiten duen detektibe rurala. Wittig tabernan baldin bazaude, ezpal berekoak garelako seinalerik argiena da: honki jin gure honky tonkera!

– Ja... *Good*... zure ikerketetan lagun zaitzaket noizbehinka. Polizia izanagatik gogoko ez banauzu, berdin zait. Gurasoek ere hedexuriak partida zituzten

Plogoffeko nukleartegiaren kontrako borroken garaietan, eta hara non alaba bakuna Polizian bihurtzen zaiela. Kontraerran garratzekin moldatzekoak gara guztiak. Horrela da mundua bizigarriagoa.

– *Okey*. Dantzut.

JenRo raplari emearen bozak trenkatu zuen Wittig Bar honen hondoa. Itsasoko olatuen neurrikoa zen mugimendua. Kergelen kapitainak riesling botila bat gehiago eskatu zuen. Daniel Elgebeltzen afera bihikatu nion, aitortu zidan Ilbarritz Hotelean zegoela apartamentu baten aiduru, anartean Preziosen espaldetan jabaltzen zuela herri-mina eta Baionakoa, zuzendari lehen lanpostua zeukala, miau-miau, txin-txin, riau-riau... Zokoren kasketaldi berriaz trufari gentozen azkenean: tunisiarrek urtarrilean Ben Ali haizatu zuten, libre ziren eta libertatearen izenean martxo bukaeratik Zokok burka janzten zuen. Eta segur izan zaitez, irakurle, ez zuela gizon larderiatzailerik bere ganbara itsuan... Zokoz burlatzen ginen baina bere aske sentitzeko era soila zen.

Iragar ezina zen gaua.

–5–

Igande azkorrian iratzartzean ez nintzen gutxi harritu ohe aldamenean Nolwen Kergelen nuela erreparatzean. Gaueko autobus zoharrean urtu ginen bakoitza bere egoitzetara itzultzeko. Laurak eta erdietakoa hain zuzen. Nahikoa edanak ginela oroitzen nintzen. Argi-zirrintan, saihetsean neukanari behakoa umatu nion: erdi biluzik zetzan eta orduan ez zuen ematen hedebeltz izugarrien kapitaina zelakorik. Mirailean ikusi nuen neure aurpegi xifritua: «Ohitura nazkagarria! Arropetarik norbaiten jujatzeko jaidura hori. Egiazko euskalduna haiz. Epaitu eta epaitu ari haiz hire harresi propioen indartzeko. Aldatu hadi behintzat».

Kasko-leizean burumuinaren bi zatiak elkarri kuskaz ari zitzaizkidan. Riesling ardoa gozoa zen aho sabaian, freskoa zintzurrean eta sutsua sabelean. Ezpainak idor nituen eta ez nekien zehatz non nengoen. Sukaldean irratia piztu nuen. Mezaren tenorea zen: barnealdeko elizako apezaren ahotsa sartzen zen, ahuntz dardaratia bailitzan; gizonek galerietarik eta emazteek beheretik intzirikatzen zuten *urrikal zakizkigu*

errepikatuegian. Zerbait zen bestenaz: gure herrian igandea ez zen igandea meza saindurik gabe. Fededunak alta urritzen zihoazen nahiz eta katolikoak, islamisten ildotik, arrakonkista fasearen burbuilan itolarrian zebiltzan. Baionako apezpikuak herritar laxoegiak eginbehar suharretara akuilatzea zuen helburu, behorren krasturuaren hertsatzea eta zakurren lepoko uhalaren laburtzea.

Leihotik so gelditu nintzen. Niniken panoramikoaren zedarrian sudur zuloak kilikatu zizkidan Daniel Elgebeltzen txostenen paper zokil usainak. Hatz puntaz azalaren azpian gorderiko argazkiak barreiatu nituen. Lehenik Janarena, zuri-beltzean, hogeita lau udaberriko neska agradagarria... hila baldin bazen, zergatik ez zen gorputzik nehon atzeman eta, alderantziz, bizirik bazegoen, zertarako ez zion familiari bederen berri izpirik helarazi? Bigarren potreta bi zatitan banatzen zen: Jimmy Sevran punk abeslaria denboran eta mende laurdena geroago Basusarriko bere etxe neoeuskaldunaren sarreran. Hirugarrena uherragoa zen; urrunetik eta alanbreetarik ebatsia zirudien: Christophe Dupont de la Cuna, hamabost urteko zigorra konpliturik Landetako *Txirlinga* eroetxean kateztatua.

Kafe makinaren hotsa hauteman nuen. Esnatua bide zen Nolwen. Sukaldera lehiatu nintzen. MP3 irakurgailuaren entzungailuak belarrian, lau egun zaharreko egunkaria hostokatzen ikusi nuen. Nire agur ozenak ez zuen alabaina durduzatu. Nik behiala abandonatu moldean zegoen ohantzean, arinki beztitua, armairutik kikarak eta anaiak ekoiztu ezti ontzia jalgitzen. Nitaz konturatu zen.

– Etxean bezala egiten dut.

– Bai, egizu.

– Uste nuen joana zinela. Ohe berean lo egin dugu?

– Naski.

– Eta zerbait gertatu da?

– Istripu bat erran nahi duzu?... Ez, ezer ez. Baina zure zalantzen arabera zer edo zer gerta zitekeen. Kasik larru-has miresten zaitudanean, koilaratik eztia sentsualki ezpainetaratzen sarraski erotikora deitzen nauzula dirudit.

– Doi-doia ezagutzen gara.

– Nortasun kontrol gihartsua egidazu...

Kristalezko karkaraz lehertu zen. Eztiz mukuru zeukan ahoaz nirea irentsi zuen aiko-maiko izpirik gabe. Noski, ez genuen pasaporte edo agiri baliodun

beharrik muga intimo hauen zeharkatzeko. Argi eta garbi zegoen.

– Eguerditan hasten zait laneko txanda.

– Ordutegi bereziak dituzue.

– Zabor-biltzaileenak bezain bitxiak dira. Bizitza pribatua debekatzen dizutenetarik. Eta zuk, zer xede duzu?

– Badakizu astia dudanean detektibe rural zereginetan nabilela. Korrika egitera joango naiz Angeluko hondartzetara, gau serenako hordimenaren hatzak ezabatzeko; eta harri batez bi txori, ikerketa manatu didanaren egoitza kukuxkatuko dut.

– Laguntzen ahal bazaitut, pozik nintzateke.

– Bilatu iezazkidazu Baionako Poliziaren artxiboetan Jana Elgebeltz anderearen desagertzearen inguruko xehetasunak. Ez daukat konfiantzarik Danielengan.

– Amaia... ez jujatu!

– Euskaldunegia naiz.

– Baiki.

Firurika jantzi zen Nolwen. Galtzak eta soineko arina. Nola film arrosetan, hala musukatu ninduen apartamentu atarian. Ez zen behereko santsanak begiztatuko eta gero tea-partyko bere adiskideei kontatuko zienaz lotsa. Hoteletik pasatu behar zuen.

– Deituko dizut. Sarri arte.

– Amodio tximistariarena jolasten ari zatzaizkit ala?

– Zergatik ez? Libre nago. Zu ere bai. Zerk trabatzen gaitu?

Eskaileretan behera punpari jaisten aditu nuen. *Right baby*: zer edo nork debekatuko zigun bide puska baten elkarrekin aztalkatzeko ahalmena? Anitzetan guhaurk genuen gure burua bahitzen, jendeak salatuko zituen desira eta nahikunderik ez zezan ukan. Gehiago zena, dena debekatua zen munduan jarduten genuen: erretzea, larrua jotzea, loditzea, haserretzea, bozkariatzea, mozkortzea, bakarrik bizitzea, nagusiaren baimenik gabe pixa egitea, gurintsu jatea, pobrea izatea. Kiroleko zapata arrosak oinetan finkoki sokatzean banekien zerrenda etengabe heda nezakeela. Big Brotherren erresuma trinkoan hargatik egunerokotasun sekretu eta mutura zeraman zirrikitua bazen. Jim Morrisonek pertzepzioaren ateak deituko zituen Aldous Huxleyren ipularrari jarraituz. Ondorioz, sarearen ziberrabantailak ukatu eta zuzeneko harreman txepelak hobestekoak ziren. Nolwenek deituko ninduen beraz.

Itsas Lamien Korrikaren ibilaldian izerdiaren botatzea erabaki nuen. Itsaso aldetik partituz. Jende franko bazen nire antzera izerdiz bellitzen. Dirua zuten aipagai. Zenbat kosta, zenbat balio, zenbat ordaindu, zenbat irabazi: igandeetako terrenta bilakatua zen arditaren gaia. Sosa zuhur zegoelako marka. Urratsez urrats Zaldunak, Dunak, Madraga, Kortsarioak eta Marinella plaiak zangoztatu nituen, airearen gazia larruan akuilari. Haize buhakoak motzak ziren eta lainoak beltz Miarritzeko faroaren alde gainean. Iruditzen zitzaidan abiadura biderkatzen zihoakidala Nolwenen proposamen lizunaz gogoratzean. Eta zer? nioen makadamez estali Hondartzen Etorbidera bihurtzean. Apirila izanagatik haurrek izozki arrosak zeuzkaten ahurretan eta adinekoek txapela kuriosak itzal egile.

Pinuen gerizpean eta golf zelaiaren kantoian aurkituko nuen Daniel Elgebeltzen villa munttoa. Hogeita hamahirugarren zenbakian. Bizkitartean ziklobidean nenbilen, txirrindularien tutei kasu emanez eta lasterka ni baino agudoago bazebiltzanak aitzinatzen utziz. Moura etxearen parean nengoen. Hatsa hartu eta lasaiago sentitu nintzen. Kopetan behera begi hondoak mikaztuz zetorkidan izerdia lehortu nuen esku gibelaz.

Zin negien hurrengo aldian ez nuela Azkaineko Neska-Korrikako oihalaz burua troxatzea ahantziko.

Arbola gorakoiez setiatua zen Moura. Brikazko horma zakarrak xingolatzen zituzten zuhaitzek. Ongi babestua zen Elgebeltz. Botoi ezberdinak ageri ziren sarrerako estankan, seguritatea biderkatzeko. Ahots goragailua eta giltza magnetikoaren sakatzeko zulotxoa. Daniel Elgebeltz paranoikoetarik zitekeen, Bronx zelakoa ez zen Angelu hiriaren hegian horrela barrikadatzeko. Ez nuen ulertzen. Edo bai, okituak deus gutxirekin izutzen ziren, larru kolore ilunegia edo adin hotzeko gaztearen keinu zehaztugabea, pitt-bull gosetien muturretakoak askatuz gobernuei are polizia eta lege (z)iniko gehiago amoinatzeko prest. Sareko txat guneetan anonimotasunaren bizkar laxatzen ziren: herio zigorra bai ebasleentzat, milizia pribatuak bai auzo dirudunetan, defentsa legitimorako deretxoa bai gatazkak garatzean. Mourako parkeko garailak higitzen zihoazkidan oinpean. Kamera zelatariz inguratua zitekeen. Elgebeltzek mirazkatu nindukeen. Andre batek brauki eta pistola girgilaren mehatxuaz ireki zidan kirilla:

– Zer nahi duzu?

– Daniel Elgebeltzekin hitz egin.

– Mezara joan da. Baionako Katedralera. Ez dakit noiz etorriko den. Zer ari naiz ni arrotz batekin elestan? Alde hemendik eta agudo. Poliziari deituko diot bestela...

Aski zuen botoi gorria zapatzea. Hedexuriak bost segundo barne hor ziratekeen. Aberatsenek indar-zerbitzuak edonoiz meneko edukitzeko deretxoa lortua zuten, BABko txiroagokoek mendeak igurika zitzaketelarik larritasun bat edo beste agitzean. Iragan udan, adibidez, ZUP Handiko eta ZUP Txikiko gazteak lerroan borrokatu ziren Gaskoien plazaren azpiko belardian. Inor ez zen kantitu. Ez zen xerkatu zergatik garatzen zen pataska misteriotsu hori. Nork piztu zuen ito ezinezko sua. Utzi ziren jendeak beraien kezka, galdera eta ezintasunekin tematzen.

Zilarrezko pistola eri puntetan oldartu zitzaidan anderea, beraz, Marieta zen. Alatxilintxoia! Kizkurgileak zituen ileetan, oraindik ere ganbara-jantzia zeraman soinean, zakur kanixeak zetozkion atzetik txanpari: kazetariek goretsiko zuten egiazko emazte plaxenta zirudien. Elgebeltzen harripe gotorra erromatar behe-inperioko *villa* baten ereduan marraztua zen. Lau zutabe doriar zituen bortatxean, marmolezko mailak ataurrean eta xendrari zerraizkion lore peza zain-

duak. Palmondoaren maldan labea zelatatu nuen. Elgebeltz sendiak errezibitzen zekielako seinale.

Sirena hotsak entzun nituen Hondartzen Etorbidearen ekialdetik. Zegoeneko lasterrez jarraitzeaz beste aterabiderik ez neukan. Zanpa-zanpa erdutu nintzen. Munizipalak Mouraren parean geratu ziren arrastak zapalduz. Telesail amerikarretako agenteen antzera zebiltzan gero, sorbaldak borobilduz, lepoak tiratuz eta betaurreko beltzak orekatuz. Marietak lasaitu zituen. Ez ninduen salatu. Agian Danielek aipatua zion arrebaren bilatzeko detektibe batengana zuzentzeko xedea. Bikote sendoaren itxura oparitzen zuen Marietak. Asperdura zerbait ere naski.

Leher eginda iritsi nintzen Barrako autobus tokira. Itsasoa eta lainoak antzekoak ziren: gris baino grisago. Eki leinuru herabea ausartu zen. Daniel Elgebeltzen afera burutik ezabatu nuen, autobusa bideratzean hasi zen euri lodi zaparrada begiztatzean. Salbatua nintzen. Arranguratu egin ninduen Marietaren itxurak: ez, ez nuen sekula barne-emakumea izan nahiko. Menaiaz, sukaldeaz, haurrez, senarraz –hori ez, hori ez...– axolatu beharraz laburbildu bizitza jasangaitza lekidakeela nioelarik, Baionako Herriko Etxeko Libertate plazan nengoen.

Zortziehun metro gelditzen zitzaizkidan Pannecau karrikaraino. Korrika estali nuen distantzia, zipoak ekidinez. Uhar bortitzari ihes neraman abiaduran Aviron Bayonnaisko edozein jokalariri irabaziko niokeen sprintean: parioak libro...

–6–

Eguerdi pasatuxean, dutxatik lekora, ordenagailuaren aitzinean plantatu nintzen. Elgebeltzen Moura villa erraldoia nonbait begietsia nuen. Memoria inarrosi eta inarrosi, ez nintzen ezertara heltzen. Parisko enpresa publiko ospetsuan garbitzaile lana aurkitu nuen urteko istorioa zen alabaina. Boble bilatzaileari esker, orduko *Egin* egunkariaren orrialdera hupatu nintzen: Angeluko hondartza hegiko etxe horretan ETAren arma gordagia bazen, sotoetan hain zuzen, ate hidraulikoz irekitzen eta zerratzen zena. Argazki batean ageri ziren polizia antiterroristak harrapatu gerra tresnak, paper faltsuak, frankoak eta pezetak trumilka. Paristik etorri jujeak erran zuen, atzeman zen zulorik emankorrena zela. Mouraren jabea eraman zuten burdinez loturik; bai eta olde berean erakunde armatuko bosgarren, laugarren eta bigarren postuan zeuden nagusiak kostaldean atxilotu ere. Haiek aterpetzen zituzten herritarrak barne.

Ondoko artikuluak arakatu nituen. Daniel Elgebeltz ezagutu nuen argazkietan. Anitzez gazteagoa, bistan dena. Bizarrarekin. Herria salbu ikusi arte...

Arestiren poemaren arabera egiten baitzuten abertzale fidagarrienek. Irri egin nuen: gaurkoan islamista fundamentalistak zebiltzan bizarrarekin karriketan, agian helburu berdinarekin.

Robber ostatuan bildu ginenean ez zidan Elgebeltz kokinak deus salatu. Bost larrazken pasatu zituen kartzelan. Baina ez zuen Jana arrebaren desagertzearekin lotura izpirik. Edo bai? Beharbada soto zizkolatsu hartan zetxikan preso. Egitura hidraulikoak betirako balio zuen. Zer gertatu zitzaion Janari? Nor zen hain sanoa, plantakoa eta gisakoa ematen zuen Elgebeltz jauna? Ongi olioztatuzko zilar distiratsuzko besoen zurrungek sehaska kanta eskaini zidaten eta, bazkaldu gabe, loak hartu ninduen ordenagailuaren teklatu gainean.

Hirurak aldera joaldi xeheak igarri nituen apartamentuko atean. Betondoak torratu, kanpora begiratu –euria ari zen tai gabe– eta Mekara joateko beztitua zen Zokori zabaldu nion borta.

– Trabatzen zaitut?

– Oraino ez.

– Igandeak zailak ditugu, ez? Aho sabaia idor esnatu naiz. Alta ez dut zuek gazura bailitzan milikalapatu duzuen ardo zuri hartarik edan.

– Rieslingetik?

– Erlijioak debekatzen didalako. Bestela...

– Gogoratzen naiz burka ezarri aitzineko uneetan ez zinela arrailtzeko azkenetarik.

– Nola aldatzen diren gauzak kamaraaada!

– Uste duzu erraza dela guretzat burutik oinetara trapu beltzez setiatua den batekin ateratzea? Wittig tabernan bakarra zara. Ez gaude bonbaketa amerikarrek zitzifrikatu Kabulen arauz!

– Ez dugu aske bizitzeko deretxorik? Islama fedetzat daukaten lesbianez zer?

Isiltasuna hedatu zen gure artean. Zuloa neukan zerebroaren tronaduran. Kafearen berotzera presatu nintzen. Trinkili-trankalaz. Amama zenaren mantalet eta kapeleta zirudien oihal iluneko jantzian igeriz, Zokok telebistaren managailua kitzikatzen zuen. Euskaldunontzat beltza doluaren kolorea zen. Adin kanoniko beraztuarena. Zoko gurutzatzen nuen aldi oroz Otsabideko atso saindua figuratu nezakeen: meza bidean gora zihoan matorekin, arroiletarik jaukitzen zitzaizkion nahar abar bihurrikariak trenkatzeko.

– Badakizu Bokaleko Kausa elkartetxean badela *lesbian speed dating* saio bat gaur? Etorriko zara?

– Lanean naiz bostak eta erdietarik hamarrak arte.

– Preziosekin noa.

– Hauxe parea! Agian lortuko duzue. Zazpi minutu elkar ezagutzeko ez da asko. Segur naiz epe labur horretan espantu zenbait sakatuko dituzula...

– Prezios biziki ona da. Gezur galantak biribilkatzen ditu. Hargatik arrakasta gutxi du. Neskek ez dituzte lodiak begiko, bereziki larruz beltzak direnean.

– Prezios izugarri ederra da. Ez al dio nehork erran?

– Zuk...

– Baina ez du nirekin oheratu nahi.

– Badakizu zergatik? Ezin egona duzulako, ezin egona zarelako. Borobilduen lasaitasuna maite du oroz gainetik Preziosek. Zirkuluaren nasaia eta haragizko labirintoen itzal-argi intimoa. Zain-birla sutsua baino ez zara. Inork ez zaitzake maite.

Hartu ezan hori haginetan... ezkerreko hatzez matela torratu nuen uppercut gaitza bildu bainuen. Funtsean nire kontura egiak entzutea ez zitzaidan laket. Kexatu gabe onartzen nituen ohar mikatzez mozorrotu gaiztakeriak, besterik egokitzen ez zitzaidala pentsatzera iritsia nintzelako hondarrean. Banuen *bling-bling* aire bat, aitor dut, beso muturrean Rolex karioaren ordez Amnesty Internationaleko kideek behin opa-

ritu ordularia neraman arren. Zoko altxatu zen sofatik falbalak oro hegaldaz:

– Ez zatoz gurekin?

– Karim eta Dede nire aiduru daude.

– Eta... hortxe armairu izkinan dagoen bandana zuri-urdin hori... ez ote dut barda Nolwen lagun berriaren lepoan begimendu?

– Baliteke.

Xederan harrapatua nintzen, kurkuiz herabearen maneran. Ez nuen Zoko engainatuko. Abilegia zen. Kikizaika jalgi zen apartamentutik. Berrogeita hamar urteak gainean genituen eta herriko eskoletako aterpeetan jostatzen ziren neskatilen izpirituak geneuzkan. Bizitza gibelekoz aitzin balihoakigu bezala. Gizonek mende erdiz ustiatu andreak abandonatzen zituzten anitzez gazteagoekin itzul-ipurdika zinpurtzeko. Emazteek beraiek sinesten zuten adin horretan birziklatzerik merezi ez zuten zabor bilakatzen zirela: larrua gorriduraz zimurtua, bularren erorketa latza, sabelen hantze iragarria, aluen ezinezko lehorreria... bakartasun tristez azpatu egunerokoa zeramaten, bakartasunaren errudunak zirela ustez, eta hitzordua finkatzen zuten psikologoarekin, depresio hasiera

baten sendatzeko erremedioak erdiesteko. Bukla buklatua zen.

Palto eta galtza hori-berde fluoreszenteak jantzi nituen. Estralurtarra nintzen. Kuxkandel larrua baizik ez zitzaidan falta. Maite nuen garbitasunaren aingeru begirale bat nintzela asmatzea. Erratza eta arkatza, biak ziren nire bizirauteko arnes baliotsuenak. Inguruaren xahutasun apurra zor zitzaien jendeei, pentsamendua lokaztua zeukatelako hainbeste eskandalu, gezur, mutukeria behartu, manipulazio eta samin irensten zutelarik pantaila bakunetik isuri ele-jauzi beilegien bitartez. Lanaren zein harremanen alorrak zikintzen zitzaizkien arraiki. Zikintzen eta merkatalizatzen. Denak zuen prezio bat. Prezioaren arabera epaitzen zen burkidea. Bazterren garbitasunak, adiskidantzak, amodioak edo gurbil jarduteko tentazioek preziorik ez zeukaten. Estima gaitzak ziren alta.

Giltza sarrailan sakatzear nengoela jo zuen telefonoak. Nolwen zen. Elaire. Boza amiñi bat erlats:

– Interesatuko zaizun zerbait aurkitu dut komisaldegiko artxiboetan.

– Bahaia? Abian naiz. Ez dezagun urrutizkinez deus aipa. Big Brotherren belarriak aza-hostoak dira.

– Ongi plazatua naiz jakiteko zer agitzen den lurpeko linea horietan. Hoteletik pasatuko naiz eta banoa.

– Egizu etxean etxeko. Gauaren erdian itzuliko naiz. Afaldu zaitez, telebista piztu edo DBD bat paratu ezazu.

– Lo eskasez nago. Kanapearen gainean hedatuko naiz. Mintzatuko gara.

– Ez duzu zerbait ahanzten?

Bi-bi-bi-bi-bi... amildegi hotsa.

Eskaileretan behera ernatu nintzen. Karim eta Dede peskizan neuzkan depotean. Igandeko lanaz ez ziren sobera kexu. Aste hasiera libre edukiko genuen hirurok. Elgebeltzek eskatu ikerketa aurreratzen ahalko nuen, karrikako zaharren sarkasmoaz jasan arren:

– Beti bakantzetan! Auher eder higatzen zirezte ba zuek hiriko funtzionario horiek... guk ordaindurik.

– Gauez egiten dut lan...

– Au boulot! Et viste heit...

Jendartearen erdia baino haboro langabetuz eta erretretatuz osatzen zen. Arrotz zitzaien lanaren mundua. Lanak, haien kostuz, alfer andanatzat zeuzkaten proletario urguilutsuei esklabotasunaren gaztigua eskaintzekoa zukeen. Bulego uhargietako suizidatuen

berriak irriz hartzen zituzten: ikas bezate funtsean zer den lana redios! Halatan ordurik, egun librerik eta ahalaz soldatarik gabe aritzea hobesten zuten. Norbera ez besteentzat. Noski. Pantaila distiratsuetan jaun eta jabe bermatzen ziren kronikari politikarien oharrak barneratuak zituzten, eta oharretan noski, askatzailea suertatzeko partez, bortxatzailea zen lana, egoerarekiko ukimenik ez zeukan populuarentzat lehendakari neoliberal fanfarroiak *lan gehiago irabazi gehiago* leloaren basta-hariz josi fikzioa baizik ez baitzen.

Baiona Handiko karrika izkinetako zaborrak bildu genituen. Azkenik hustu genuen Katedralaren maldako zakartegia, poltsak mirazkatzen ari baitziren Thierry eta Madalena eskaleak. Hortz ustelduekiko irriaz agurtu gintuzten. Pobreziaren urrina zerbait zen! Karimek zioen moduan, zakarrarena baino garratzagoa zen onartzeko ontasunen pilaketa garapenaren ikurtzat zeukan gizartean. Dedek gidatzen zuen kamioi burrunbaria gelditu eta gabeziaren ilunabarretik jazarri bi siluetekin solastatzeko astia azarkatu genuen:

– Uzta polita dugu. Aurtikitzen denarekin badugu aste osoko janaria.

– Bereiztea da zailena.... –erantsi zuen Madalenak–. Zerbait asmatu behar liteke iraungitze epea gainditua eta oraindik kontsumigarri diren elikadurentzat. Kontainer gerizatu bat adibidez...

– Aipatuko diogu auzapezari! –oihukatu eta, kopeta goratuz, Karimek partitzeko baimena eman zion Dederi.

Inguratzetik geratzen ez zen kamioiaren sabeleko danborrak bizitza kondotsak zitzikatzen zituen, usain izugarria barreiatuz. Karim eta biok burdinazko haga bati uztartzen gintzaizkion hurrengo zakartegi seinalaturaino. Bizkitartean hiritarrek, gauaren anonimotasunaz balia, nolanahi aurtiki eta zakur deslaiek urratu poltsak lurretik atzamarrez idokitzen genituen, belaunak doi-doia plegatuz, kamioiaren plataformatik jaitsi gabe. Trebeak ginen arras. Eta zoriontsu, bistan dena.

Zikinak zikintzen ninduen ni ere.

Elgebeltzen afera burutik joan zitzaidan.

Etxeratzean bainutegira jo nuen. Amodioaren muskila ito zezakeen kiratsak. Egongelatik Lili Rushen ahotsa entzun eta Nolwen telebistaren maldan zegoela imajinatzen nuen. Sekula argitu ez zen Annie Mae Aquashen hilketa zen *Cold Case* haren ardatza. Denise Pictouk deituko banindu, bere amari zer gertatu zi-

tzaion ikertzera gogotik kokatuko nintzateke Ipar Dakotarako lehen hegazkinean. Bego erranik! nioen nirekiko gorputzeko zokomokoak kementsuki arakatuz. Sortu berriaren antzera prest nahi nuen izan.

Afaria zerbitzatua zen sukaldean: arrautza, irrisa eta entsalada. Isiltasun hezea zen. Nolwen umeki zetzan. Zuzenen loaz hordi. Tua irentsi nuen: ez bide zen gaurko.

–7–

Hiru egun libre banituen. Jaikitzean kiroleko zapatak ezarri eta laster izerditsu gozoa egin nuen ibaiak gurutzatzen ziren hirian. Nehor ez zegoen zubietan. Aturri gainean goiztirietako lainoak altxatzen ziren eta lau ubarroi begimendu nituen barnealdeko harrobietarik itsasorantz hegaldaz.

Pannecau karrikan gelditu nintzen ogia erosteko. Oraindik ostiraleko derbiaz mintzo ziren bezeroak:

– Putzukak ziren zelaian. Ekimenerako joera izpirik gabe. Ez dakit nola sailkatuko garen sasoia bukatzean. Balio du hainbeste diru sartzeak?

– Ateka larria baizik ez da. Akituak dira. Duten presioarekin... Txapelketa ez da erraza gero! Datorren asteburuan Tolosaren aurka beste istorio bat date.

– Zer nahi zenuen? –okina interesatu zitzaidan azkenean.

Izerdia neukan kopetan eta hozten ari nintzen. Normalean euskara murdukatzean negizkien hutsetan zuzentzen ninduen irri larderiatsuaz. Hor ez zuen denborarik eztabaida garatzen zihoan neurrian. Ernatzekoa nintzen Nolwen etxean zegoelako segur aski go-

seak hila eta, gainera, Elgebeltzen arrebaren desagertzeaz premiazko xehetasunak eskaintzear. Berantetsia nintzela aitor dut. Konkorrak, zaharrak, *Sud Ouest* besapean eta makila ferratuarekin klunkari ibiltzen zirenak okin plaxentaren kaxaren maldan abandonatu nituen.

Pixa urrinez perdukatua zen karrikan ogiaren kasko beltzarana ahoratu nuen, goizalde bakoitzeko atseginik lizunena bailitzan *people find some reasons to believe* kanta xuxurlatzen.

Ezagutzen ez nuen musika bat ipinirik, sukaldean zegoen Nolwen, kafe kikara ahurrean. Elgebeltzen paperak mirazkatzen zituen astiro. Samurki besarkatu ginen, musua trukatuz.

– Barkatu. Unatua nintzen barda.

– Denbora gure alde dabil. Lasai.

– Gosaria adelatu dizut.

– Ogi berria dakart.

– Super. Hotelean baino hobe nago hemen, Islandiako printzesa umil haren pare.

– Zein da aditzen dudan abeslari hori?

Xerrak gurineztatu zituen. Begiak begietan nagitu ginen. Isiltasun une sakonetik lekora zintzurrots eztia hauteman nion:

– Louise Ebrel da. *Kan ha diskan* kantatzeko moldearen berritzailea. Gwadeg izeneko hiru ahizpetako baten alaba. Hirurogeita zazpi urte ditu eta oraino DJ Shamanen teknologia lagun edo Les Ramoneurs de Menhirs hard rock taldeekin jotzen loriatzen da. Kanta eta arrakanta arrakastatsua dugu Bretainian. Agian konturatuko zinen Glenmorek itzul daitezela urrikizko haizeak abestia auhentzen zuen *finis terrae* muturretik nentorrela?

– Izenagatik. Baina izenak jagoitik ez du izan berezirik. Edonor edonongoa da. Eta erroak aldarrikatzea ez da baitezpada ongi ikusia, non ez diren ustekabean Louise Ebrel eta Maialen Lujanbio uztartzen.

– Esperientzia harrigarria liteke... Bidenabar zerbait ikasi duzu Moura villa panpoxa kukuxkatzean? Kaferik nahi?

– Bai eta ez.

Ihardespenaren uherraz jabetzen nintzen. Marieta elerran nuen. Pitt bull zakurra itzuri nuen. Palmondoa izartu. Etxea setiatzen zuen hesi gorakoia. Nolwen zutitu zen, hatzak sorbaldan balakari nabaritu nituen, potta lepondoan pausatu eta ziuntaz itzuli zen egongelatik karnet txiki batekin.

– Laurogeiko hamarkadako serial killerrarekiko argitasunak dauzkat. BAB alde honetan hiru neska gazte hilik gertatu ziren, bortxatuak izanik. Bat gainera Baionako besten garaian. Kondenatu zuten Dupont de la Cunaren itzalik handiena, naski, serial killerraren xendretan kausitzea izan zen. 1985ean Nicole Sukainaren hilotz hiroa Barran atzeman zuten ibiltariek. Aurkitu zioten DNA delakoa, geroago jakin zenez, ez zen aparentziarik ere Dupont de la Cunarena, baizik eta Amsterdamgo auzitegiak bizitza osorako kartzelara gaztigatu Adam VanVries herio-beilari likitsarena. Berria zabaldu zen, justu Dupont jaunak zigorra arras bete eta Fresnesko presondegitik askatu zutenean. Badakizu, alabaina, presoak ez direla baitezpada gozoak pedofiloekin eta bortxatzaileekin. Gontzak erabat puskatu zitzaizkion. Senda ezinki. Badu hamar bat urte Hego Landetako Txirlinga eroetxean zerratuta dagoela.

–Duponten argazkia eman zidan Elgebeltzek. Txostenean datza.

– Orain... –inkestagile profesionalaren arrazoitzeko dohaina zer zen bestenaz– sakontzekoa dugu, ea Janak nolabait Adam VanVriesen gurutzatzeko ahalmen izpia ukan zuen edo ez.

– Nola bada?

– Elina Saldo eta Natacha Kievoskiren kasuetan holandesarena ez zen DNA bereizi zuten poliziek. Beste harrapari bat bazegoen sasietan gorderik. Ez zen Dupont gizagaixoa. Zorionez, hala baderraket, kostaldeko lauzpabost gizonen bizkar geratu zen susmoa. Lekuko gisa azaldu ziren. Haietarik hiru lurpean daude engoitik... eta bat Alemaniako Wiesbaden hirian bizi da, familiatua. Nehork ez du hartaz gaizkirik erran geroztik.

– Bisitatxo bat egiten ahal genioke.

– Zer diozu...

Louise Ebrelen ahots kraskatu samurra jabaldu zen egongelako bozgorailuetan. Nolwenen begitartea soaz nuen: ninika berdeek Enez Eussa bustitzen zuen Iroise uraldearen lehorrak seinalatzen zizkidaten, eta Louise Ebrel ukigarriaren ordez, zin dagit orduan, hamalau minutuko itsasturien meteo-agiriaren harilkatzea jasateko gai nintzatekeela: marea apalaren tenoreak, haizearen norabidea eta indarra, olatuen goratasuna eta Bizkaiko Golkoaren aipamenaren nagitasun poetikoa. Galerna nigan iratzartzen zihoala, oheraino erdutu nintzen Nolwenen hatzetarik. Amodioaren tsunamiak gure baitako harresiak gatzez zuritu zituen,

harpe sekretuetako belar gorriak malgutu eta zazpigarren uhinak intziriz etenik bota gintuen haragiaren asetasunaren hondartzara. Manera batez, Itaka deitzen genion zubirik gabeko sorterrira. Soka uhargiz elkarri estekatu Ulises emeak ginen. Pazientzia eskaseko Penelope zoharrak aldi berean.

Nolwenek arratsaldeko bietan hasten zuen zerbitzua. Alde egin baino lehen bideko orrialdea egitekoz beltzatu genuen. Lehenik behar nuen Moura villara joan eta atea bulkatuz sartzen saiatu, Daniel Elgebeltz poliziategira hurbilarazteko, kereila egitera. Bigarrenik Wiesbadenera joateko treneko billeteak sarean erosiko zituen andraideak –berrogeita hamar bedatsetan ez genuen arauz ohaide kuttuna neska-laguna izendatuko?, ala bai?–. Betekizunen zamak lehertuko gintuela iruditzen zitzaigun bederazka gure zereginetara zinpurtu ginenean: Nolwen bere bulegora eta ni, gaizkile arrunta, borta eta kofre zulatzera.

Kopetako argia ez nuen ahantzi, are gutxiago kisketen askatzeko aitak utziriko burdin barra baliosa. Ez nion konfiantzarik egiten Elgebeltz jaunari. Sinesten nuen Jana gizon boteretsuaren sotoan kuzkurturik eta erdi-gose harrapatuko nuela, Nolwenek ideia hori burutik kendu nezan erregutzen zidan arren. Telefilm

amerikar sobera irentsia nintzen. Scully, Lili Rush eta Samantha Spade ziren nire heroinak.

Udaletxera lehiatu nintzen. Autobus linearen 11. zenbakia igurikatu nuen jende presatuen artean. Halimak mugikorra trebeki kilikatzen zuen, Jonas zigarreta bukatzen ari zen begia Errobi ibai azalean galdurik, Martinak paper purtzilikatuan kontuak zegizkien, Margitta bere buruarekin mintzo zen goraki:

– Zer uste du Frantxoa astapito horrek? Hola eta hala kanporatuko nauela? Etxearen jabea ni naizela oroitu dadila. Urde zikina. Sosik gabe bazterretsiko nauela? Bazauzu zuri? Labana alimalea erosiko dut eta bihotzaren hondoraino sakatuko diot. Nahi dudan gizonarekin ibiltzeko eskubidea daukat, ez? Gastonekin ez naiz txarto. Ezagutzen duzue Gaston? Ez tapatu belarriak: Gaston Poitevinekin dagit larrutan, gogotik, gustura, ausarki... Harritzen zara... pertxenta inutila!

Hatz erakusle minez makurtua kendu zidan papo ertzetik. Lotsatu nintzen. Tu birla potoloa botatu zuen Jonasen oinetara autobusera iragaitean. Jonas hats gaiztoan zegoen, Halimak begi-keinuz zainetan jartzeak abantaila handirik ez zekarrela ulertarazi zionean. Gure mundua zen. Batek bestea ez zezakeen

soporta eta plaza publikoan barreiatzen ziren zoko pribatuan hazi gorrotoaren landare zizkolatsuak, herrietan egiten ziren behialako berdura ozpintsuen antzera: g minuskula daramaten guztiek haztatu bitzate nire malurrak eta M maiuskularekiko malurrak lehertu bitza guztien bizitza-tirriak betirako guztiek paira dezaten nik gaur sufritzen dudana. Ez bedi barkamendurik izan nehorentzat.

Margitta karrankalaria Itsuaren Zubian jaitsi zen eta nahikoa lasai egin genuen Xibertarainoko bidaldia.

– Mertzi biziki eta laster arte...

Gurasoekin ikasi moldeez gogoratzen nintzen, bost axola zitzaion txofer mozkoteari *mertzi biziki* ahoskatzean. Hobiaren harainditik amaren eztul idorraren zintzur karraka berrautematen nuela ziruditan. Ustel usaina. Harrak eta zizareak.

– Zozokeria ederra eginen dun etxe horretan baimenik gabe menturatuz. Ez haugu horrela altxatu.

– Baina ama? Egia behar dixit.

– Ikusiko dun noizbait egia ez dela gezurraren alderantzizko elea. Edo ez bakarrik hori.

– Ama, xure filosofia marmarkaria etxit jarraitzen ahal.

– Nahi dunana eginen dunala bazakinat...

Harrak eta zizareak. Hezur klaskak. Eztul idorraren zintzur karraka. Aspaldian mineralizatua izan arren, ama noiztenka zinez agertzen zitzaidan aholkuak emateko eta kontuz ibiltzea otoizteko. Bitxiki, gure ama-alaba harremana bizitza denbora luzean baino garatuagoa zen heriotzaren eternitatean. Hobiaren sakonetik agian askeago maitatu nintzakeen auzoen eta sendien erran-merranetarik libratuz. Hausnar hitsaren maelstromean igeri nenbilen Moura atzealdeko horma gainditzera nindoala. Pitt bulla jazarroi hurbildu zitzaidan eta lo-erremedioz busti txitxi mokorra aurtiki nion. Taloa bailitzan erori zen lurrera. Sartzen ahal nintzen. (Ez dizut salatu, irakurle, Elgebeltz senaremazteak oski denda aberatsean zeudelakoaz segurtatu nintzela autobusera nindoalarik. Ez nuke buru bero-arin-xoxoetarik naizela pentsa dezazun nahi).

Baionaratzean berean utzia zuten egitura hidraulikoa. Arraposki sugetu nintzen. Kaskoko argia piztu nuen Arditurriko erromatar meategietako zainetan barna lerratzeko bezala. Bihotza pilpiraz nabaritu nezakeen, mende laurdena epaileek pausatu zigiluak ez zirela kantitu ohartzean. Eskuargiaz urratzen nuen bidea. Errota handia bihurdikatuz ireki zitekeen sarre-

raren parean nintzen. Gidoina itzulikatu eta hutshutsa zen betoinezko ezkaratz hotzean nengoen:

– Jana?

Erantzunik ez. Errautsarena baizik.

– Jana?

Sotoko borta nagusian *Euskal Herria ez da salgai* lema idatzi nuen barratxoaren mihiaz. Nitaz harro nintzen. Segurua zen Elgebeltz poliziategira ernatuko zela. Kexu gorrian.

–8–

Ostiko batez inurritegia harrotu nuela banekien eta, dominoen efektuaren arabera, orain gauzak argiago suertatuko ziren. Segurtasunik ez neukan, bistan dena. Erabaki nuen oinez Baionaratzea Aturriren hegiak aztalkatuz. Digaren gainetik orekaren baldintza frogatu nuen, Brise-Lamesko ontzitxoen burdinkiak karranka eta urrunago Lazaretako oihanean gerizatzean kukua kantari hauteman nituen: sos pilistarik ez nuen sakelan, ez nintzen alabaina aberasteko bidean. Parean ADAko altzairutegia su eta ke zebilen edozein egunez, igandeetan halaber. Baionako portuko azpiegitura guztia miretsi nezakeen. Euripean eta laino zurbilak troxatzen zuela, herdoilaren erresuma biribiltzen zuen. Malenkonia mikatzak akuilatu ninduen ibai ertzeko txirrindularien xendratik desertu antzera bihikatzen zihoan hiri erdiraino.

Indar sobera galdu nuen Moura villa zirrimarratzen. Akitua nintzen. Biluzi, garbitu eta oheratzeaz beste aukerarik ez nuen. Salbu, agian, telebista piztu eta *Dr. House* sailaren ale baten begimentzea. H1N1 sukarraren pandemiaren garaian osasunean atxiki

ninduen eskualdeko mediku bakarra izan zela erraten nien arraileriaz Prezios eta Zokori, haiek ministro panpalinak bidali paperekin txertatzera ernatu zirela. Ezpainak burla kokinez plegatuz, naski, loak eraman ninduen urrutizkinaren dei ozenak iratzarrarazi arte:

– Etorri da.

– Nor? Nor zara?

– Elgebeltz. Komisaldegira. Apeuak funtzionatu du.

– Nolwen... zure burua aurkezten ahal zenuke telefonatzen didazunean! Lehenbizian ez dut ezer ulertu. Pozten naiz. Ez dut deus atzeman han errautsaz aparte. Egiazko euskaldunek pintatzen dituzten lemetarik bat zizelkatu dut gizonaren sotoko atarian.

– Badakit. Eta jakizu samur dela... Zortzietan bukatzen dut. Zurera joango naiz?

Algara arinaren partekatzeak ederki erakutsi zidan berea erantzun beharrik ez zuen galdera zela. Ez nintzen berriz morfeoren besoetan kukubilkatuko. Sukaldeko mahaian, ogi purrusken eta goizeko gosariaren hondarretan ihalozka zeuden txostenetara zuzendu nintzen.

Elgebeltzek zioenez, Janaren adiskideetan oraindik zoharki mintzatu ez zen lekuko bat bazen. Ikerketa ofizialak ahantzi zuena. Balichoneko etxebizitza go-

rakoietan plantatua zen Janaren behialako eskolako laguna. Julieta Iks anderearen zenbakia utzia zidan Daniel Elgebeltzek. Afera garrantzitsu baten bipiltzeko berehala pasatuko nintzela ahoskatu bezain laster berriz karrikan nenbilen.

Katedralaren aldamenetik urratu nuen Place des Basques-etik Harispe marexalaren etorbideraino. Dirua usnatzen zitzaion Baionako aldean nengoen: baratze ingeles zainduak, kodigoekiko bortak, erakunde entzutetsuen egoitzak eta izkinan, nahasketa sozialaren ikurrak bailiran, Balichoneko dorre herrikoiak. Julietak gaztetxearen saihetseko jargi orlegian igurikatzen ninduen. Begietsi nuen, pipa eta pipa, zainetan.

Julietaren oinetan alimaleko zakur astun eta lasaia tapalakatua zen. Emazteak sokatik zetxikan eta noiztenka balakatzen zuen eztiki.

– Aspaldiko istorioak dira. Janarekin nintzen Uztaritzeko seroren ikastetxean. Ostegun arratsaldeetan, debekatuagatik, Baionara etortzen ginen garagardoak edatera, erretzera eta mutikoekin ausatzera. Jada ageri ez den kasernako soldadu gazteak ziren gehienak edo gazteleraz ari zitzaizkigun Hegoaldetik haizatu errefuxiatuak. Hautua bagenuen. Gertakari horiek adiskidantza bat zigilatzen dute, ez?

– Pentsatzen dut baietz. Ukan duzu zuk Janaren berririk ahitu zenez geroztik?

– Ez eta pena dut. Eskuko bost erien antzera elkarri atxikiak ginela sinesten nuen. Jana, Daniel, Marti eta Iaurok genbiltzan bandan. Desagertu zen Baionako Besta haietan berdin. Daniel eta Marti herriko etxerantz joan bitartean Jana eta biok Santizpiritura arteztu ginen. Reduit plazan bereizi ginela erran dizu Danielek?

– Ez dirudi sekretua.

– Zubia trabeskatu genuen. Hein bat edanak ginen. Erdigunean begiz ezagutzen nuen mutil batekin atzean gelditu zitzaidan Jana, eleka. Inguratu eta ohartu nintzen Jana gizon harekin urtu zela gauaren minean.

– Ez zinen arranguratu?

– Zergatik? Ez ginen adin txikikoak. Hogei urteak ederki digerituak genituen. Gainera potiko plaxent hura ez zitzaidan arrotz. Zergatik axolatuko nintzen? Ez ginen orduan beldurrez txirikordatuak. Beharko genukeelarik alta...

– Oroitzen zara norekin joan zen?

– Amesgaiztoek itzulipurdika jartzen nautelarik begitarte bat dakusat. Zehatz. Esnatzean, hargatik, deus

ez. Saiatzen naiz. Jana desagertua da eta ni desesperatua.

Julieta Iksek samurtasunez bezain bere baitako mamuak jabaltzeko, hortz higatuekiko zakur melengaren ahoan kokatu zituen hatzak. Zigarreta piztu eta bere baitatik segitzen zuen:

– Zenbait minutu lehenago trukatu genituen solasez ere ez naiz gogoratzen. Janaren ahotsa dantzut, baina debaldetan. Agian norekin zihoan erran zidan... izen bat eman. Aski nuke sosegatzeko.

– Hipnosiaren teknika zer den badakizu?

– Amaia, aukerarik baldin baduzu prest nago. Sekula ez diot nire buruari Janaz hain axola gutxi eduki izana barkatu, bereziki 1985eko Baionako Bestak bukatzean. Deprimituta nago, erremedioz hordi. Ordutik ez dut ezer onik obratu.

– Antolatuko dut. Bihar edo etzi.

– Ahalik lasterren. Jakin nahi dut. Ez dut aparentziarik ere onetsi bortxatzailearen tesia. Dupont de la Cuna auzitegian zelatatu nuenean, pista faltsua zela susmatu nuen. Aski garratz ordaindu du gizagaixoak egin ez duen krimen batentzat. Eta... mutikoaren izena... mihi puntan daukat.

Julietaren zenbakiak notatu nituen azal leun eta beltzeko karnet urrian. Zakurrari musurika ari zitzaion jada, sutsu, *mutiko horren izena mihi puntan daukat* errepikatuz, behin, bitan... Anartean RDVa finkatu nuen Ilse Traumberg psikologoarekin. Denbora batez, ez hain aspaldi, harremanaren mihisea bastatu genuen. Orokorrean ongi konpontzen ginen, baina luzera nire *cap bourrut* izaera patologikoaren patitzea zaila zitzaion.

– Errientsek ez ote zieten zure gurasoei eskolako medikuarengana jotzea aholkatu hiperaktibitate nazkagarri horren sendatzeko?

– Ez dun hoberik... –irriz lehertu nintzaion: bi zaflako ozenez eta arto jorratzera bulkatuz kalmatzen gintuzten.

Salbai hutsak ginen mende haietan ez zen psikologo premiarik. Hamaika koloretako pilulen eta elektrodo hezeen ildotik burumuin pilpiratsuak lobotomizatzera plegatuko zitzaizkigun; betikoa erranen ziguten gero: zuen onerako ari gara. Gure onerako, baserritar umeak apalesten zituzten, herriko hizkuntza ezabatzen zuten ezpain isiotuetarik, auherrak ginela zioten, gure onerako, neska sortu izanaz ahalketzen

gintuzten, gure onerako, eta azkenik, gure onerako, kasko zokoak sinapsirik gabe gelditzekoak ziren.

– Amaia!!!

– Arren zoaza, bai, bena berehala...

– Lagunak gara, ezta?

Orbe karrikako laugarren estaiko apartamentuan aterpeturiko Ilse Traumbergek atea gogotik ireki zidan. Behialako ments-bulta ahantzia genuen biek.

– Zure beharra daukat, Ilse.

– Amaia... badakizu zuretzat nagoela osoki. Zure barne-piztiekin baketzeko tenorea datorkizu ala?

– Hipnosi saioa egiten ahal duzu bihar azkorrian?

– Bai, bistan dena. Kabinetea zabalduko dudanean. Zurekin?

– Zorigaitzez, ez. Jinen naiz... lasai... nire aldian. Izen bat mihi puntan daukan andere batekin. Bizitza damuz malgortu zaio. Hormatu nahi baduzu.

– Erraiozu zortzietan etortzeko. Faltarik gabe.

Alison Krauss *country* abeslariaren ahotsak Ilseren egongela firingolatzen zuen. Larruzko jargia erosoan kuzkurtu nintzen. Motozerraz ere nekez moztuko zen ekialde erditsuko bixkotxa ekarri zuen maitale ohiak, te beltzez arradatu kikara birekin. Pastelari nakako ederrak ematen genizkiola mintzo ginen honetaz eta

hartaz, eta astelehen papertsuan Ilsek entzuten zuen irratiko soinu bandatik Dolly Parton, April Martin, Gillian Welch, Nancy Griffith, Iris DeMent, Lucinda Williams, Patti Casey, The Wailin' Jennys eta Emmylou Harris pasatzen ziren, aingeru begirale. Gitarra apalaxiarren intimitateak gustatzen zitzaizkidan Ilseri bezainbat, Minessotta, Vermont edo Ohioko belardietan kulunkatu bozak eta Arizonako navajoen basamortuetako intziriak.

Elkarri begiratu genion. Daniel Elgebeltzen istorioa kontatu nion. Dena ez azalduagatik, Nolwen Kergelenen ezagutza egin nuela eta polizia kapitaina zela aitortu nionean, haize-eihera zaharraren pare higitu zituen besoak:

– Segur naiz Nolwenekin egunerokoak dakarren anbiguitate zamaz jabetuko zarela. On dagikezu ikastea askotan ez dela egoera beltz edo zuri. Maitasuna bezalakorik ez da gure zoko-gune minberenetan labana landatu eta aurpegia odolez blai Edipo gizagaixoaren antzera oihuz galdezka plazara bultzatzeko. Larrua jotzen duzun oroz zerbait mugitzen da munduaren sabelean, ukimena, urrikalmena eta ulermena biderkatuz. Ordura arte irudika ezina zitzaizuna egiten duzu eta ohartzen zara hori dela jendetasunaren zuta-

rria. Aitzina goaz gure baitako etsaia, arrotza, arerioa eta ezberdina onartuz. Mugarik ez altxatuz. Saalburgeko *limes* ukigarria argiki ez da bizi garenontzat eraikia...

– Bukatu da?

– Zer?

– Asteleheneko moral irakasgaiaren orena...

– Bai, bukatu da. Eta bozkariatzen naiz zuregatik.

Errespetatzen ziren lesbiana leinuen ohituren arabera musukatu ginen, ezpainak ezpainei. Pozten nintzen: Ilse Traumbergekiko biharamuneko tratua izenpetua nuen. Julietari deitu nion etxeratzean. Pozik eta harro nintzen nitaz. Aipatzeak balio zuen, ez baitzitzaidan anitzetan horrelakorik agitzen. Ordenagailuaren tapakia altxatu nuen, espazio barra zapaldu eta nire emailtegira lerratu nintzen mezuak irakurtzeko. Elgebeltzen bat bazetorren: bego... Kanape higatuan etzan nintzen. Egun bakoitzari berea zegokiola marmaratu eta hegaldaz eraman ninduen lo arinak. Kisketan giltza urduriaren hotsa zehaztu nuen. Atx!

Jargiaren atzealdera jauzi negien. Izuak gatibatu ninduen. Ez nuen nehor igurikatzen. Bokaleko *lesbian speed dating* saioan zeuden Prezios eta Zoko. Borta

karrankalariaren bultzatzea lortu zuen itzal mehatxagarriak:

– Bada norbait?

– Nolwen!

– Zer ari zinen gorderik? Ez al zara eguerditan giltzen doblea eman zenidalakoaz akordatzen?

– Zahartzen ari naiz. Zatoz niregana.

– Ez nuen gutxiago espero.

–9–

Su birlak ziren astearte azkorriko zeruaren zazpi izkinak. Baionako Unibertsitateko murruen gainetik ekia ausartzen nekusan. Neanderthal sendikoa nintzen orduan: mirakulua zitzaidan dena irentsiko zuela zirudien gau mehatxagarriaren ondotik. Amodioa egin genuen eta Nolwen oraindik lo zegoen mihise meta zinpurtuen eskuineko aldean. Ni beti ezkerrean jartzen nintzelako. Kafea egin nuen. Irratia piztu. Bezperako *Berria* hostokatu horoskopoaren bila. Goizetako keinu arruntenak hots. Hasperen sakona hauteman nuen ganbaratik. Eta orro bat.

– Non zaude, bihotz?

Ez nintzen urrun. Bihotz deitzen ninduen. Urtzera nindoan beroketa klimatikoaren eraginez ipar poloko hormamendien antzera. Jada gerizarik ez zuen hartz zuria nintzen edo Siberiako otso emea.

– Etorri! Gosaldu gaitezen. Ilse aiduru daukagu eta Julieta bus geltokian.

– Banoa.

– Edo nahiago duzu kafesnea ohera eramatea frantses film burges erromantikoetan legez?

– Zergatik ez...

Gelaratzean KD irakurgailuaren maldan Nolwenen zerbitzuko pistola –segurtasunarekin– eta bere hiru koloreko marraz zeharkatu kartak begimendu nituen: nork erranen zuen bizitzak horrelako ezustea eskainiko zidala? Etsaia etsaia zen alabaina eta gure kulturan zurubirik ez zen zilegitzen. Gaizkileak ginen, mendeetan biribilkatu zen jokoan. Salbu, naski, erromatarren garaietan: izugarri ongi konpondu ginen bestalde odoltsu adina abilak ziren caesar zerrendekin. Bakean utzi gintuztela ez dut erratearen beharrik, urrea, zilarra, burdina eta kobre urdina hemendik eramatearen truke. Hondar berrehun urteetan hargatik egoera laztu zitzaigun auzo herrietako buruzagi distiratsuek, ondasunak gatibatzeaz gain, izpirituz eta mihiz berenganatu nahi gintuztelako. Eta hor zetzan Nolwen. Denborak bestelakotzen ote ziren? Gaizkile arima zeukana ofizioz polizia zen batez maitemintzen ahal zena?

– Zer duzu so beltz hori, Amaia?

Ez nion arraposturik eman. Nire hausnarrak nahiko barregarriak ziren mundu globalizatuan. Krisian zeuden burtsak eta bankuak, biharamun larriak zituen euroak, gobernariek salbatu hitza ahoskatzen zuten oroz hiritarren parte apalenak zuen pekatzen, eta nik,

Nolwenez maitemintzen ari nintzenean, amodioaren izenean printzipiozko galderak neuzkan kasko zokoan ziztari. Musurikatu ginen:

– Noizbait azalduko didazu zure gogoeten funtsa, ez?

– Imilitzak dira. Ez dute baliorik. Ez bizitzeko bederen. Zurekin bizitzeko diot.

– Kafearen kemen iluna gustatzen zait.

Zerbait murmuratzear geratu nintzen. Ez zen berazteko unea. Arrapaladaz apailatu eta karrikan geunden. Julieta xifritua harrapatu genuen aipaturiko autobustegian. Libertate plazatik Orberako bidea hapataka kunplitu genuen. Ilse, egia zen, aiduru zetzan. Caligari medikuaren kabinetea zirudien tokira gidatu gintuen. Freuden potreta, errautsez estali liburuak eta Courbeten *Munduaren jatorria* margo ukigarriaren kopia zehaztu nituen. Sobera ontsa ezagutzen nuen Ilserekin larrurako erabiltzen genuen lekua. Divan malguan eratzan zuen Julieta eta hatsa hartzeko ariketa xeheekin emaztea lasaitu. Begiak hertsi zituen eta handik bost minuturen buruan ageri zen errealitate ezberdin batean zegoela.

– 1985eko Baionako Besten azken gauean zaude. Jana Elgebeltzekin zabiltza Santizpiritu zubian.

– Bai. Badakust.

– Jabaldu zaitez... Erradazu ikusten duzuna. Norekin mintzo da Jana?

– Irudia ez da argia. Biak bakarrik ginen. Aitzinean nenbilen. Atzean Janak erraiak korapilatzeraino bota zituen... Gizon bat... Gizon bat hurbildu zitzaion... Badakit nor den... Ez naiz kezkatzen... Edan dugu harekin...

– Izena. Erraguzu izena.

Eztia zen Ilseren ahotsa:

– Santizpiritu zubiaren puntan nago. Ez dut gehiago Janaren hatzik sumatzen. Ez naiz kezkatzen. Gizon hura gureetarik zen. Badakit nor den. Arrangura gutxi dut. Ezin asea zen Jana. Bestari jarraitzea zuen xede. Jack Nicholson eta Peter Fonda New Orleansko hilerrian nola, hala ginen, hordi, baporos, zerebroko meandroetan agerinde bitxiak igerika. Ez naiz kezkatzen. Badakit nor den.

– Izena behar dugu. Errateak askatuko zaitu. Arren, Julieta.

Hipnosiatua negarrez lehertu zen. Malkoz malko agian hogeita bost urteotan opildu damua isurtzen zukeen. Nolwenen eskua nirean netxikan. Julietaren boza entzun genuen amiñi bat nahasia:

– Badakit nor den. Mihi puntan daukat.

– Izena ahoskatzen baldin baduzu, Julieta, berriz sortuko zara. Bizi nahi duzu. Ez orain arte nola zainak errausturik. Ez zarelako kezkatu. *Easy Rider* berezia jolasten zenutelako Baionako Bestetan. Ez zineten Dennis Hopperren trakakoak. Harrapariek zitzika zitzaketen neska gazteak baino. Ez zara Janaren desagertzearen errudun. Oroitzen zara gizon haren izenaz?

– Badut. Badut. Badut...

– Eta?

– Txatxo zen.

– Zerbait gehiago badakizu Txatxo horretaz?

Bat-batean lo-komatik jazarri zen Julieta. Izutua zirudien. Betezpal astunak altxatu zituen.

– Mintzatu naiz?

– Bai eta nola... Nor zen Txatxo? Zuen taldeko norbait?

– Txatxo erran dut? Baaai... Baina aspaldian ez dut lurralde hauetan gurutzatu.

– Nolakoa zen?

Julieta galdekatzen nerraikan. Hatsanka, ez zela deusez jabetzen errepikatzen zidan. Txatxo marmaratuz misterioa pisuagoa baizik ez zen. Orratza belar pulo baten sabelean xerkatzea zen. Edo arraina itsa-

soan. Edo itaxura Isturitzeko harpearen hegatsean. Ezinezkoa asmatzea.

– Barkatu.

– Txatxotik abiatuz zerbaitera helduko gara menturaz. Orain osagarri mentala berreskuratzeaz baino ez zaitezela arranguratu, Julieta. Guk aurkituko dugu Jana, bizirik edo hilik.

– Hilik?

– Hipotesia ez dugu baztertzen ahal.

– Bistan da. Nolaz ez nintzen orduan kezkatu. Eromena da pentsatzea nolaz ez nintzen orduan kezkatu!

Julieta harro bezain triste zen. Harri orlegia pausatu zuen Jana harrapatzeko bidean. Arinago sentitzen bide zen. Bizitzea trabatzen zion karga bat gutxiago bailuen soinean. Ilseren kabinete sekretuko potretak aztertu zituen eta banaka besarkatu gintuen estuki.

– Zepotik jalgi behar dut.

– Hara zuretzat hitzordua: datorren asteartean bederatzietan. Halaz zure egunak bihurtuko dira astearteak.

Ilsek ez zuen parerik jendeen arimaraino sigisagatzeko. Julieta irten eta begi keinuz zutundu ninduen. Nolwen erakusten zidan buruaz. Baiezkoa hegaldarazi nion kopetaz. Hitzez biluzi gure solasaldiaz ohartu zen

Nolwen. Paltoko sakelatik bere karta jalgi eta Ilserenarekin mutatu zuen.

– Zoragarria izan da, misterioa bete-betean geratzen zaigun arren. Premian, telefonatu diezazuket?

– Bai. Horretarako nago. Nire adiskideen adiskide minak nire adiskideak dira.

– Menderatzen ez dudan zerbait badago perpaus horren gibelean. Menturaz Amaia Ezpeldoi detektibe ruralak afera hau ere argituko dit bere burdinazko barroteekiko kofoinean zerratu beharrik gabe.

Karkazail uhargiz urratu ginen hirurak.

Kafe espresso zainartaren haia nabaritu genuen urdailaren hurrean. Teatroko ostatuan aizolbetu ginen uhar ezkela ari zuelako. Denbora zinez laster kanbiatzen zen apirilean. Lau urtaroak egun bakarrean garatzen ziren Euskal Herrian zirautenen zorionerako. Kanpotarrek, ordea, ez zituzten maite mudantza iragarriak. Kaliforniako bero eta ortzi urdin etengabeaz ametsetan zebilenak ez zezakeen Euskal Herriko arokakofonia hobetsi.

– Sordei da Bretainiakoa.

– Diotenez.

– Euria euriaren euritik euritzen doa.

– Zureak ikusi eta ninikak kolorez husteraino.

– Ukitzen nauzu, Amaia. Zedarri miliarraren oinetan...

– RDVa dugu gaur Wittig-enean gure andereekin.

Holtzaren hegiaren orekan geldotu nintzela ziruditan. Nolweni ez ote nion maitesarerik sekula aitortuko Carmenek seguritate distantzia mantentzea aholkatu zidalako behin? Amodioa autobide bat zen frankorentzat. Nolwenen saihetsean Irautik pentokaren bizkar zorrotza segituz jaisteko xendra hertsiegia zen niretzat. Igurikatzea erabaki nuen. Lanerako zen agudo.

– Nor da Txatxo? Nondik dabil? Nola irun harekiko haria? Zergatik ez zidan Elgebeltzek Txatxo aipatu?

– Eskakizun ugari dauzkazu, Amaia. Elgebeltzek zerbait badakiela segur naiz. Eta mende laurden honetan norbait estaltzen ariko balitz, jakin edo nahi gabe?

– Elgebeltz inarrosiko dut telefonoz etxetik.

– Ez duzu eskukorik ala? Berrogeita hamar urte pasatzean, mugikorrik ez eramatea edo, diotenez, Tiffanyko ordulari kariorik ez edukitzea bizitza huts egin duzulako seinalea da.

– Zu behintzat ez zaitut huts egin.

– Ooo... zoinen pollitta dden.

Elgebeltz atxiki nuen linean. Noski bazekiela Txatxo nor zen. Donostia aldeko errefuxiatua zen. Famatua erakunde armatuaren ideologoa zelako. Txatxok zituen adibidez gaur hainbat arrotz zaizkigun euskal nazio borroka edo klase borroka tematika bateratu ezinen alorreko eztabaidak kudeatzen. Marxismo ikasgaiak antolatzen zituen Baiona, Maule, Garazi edo Uztaritzeko militanteentzat. Bai eta *self defense* sailekoak ere Landetako oihaneko pinudietan. GALeko mertzenario odoltsuak etorri zirenean gorde zen. Erraten da Hego Ameriketako herrialde isildu batean dagoela izen eta aurpegi faltsu batekin.

– Garrantzia zuela susmatu izan banu, Txatxoz mintzatuko nintzaizun lehen bilkuran berean. Ilbarritzen datzan Marti Izoztak nik baino hobe ezagutu zuen. Janarekin ibiltzen zen. Nola atzeman duzu Txatxoren hatza?

– Julieta Iksek hitz egin digu. Izena mihi puntan zeukan eta hipnosiari esker erori zaio.

– Hogeita bost urteren buruan?

– Bai, ahanzten, deus ez baita ahanzten.

–10–

Nolwen Kergelen kapitaina lanera joan zen. Bakarrik aurkitu nintzen Libertate plazaren erdian. Iturriaren hegietako urtxoak haizatzen zituzten ume mukizuek, adineko gizon bat bakean uzteko zintzurrak eman ahala oihuz ari zitzaiela. Ilbarritzen tokitzen zen Marti Izoztarekin hitzordua nuen.

A2 autobus geltokira bristatzean Daniel Elgebeltzen hira kaskoan neukan, ozen:

– Bazauzu? Ezezagun inutil batek sotoko atean *Euskal Herria ez da salgai* lema zizelkatu dit. Laidoa zait. Bizitza osoan herriaren alde tematu naizelako. Madarikatua! Harrapatzen baldin badut, zin dagizut koskoiletarik hertsatuko dudala! Badakizu poliziategian izan naizela kereilaren pausatzeko... Hartu nindu en anderea, bidenabar, izugarri plaxenta zen.

Zer zegikeen Elgebeltz jaunak graffitien marrazkitzaileak koskoilik ez bazuen? Irri gordina hazi zitzaidan garraio publikora hupatzean. Iphone koloretsua kilikatzen zerraikan neskatxa urduriaren aldamenean jarri nintzen. Angelu zeharkatu genuen, Miarritze bihotzetik trabeskatu eta Muriskot aintziraren saihetsetik

Bidartera heldu ginen. Erretegian jaitsi nintzen. Nolwenen xehetasunen arabera –agian eskualdeko stasiarenak ziren– Marti Izoztak itsasertzeko biojanariarekiko ostatu alternatiboa zetxikan, apirilaren 1etik urriaren 31ra arte. Erretegirako xendran behera lerratu nintzen. Martirekin solastatzera baino lehen Ilbarritzeko holtz zoragarriak begiesteko desira handitu zen nigan.

Marea apala zen. Biluzik zeuden harkaitzak. Maite nuen Miladitik Uhabiarako ibilaldia oinez egitea neguan, bazterrak uretan eta hondartza desertu. Kresalak misterioz troxatzen zituen urruneko bistak. Jaizkibel zehaztu zitekeen, Larrun ezkerrean eta parean itsasoaren zabaltasun ikaragarria. Gustatzen zitzaizkidan Ilbarritzen uhinen atzeratzeak azaleratu harri urdinak, zuriak, laranjak, horiak, beltzak, mineraltasunak ortzadarraren koloreak eskaintzen bailituen nire begien bekaitzen gozamenerako. Erretegitik Uhabiarako pasaia deitzen nuen harkaitzetik itzuli nintzen: banuen beste egitekorik alabaina. Zapatak sablez astun neuzkan. Biloak haizeagatik harro. Ezpainetan aldiz gatzaren zaporea milika nezakeen mihia jalgitzen nuen ber.

Txirlen Irla zuen izena Marti Izoztaren txosnak. Taberna handiago baten maldan zetzan. Bezero beltzaran batekin eleka nekusan itsasertzetik ateratzean. Surf taula zurbila besapean zeukan mutiko gaztearen ele zoriontsuak hauteman nitzakeen:

– Oso ona itsasoa gaur! Bikain! Super! Olatuak egokiro borobiltzen dira. Zafla ederra bildu dut, hala ere, zazpigarrenak buruz gora aurtiki nauenean.

– Bukatu duzu egungo?

– Ez, oraino ez. Lagun australiarrari Parlamentuko spota dastarazi behar diot. Arrats apalean da hoberena. Seiak irian hots. Norbait daukazu aiduru... txaotxao.

Marti Izoztak hozki kontsideratu ninduen. Ez nintzen hondartzetan laketzen ziren undina elastiko eta panpoxetarik. Surflariaren lekuan nintzen egurrezko kontuarrean. Jabeak bizkarrez hitz egin zidan:

– Zer nahi duzu zuzen? Ez nator bat kaka zaharraren nahasteko. Urrin zakarra eduki dezake. Ez zara itolarriaz beldur?

– Daniel Elgebeltzen gomendioz naiz hemen. Janaren desagertzeaz zerbait aditu dukezu? Adiskideak zineten, ez?

– Bai, noskiren noskiz. Guztiak Garaziko herrixka bateko haurrak ginen. Denak Euskarari eta Euskal Herriari errotik atxikiak. Kartzelaz ordaindu nuen nik ere amodio handiegi hori. Zer gehiago duzu bilatzen?

– Erradazu zer pasatu zen 1985eko Baionako Besten azken gauean. Zertara etorri zen Txatxo errefuxiatua Janarengana. Eta Txatxo non aurkitu dezakedan.

– Garagardo bat?

– Arratsaldea badugu.

Bekoz beko eseri ginen. Ogi pikorrekin jostatzen zen Marti, noizbehinka azazkuluaz denborarekin mahaian mardotu gurina ildokatzen zuela. Zintzurra karrakatu zuen:

– Nondik hasiko naiz? Ba, bon... Baiona Txikiko ostatuetan elkarrekin bizitzen ginen Iparraldeko eta Hegoaldeko anaiak, gutariko zenbait neskak ziren arren. Orain ez bezala, borroka armatuaren egokitasunean sinesten genuen eta urgentzian autoak prestatuz edo guhaurrek eramanez pistolak, metrailetak, gudariak, paper eta diru faltsuak mugaz haraindira iragaten genituen. Komandoei apartamentuak alokatzen genizkien gure izenean. Baduzu entzutea arauz Iurralde hau etsaiek erakundearen *santuarioa* zela ziotela? Hala zen egiazki.

– GALeko hiltzaileak etorri eta 1987ko urriaren 3ko raflea gertatu artean.

– Horixe bera. Laurogeietako hamarkadako lehen urteetan Daniel eta biok bestelako zereginetan ari ginela aitor dezadala. Iparraldera zetozen mutilentzat justu ernatzen zihoan abertzale mugimenduaren baitan neskak hautatzen eta gureganatzen genituen. Ederrenak. Abilenak. Sos puska bat ere bazutenak.

– Horiek erran-merranak dira! Espantukari bat zara, Marti... Ez zaitut horretan jarraitzen.

– Inozentea zara, Ezpeldoi anderea! Inozentea! Jakizu Julieta edo Jana gudarien andregaiak sareko kide fidagarriak zirela. Hegoaldeko borrokalariak alabaina heroiak ziren guretzat. Ez da harrigarria Julieta Txatxoren begitarteaz gogoratzea Baiona Besten gau minbera hartaz gero: Jana Txatxorekin zebilen noiztenka. Uste dut Txatxok xede handiak zituela Janarentzat...

– Ezkonduko ziren?

Karkaza protidiko ozenez zapartatu zen Marti. Garagardo botilaren erdia irentsi zuen bargoak gazura nola.

– Iparraldeko neska edo mutikoekin ezkondu ziren Hegoaldekoak amodioz eta guk antolatu sareetarik

kanpo ezagutu zuten elkar. Ez... Kontestuan planta zaitez: Txatxok misio zehatzak zeuzkan konfiantza osoz Janarentzat. Eman dezagun Hegoaldean bildu iraultza zergaren emaitza Iparralde honetara sano eta salbu ekartzea. Daniel Elgebeltzen soto hidraulikoan sosaren zati bat aurkitu zela badakizu menturaz?

– Klandestinitatera pasatu zen Jana?

– Baliteke. Segur aski. Ez nintzen operazio guztien sekretuan. Baina aldizka frontera trabeskatzeko gida gisa izan zen, Hegoaldeko atentatu guneetara materiala autoz pasatzen zuen eta itzultzean kofrea arditez mukurutu maleta zilarrak garraiatzen zituen.

– 1985eko Baionako Bestetarik landa zen?

– Ondotik zitekeen, ezen Daniel, Julieta eta talde osoa ez baikinen Janaren desagertzeaz den mendrenik ere kezkatu. Normala zen. Gauetik goizera edonor sasitar bilaka zitekeen. Atxiloketa entzutetsuen karietara berriz plazara zetorren, ukabilak burdinez loturik eta *Gora Euskadi* garrasituz.

Parisen nengoela, Martik aipatzen zizkidan irudiak anitzetan begietsi nituen karrika izkinetako dendetako pantailetan. Euskal Herritik ez zen itxura ezberdinik iristen hiri nagusira: Baigorriko Leheneko Ezteiak edo hilotz askorekiko titadinezko leherketak. Aukera her-

tsia zuen frantses kazetariak. Laurogei haietan galtzen ginen pixka bat: Iparretarrak-en zartagailuak, GALen tiroketa metodikoak, bila eta harrapatu aginduak, ETAren atentatuak, kartzelatzeak. Baiona, Beirut zen telebista presentatzaileen perpausetan. Maitasunak ez zuen lekurik. Emazteen artekoak are gutxiago. Borroka hitza ardatz, azkenean gizarte gizonkoi gogorra indartu zen, horren beharrik ez zuen Lapurdi-Behenafarroa-Zuberoako eremuetan. Arra, familia eta patria. Barnealdeko istripuzko euskaldun exodiatuen meneko uzten zen lana. Gurasoen ontasun oparoaz, langabeziaren manaz edo sala ezinezko finantzatzeen bidez zirautelako hautatuek. Nire aldia zen barrezka jazartzeko.

Jana maleta pisuekin asmatzen saiatzen nintzen. Self kontrola fronteran. Bi ertzetako polizia armatuak. Orduko Euskal Herriak far-west aire bat zeukala ez nezakeen uka mende laurden geroago. Jolastu ziren zenbait, batzuek bizia eskaini zuten –zergatik eskatu liteke dagoeneko... armak erabat pausatuak direlarik– eta gehiengoak funtsean bakea desiratzen zuen bere aferez axolatzeko, afera horietarik apurrak mugimenduari uztartuak izanagatik. Marti Izoztaren soak urratzen ninduen eta uhinen hagun pindartsuetan berma-

tzen zen. Hausnarrean nenbilen: sosez emokatu ETA-ren maletek Afrikako presidente isilduek Frantziako gobernuari helarazten zizkioten billeteez hanpatu djenbeen balioa zuten. Prefosta. Nire ezpainen plegua iragarri zuen Martik.

– Non da Txatxo orain? Apurren arabera Hego Ameriketan dago.

– Ez... Aparentziarik ere ez... 1987ko raflean hartu eta Espainiara espultsatu zuten. Zigor garratza eman zioten. Urte oroz, abisatu gabe, kartzelaz kartzela eramaten zuten. Aita hil zitzaion preso zegoelarik eta ez zuen haien ehortzetara joateko baimenik ukan.

– Libre dago engoitik?

– Naski baietz. Donostian da, Izarraitz liburu-dendako zuzendari. Pistoletarik olerkietara leize bat badelarik alta!

– Ez hainbestekoa. Ez zuena Gabriel Zelaiak behin idatzi poesia etorkizunez kargatu pistola bat zela?

Marti Izoztak kopeta ezkeldu zuen, errealitatearen soiltzeko eta laburbiltzeko nire jaidura estimatuz. Esku gibelaz aho kantoietako garagardo bitsa kenduz ihardetsi zuen ihes joan zitzaidan galderari:

– Ez dut enbeiarik Txatxoren ikusteko. Minberegia da. Ez gara erabat harro urte latz haietan konplitu ge-

nituen fanfarroikeriez. 1993an Schengengo akordioaren ondotik mugak ireki zirenean hasi ginen Daniel eta biok Janaren xerkatzeaz axolatzen. Julieta zainetan zegoen. Melenga airez ari zitzaigun: atzeman ezazue, bizirik ahalaz, segur naiz zerbait badakizuela eta ez didazuela ezer azaldu nahi. Dupont de la Cunaren kondenatzeak nolabait salbatu gintuen. Baina Janaren gorputzik ez zen nehon aurkitu. Klandestinitatean jarduteko estalkirik hoberena zen.

– Dupont ez zen hobendun.

– Argiki. Ez dakit zenbat ordaintzen zaituen Daniel Elgebeltzek ikerketaren eramateko, baina prest nago zu diruz laguntzeko. Bi mila? Hiru mila?

– Euro erran nahi duzu?

– Zer bestela? Frankorik baduzu oraindik ala?

– Hiru mila...

Miarritzeko itsasargiaren gaineko zerua gorrailtzen zihoan. Ilbarritzeko holtzak ukigarriki distirarazten zituen eguzki arrasatzaileak. Ur eremu karmina miresten nuen Marti Izoztaren txosnatik. Moltsa ireki zuen:

– Argazki zaharkitu honetan denok gaude. Marxismo ikastaldi batean, Behorlegin. Hortxe duzu Txatxo. Potiko ederra. Emakumezko guztien gizona bezain gi-

zonezko guztien emaztea. Zesar zuen gerra-izengoiti intimoa. Nehork ez dezala jakin orain agertu dizudana.

– Zaude lasai. Satorra bezain mutua naiz.

– Deituko didazu zerbait dukezunean? Egunerokoa histen didan garaiko buruhauste nazkagarriekiko haria ebakitzekoa dut. Jendeak, lagun proximoak, anaiak eta arrebak tresnatzat geneuzkan. Kausaren zerbitzu itsuan geunden. Ez dut ulertzen Janaren desagertzea. Inguru-minguru nabil malestruk *rubikub* zakar batekin bezala eta ez dut deus lortzen.

Zanpa-zanpa igo nintzen autobus geltokira. Martik txabola zerratu zuen. Funtsean istorio tristea zen Janarena. Harrotasunak dolua zekarren eta *viceversa*.

–11–

Buruhandi iratzartu ginen goiz hartan. Ez nuen lasterka egitera jaisteko kalipurik ere. Ordez, eki izpiek mahai gaineko errautsak nola distirarazten zituzten beha nengoen sukaldean. Nolwen seietan joana zen lanera. Ahoa idor. Wittig tabernan hurrupatu genuen riesling ardo maitagarria loriatzen zen kopetaren atzealdean ostikoka biharamunetan. Alta, bezperan, ahantzirik Jana Elgebeltz gaixoaren destino petrala –hauxe, hauxe duk/n hauxe–, solasean higatu ginen Preziosekin eta Zokorekin, Bokaleko *lesbian speed dating* entzutetsutik lagun banarekin etorri zirelako. Preziosen andraidea informatikan erregindutako neska mehakoila zen eta Zokorena, aldiz, Hollywood Boulevard ospetsuan gurutza zitekeen bularralde eta ezpain silikonatuekiko *pin-up* haietarik: gutxitan uztartzen ginen gure antzekoarekin; alderantziz, beti ezberdinera bulkatzen gintuen amodioak.

Gaua baino beltzago adelatu nuen kafea. Irratia pizturik neukan. Lau egun zaharreko *Berria* hostokatzen nuen nagiki. Krisi ekonomikoaren larritasuna, Merkelen lasaitasunerako deia, Siriako sarraskia, pre-

soen egoera larria aipatzen ziren; eta iritzien orrialdera punpatzean, Laurinda Etxeberriren artikulua begimendu nuen: Euskal Herria utopia bat zenez eskatzen zebilen izenaren azpian *idazlea eta euskaltzain osoa* zela berretsiz. Euskaltzain erdia edo laurdena edo herena izaten ahal bailitzan... marmaratu eta irriz lehertzear nengoela inarrosi ninduen telefonoak. Anaia zen.

– Piarres Harrizperen ehortzetara jinen hiz araiz?

– Hil baita?

– Bai eta nola. Lanean. Ez baitzen gelditzekoa, bihotzaren akuilatzeko pila ezarri ziotenetik. Arratsaldeko hiruretan dun. Ez dezanala ttantta Joanarena bezala huts egin gero!

– Hor nukek. Ttanko. Baditiat gauza zonbait egiteko artean. Ez hadila inkieta. Sarridio.

Ez nuen beste beharrik.

Tormenta altxatu zitzaidan kasko zokoan. Aspirina urtuarazi nuen kafea aitzin edateko. Betezpalak ninikei itsasten zihoazkidan, begiak bilgorrez astunduz. Torratzen nituen arraiki. Azkorri neketsua nuen benetan eta, gainera, nehor ez aldamenean. Galderak salbu: zergatik ez ninduen anaiak lehenago abisatu? Ez zukeen denborarik ukan edo, egiatiagoa zena, ez

ninduen etxean atzeman. Zintzurrean beherako kafearen isuriak jabaldu zizkidan zainak. Piarres Harrizpez oroitzen saiatu nintzen: langile amorratua zen, gerla handiak eginak zituen, haurrak zuhurki altxatuak, emaztearekin ederki konpondu zen berrogeita hamar urtez eta auzoei esku ukaldi baten emateko plazera ez zuen sekula ukatzen. Aski zen deitzea eta etortzen zitzaizun, salda eta arraileria partida on baten trukean. Igande euritsuetan herrian korrika nenbilenetan bere Dyane kotxe urdin-arinarekin gelditzen zitzaidan saihetsean:

– Bustiko hiz! Etxeat emain hut. Haui!

– Ez... milesker Piarres, presatua nuzu gaur...

Beti ihardespen berdina hegaldarazten nion. Ikusten nuen gero arrasemeak garrazki makatu zion beribila bidean sigi-saga ausartzen. Banekien orduan nahiago nuela hezurretaraino txipatu, ezen ez eta Zernaitzeko arroiletan bizitza egundainokoz xahutu. Piarresen ohorez kafe tilika bat irentsi nuen eta Nolwenek mahaian pausatutako Jean Lavigne jaunari buruzko txostenean iltzatu zitzaidan soa.

1985eko Iarrazkenean Poliziak bortxaketa sailetik lekora galdekatu lau lekukoetarik zen Lavigne hau. Bizirik zirauen bakarra. Wiesbadenen kokatzen zela era-

kusten zidaten Nolwenen paperek; ezkondua zen ardo ekoizle handios baten alabarekin eta bazituen lau ondorengo. Ez nuen ulertzen zerk eraman zuen Baionatik hain urrun. Funtsean ez nezakeen gehiago konprenitu nola iraun zitekeen Baionatik kanpo. Eta ez nintzen soilik Aviron Bayonnais taldea sustatu beharraz mintzo. Baizik eta zeruaz. Santizpiritu zubiaren erdigune geodesikoaz. Itsasoaren hurbilaz. Aturriko uholde buztintsuez. Ortzaiz uherretako mendi lerroen presentziaz. Barnealdeko harpe eta gordagi sekretuez. Erreka zikinduez. Pannecau eta Tonneliers arteko mozkorti trauskilez. Isiltasunaz. ZUPetik autobusez jaisten ziren DC zigiluko diamante faltsuzko gerrikoekiko mutiko eta neska zuri-beltz-beur zaratatsuez. Heriotzaz. Aski erosten ez genuelako mutur zerbitzatzen gintuzten dendetako langileez... ezinbesteko Baionaz, hots.

Ordenagailua piztu nuen Boble bilatzailearen haiatzeko. Benetako zakur ihiztorra zen. Lau segundoren buruan Wiesbadengo ziberrostoan nintzen sukaldetik kantitu gabe. *Herzliche Willkommen*. Hesse eskualdeko hiri nagusia zen. Baratze, eliza eta termaz hornitua. Azpimarragarriak ziren pare bat gauza idatzi nituen Jean Lavigneren txostenaren azalean: erreumatismoa

sendatzeko ura hurrupa zitekeen, Nero puntara igo indar hidrauliko soilaz bultzatu trenarekin, eta Biebrich gazteluko parkeko tekno-gaualdi izerditsuetan zotükatü (Zuberoan generrakeen moduan). Henkell xanpaina eta Riesling trocken edaten ahal zen halaber Rhin ibaiaren hegietako ttattoletan. Donostiarekin birazkatua zen. Gustatzen zitzaidan. Zena zelakoa, Nolwenek billeteak manatuak zituen osteguneko. Frankfurtetik agudo elkartuko ginen Wiesbadenen, ordu eta hizkuntz aldaketen jetlag gogorra digeritzen.

Mugitzekoa nintzen. Nolwen deitu nuen arratsaldean Piarresen ehortzetengatik, ez ninduela etxean harrapatuko jakinarazteko eta, oldean, nagusiarekiko hitzordua finkatu hamar egunen buruan zetorren Pazkorainoko oporrak pausatzeko. Hartzeak nituen. Egitekoak ere bai: dirua derrigor ateratzea, adibidez. Ez noski bankuan neukan diru guztia. Ez nintzen Eric Cantona. Nire guzti hori ez zen hain segur nahikoa CAC40 edo DAX burtsako seinaleak lerrabide izutuan jartzeko. Irakurle, lasai. Txantxetako jaidura alferrak baztertuz ernatzea baizik ez zitzaidan geratzen. Okindegia. Posta. Lantokia. Libre nintzen pazko bezpera arte. Karimek preseski eskola-oporrak behar zituen. Zuzendariak apirileko azken hamabost egunetan lane-

ko iragarri ninduen goiz, arrats eta eguerditan: angelusa kantatua zen meza eman baino lehen.

Ekiak euriaren meneko abandonatu zuen ortziaren zabalera Nolwenen autoa erabiliz herriratu nintzenerako. Konkorreraino betea zen plaza. Eliza umilaren sabeletik jazarri intsentsu usaina uharraren gristasun tematsuarekin ezkontzen zen. Jendez tinketz zeuden kalostrapea eta barnea. Galerietara lehiatu nintzen, saihetsetako ezagunen behako harrituetarik ihesi. Behingoz, nioen nirekiko, gizonen ikuspuntutik segituko nuen Piarresen ohorezko ofizioa: gainetik eskolalagun ohiak eta nor falta zen zehazten saiatzen nintzen. Haur denboran gurutzatu eta ene mundua antolatzen zuten zahar konkortuak, matolariak, zirtolariak, pataskalariak, haize azkarrek akoteak aldrebesten zizkieten amatxiak oro harren hazkurri ziren engoitik. Apezak –hortzetatik minez zitekeen– Piarresen on-gaitzak totelkatu zituen. Guretzat, txikitatik, momenturik estimatuena zen predikuarena. Debaldeko euskaldunak ez ginen arras, alajainkoa!

– Jakizue, norbaiteneko norbait zela Harrizpe. Fedezko urratsei atxikia. Laborari abila. Irri egitea maite zuen. Laguntzea, bistan dena. 1967ko Aretten lurra ikaratu zenean, Piarres sokorritzaile taldeen emenda-

tzera joan zela ikasiko duzue. Ez dezagun ahantz pilotari bezain muslari trebea genuela. Bihotzean pila jarri ziotenean, medikuek bizitza berria eskaini ziotela errepikatzen zuen. Bost aldiz gehiagoko kemena gastatzen zuen eguneroko zereginetan. Lukasen liburuko hitzak berretsiko zituen gurekin batera: «zergatik biharrera albora gaur bertan konpli dezakeguna?». Isiltasun bulta bat orain Piarresez gogoratzeko.

Hilkutxan ponpolinaturik eta igandeko arropez bezti zetzanaren doluz negarrez hipaka hautematen ziren alarguna, haurrak eta arrahaurrak. Askaziak. Lore sorta erraldoiak metatzen ziren aldarearen maldan. *Zetor* putarlarien irudiz edertu oroigailuak zenbatu nituen. Orga karrankalariaren timoia traktoreari lotzean zendu zen hain zuzen, gure gurasoen antzera sekula hil ez zitekeen Piarres. Piano-joleak erraiak korapilatzen zituen *betiereko zoriona hil honi eman otoi jauna* abestiaren ahaidearekin tematu zen. Gizonak elkor eta emazteak mikatz, ahots zainartez sartu ziren musika dudatsuaren urrakoan. Ur benedikatua ttanttakatu zuen apezak lau haizeetara, bereter mozkoteak intsentsua barreiatu bitartean. Fededunak oro gizon bakar –edo emazte, gustuen arabera– bermatu ziren, aulkiak herresta eta galerietako egurreria zaha-

rrak klaskaraziz. Bost auzoek zilarrezko gurutzea eta hilkutxa jalgi zuten, jendalde bilduak *zerua zerua zerua saritzat* abesten zerraikala.

Zerua beltzurdina zen kanpoan. Atertu zuen hargatik. Azken otoitz bat marmaratu genuen eta pika beleen maneran presatu ginen zein gure tribuetara.

Anaia solastatu nuen:

– Ehortzeta ederrak, ez?

– Bai. Zinez. Pasa hadi etxetik...

– Ez diat denborarik.

– Kolazionera gonbidatuko hau Martxelinak.

– Emazkiok agurrak ene partez.

Ele samurrak trukatu nituen koinatekin eta desagertu nintzen, inguma. Ez nuen gutiziarik lekuko amaoldeekin geratzeko. Mende erdia bihikatuagatik, beti galdekizun berdinak zeuzkaten nirekiko:

– Ez hiza ezkonduko? Norbait badukeen, bistan dena...

– Eta, lanean hasi hintzen dohaikabe?

– Parisen, ez?

– Haurrik baduna?

– Ez, Elixabet –zerrakeen Mamaik–, ez bada ezkondua, ez din haurrik ukaiten ahal.

– Gaurko mendean gertatzen dena bahaki, Elixabet...

Irriz purruskatuko ziren biak. Eta ni, erran zitezkeenaren muga suntsitzeko oldar gaziak ezpainetan, balizko aitortzaren *limes* haren kontra aurtikia suertatuko nintzen. Ez zen zaila hitz egitea. Bazitekeen herrian nitaz beste argamaxarik! Baina ez, mutu nengoen. Bitxiki. Ez nekien zeren beldurrez. Ez gintuen halatan jainko bekaitzak ausart hezi.

Janak nire aldean, orain arte nekienaz bederen, ez zuen bihotzeko hotzarekiko izurik: hausnarrean nenbilen, bizitza labur hiltzea segur salmokatuz, Janaz jakina mentalki zerrendatzen, Daniel eta Martiren lekukotasunak sailkatzen, Marieta zein Julietaren gontzetako herdoilak kontsideratzen, eta laster Wiesbadenen ohaturiko Jean Lavigneren ezagutzea irudikatzen. Bi pista banituen: serial killer monomaniatikoarena eta erakunde armatuarena. Ondorioen mailan biak batera zetozen eta Jana nonbait urtua zen. Gurutzunearen aurkitzeko ordaintzen zidaten Danielek eta Martik.

Glaineko eremuan aparkatu nuen Nolwenen ontasuna. Euri ezkelak begitartea zafratzen zidala, zanpazanpa itzuli nintzen Baiona Txikira. Harrotasun ukitu uhinak eroan ninduen Errobiren hegietan: herabea

nintzen, baina ez nuen nehoiz aukerarik galdu, lana maite nuen, Pep Guardiolak Kataluniako parlamentuaren urrezko domina papoan dilindatu ziotenean, mailukatu zuena errepika nezakeen: *estimo el meu ofici, l'adoro*... egiaz lau bider begietsi nuen Barçako trebatzailearen mintzaldia TV3.cat gunean:

– *Si ens posem a pencar... som un pais imparable*.

Wittig eta Madonnaren haritik Pep Guardiola.

–12–

Bizkar-zakuaren apailatzeko astia baizik ez nuen ukan, ziztuan etorri baitzitzaigun gauerdiko trenaren tenorea. Nolwen etxean zen Piarresen ehortzetetarik sartu nintzenean. Prest zegoen. Banituen nik oraino gauzatxo batzuk xilintxau. Angelun aizolbetzen zen Preziosi erregutu nion zetozen egunetan Daniel, Marti, Julieta eta Marietaren mugimenduak zelata zitzan ahalik diskretuen.

– Bai, joango gara Marlen eta biok.

– Eta kontuz ibili...

– Lasai. Ez gara haizemeneko abar meharrenak.

– Wiesbaden ez dea Elvis Presleyk Priscilla Beaulieu ezagutu zuen hiria... eta... erakunde armatuak 1970ean bahitu Beilh kontsula bizirik azaldu zen hiria?

Futxo, bai... Beilh... Prezios jakintsuaren matelazola mardulak ozendu ziren telefonoaren besakian. Musu gurintsuaren hotsak elkortu ninduen. Saudi Arabiako emazte baten pare troxatu Zokorekin sarea hedatuko zutela segurtatu zidan, erantsiz:

– Zure informaziorako doi-doia: Zokoren pin-upa Deborah deitzen da eta orotara eramaten duen kanixea Scully.

Barrez gesaldu nintzen. Jendeak ideia bereziak zituela nerasala pausatu nuen urrutizkina. Ez nion, ordea, X-Files haietako Scully pertsonaiaren fans-etarik nintzela aitortu, nitaz burlatuko zelako. Nolwen hurbildu zitzaidan. Balakari zebilkidan lepondoan, papondoan, sabelondoan. Intziriz lehertu nintzen. Egin egin dezagula murmuratu nion aho-zulora... eta atsegin ukatuen kaian aurkitu ginen aski laster, barneko bozgorailuek ertzetarik urruntzeko manuak zabaltzen zituztela, abiadura handiko trenak bata bestearen ildotik ernatzen zirela, uhinak gozo, frenoak kantari, txistuak ozen, ahots sintetikoak norabideak arraiki kordeltzen zituela, kasu ateen itxiera automatikoari, altzairu eta titadinezko piztiak geltokia alargundu zuenean, haragizko burdinbideak gogortu zitzaizkigun, hatsanka, bihotz herdoilduen tzanga baino aditzen ez genuela. Elkarren magalean gerizatu ginen paperik gabeko bidaiariak bagina bezala.

– Ordua da.

Parisen geltokiz aldatu ginen, taxiz. Oren goiztiarrarengatik agian, samur zirudien gidari beltzarekin ez

genuen soakorik trukatu. Berdin zihoan. Ez ginen amodio edo ezagupen eskasez. Oroitu nintzen beratz, gure arbaso soldaduak Gare de l'Est honetarik zituztela *Chemin des Dames* izugarriko trintxeretara garraiatzen. Kaskapüntak partida zituzten. Baina jada bake aroak ziren eta adiskide geneuzkan alemanak. Hargatik arrangurak bazirauen: nor ziren plazetan zutundu berunezko zaldun belikos haiek?, nola pizten zituzten gerrak?, zergatik askatu zuten Beilh kontsula Wiesbadenen? Azken kezka arrotz zitzaidan. Eta segidan Nolwenen berotasuna bilatu nuen, ezinegona areagotzen zidaten pentsamendu toxikoen xendratik ihesi.

Wiesbadenerako S-Bahn-era hupatu ginen Mainhattanen. Eguerdiko eguzkiak bitxiki argitzen zituen Frankfurteko dorre zilarrak. Laino harrapari jostatzen zitzaizkien buruak. Oraino oren erdi bat.

– Pena da, Nolwen, ez dudala Txatxo Landaburu elerran.

– Denborarik ez zenuen Donostiaratzeko.

– Beharko nuen alta.

– Hitzartu ezazu larunbateko. Nahi duzu nire mugikorra? Uste duzu garrantzitsua dela? Zein dira serial killerraren eta erakunde armatuko kide ohiaren arteko konexioak? Ez dut garbi ikusten...

– Zuk baino gehiago ez dakit. Daniel Elgebeltzen Moura villaren ikerketaren berri baduzu?

– Zure idazki zizelkatuaz gain, seinalatzea merezi duen ezer ez dago han. Sotoak hutsik dira. Borta sekreturik ez dugu aurkitu. Erran dizut: pilik ere ez.

– Zorte txarra dugu. Eta ez dakigu arrainaren zein begi kilikatu egia azaleratzeko.

Arrainek betezpalik ez zutela nioen Wiesbadengo kai ertzean oina pausatzean. Kolore guztietakoak baziren, kasik ibai azaletan zihardutenak. Bazeuden halaber aintzira eta urmaeletako lokatz hiletan edo itsaso hondoetan zebiltzanak, argirik gabe, aire premiarik ezean, betiko gauaren minean zunda txiskatsuei esker sekula eratortzen ez zirenak. Janaren desagertzearen aferako izakiak sakontasun abisaletan igerikatzen usatuak zirela ziruditan. Bat-batean brika gorriz eraiki geltokiko enparantzan hatsa ments eta itolarria nabaritu nuen:

– Eta orain, nora goaz?

– Baneki?

– Lavigne jaunak erran dit Mercedes Benz zoharra aiduru genukeela. Nolakoak dira?

– Alemaniako telesailetakoen modukoak: alimaleak, distiratsuak, indartsuak. Begira... hortxe bizkar-

tzain itxurako gizon parea datorkigu. Atzerritarrak garela sumatu dute.

– Zaude isilik haurra!

– Wer ist Amaia Ezpeldoi?

Zer zerasaten? Zer zen mintzaira hori? Nolweni ikasteko bretainiarra baino zailagoa bide zitekeela murdukatzeko zorian nengoela, saihets hezurretan bulka latza sentitu nuen eta, piztien aitzinean ttattit, geltokiaren aldameneko gaztainondo lerro bikoitzen maldatik pasatu ginen nora ez genekiela. Ur Dorre zaharkituaren itzalean zutoi zegoen beilegiz apaindu adinekoaren oinetara aurtiki gintuzten:

– *Sie sind hier Chef!* Mercedesa hurbilduko dugu?

– Hautseztatu belarraren gustua eztia da ahosabaian.

– Jean Lavigne zara? –galdetu nion, umiliatze saioak aski iraun zuela iritziz; ez ginen haatik lurretik altxatu, zer gerta ere.

Graffitiz perdukatu egoitzaren eremuan gure bizkar-zakuak mirazkatzen zituzten zaindariek. Denboraren buruan haietarik bat kotxearen bila joan zen, eta paperak eskuan etorri zitzaigun bestea. Paltoetarik tiraka zutik jarri gintuen ahur bakarraz.

Arratsaldeko biak izanagatik nehor ez zebilen gune horretan. Lavignek aurpegi gogorra erakusten zigun. Larderiatsua. Normala zitekeena alabaina, afera likitsean lekuko soil baino akusatu gisa agertu behar izan zuenarentzat. Irriak sartu zitzaizkigun.

– Begiak tapaturik eginen duzue ibilaldia. Arazorik ez dut nahi. Ardogintzako enpresari ohoratua naiz hemen. Geltokian nire piztiekin sufritu duzuena ahantzi dezazuen, etxeko riesling botila zenbait oparituko dizkizuet.

– *Vielen Danke*...

Nolwenek zekien alemanera apurra artekatu zuen, aski egokiro nire iritziz. Inguru-minguruz borobilka ibili ginela ziruditan. Danteren infernuaren zazpi zirkulu madarikatuak trabeskatzekoak genituen. Memoriaren nahasteko baliabidea zen. Segurtasuna hobesten zuten lurraldeetan bereziki, izkinarik ez zen eta guztiak errondak ziren, salbu emazteak. Zorigaitzez. Arraileria muturako jaidura fleitean neukala baiesten nuela, Jean Lavigneren boza ozendu zen:

– Ez nuen telefonoz mintzatu nahi istorio zatar honetaz. Hobe lasai hitz egitea. Kointzidentzia harrigarriak badira Jana Elgebeltzen desagertzearen alorrean. Esplika ezin ditudanak, noski.

– Lau nesken bortxaketaren auzian atxilotu zintuzten zu?

– Bai. Denborarekin agertu da ez ginela, ez ni, eta are gutxiago, hamabost urte preso iragan zituen Dupont de la Cuna gaizoa errudun. Holandes morbido bat baizik. Zitzikatu egin zituzten gure bizitzak.

– Zer zuen orduan poliziak bilatzen?

– Urrun edo hurbil, biktimak azaldu ziren eremuetan kukuxkatu gintuzten. Lantokietan, etxe aldeetan, ostatuetan, jolastokietan. Dupont de la Cuna, demagun, Xibertako oihanean Nicole Sukaina gaztearen hilotzaren ondoan aurkitu zuten negarrez, eta nire kasuan jakin zen, asunetan pixa egin nuelako, Elina Saldo masakratu zuen tokitik pasatu nintzela. Zakurren sudurra eta DNA azterketen uztak. Erabaki labainak.

Garailak krixa-krixa susmatu nituen Mercedesaren erroten azpian. Gaztelu baten lobiroan geunden. Zaindariek kanporatu eta begietako tapakiak kendu zizkiguten. Mahastien erdian ginen, izenda ez genezakeen errekaren uretan bustitzen zirela berdetasun zoragarriaren hesiak. Iparrera itzuliz jauretxe barrokoa altxatzen zen.

– Non gaude?

– Bost axola zuentzat. Ez zarete turistak. Baina erran diezazueket Biebrich eskualdean gaudela nonbait. Solasalditik lekora mutilek eramanen zaituztete Wiesbadenera. Erreserbatu dizuet hotela. Luisenstrassen. Pasa andereak...

Begiak igurzten nerraikan. Nolwenengana bihurtu nintzen. Andraidea lasaitasunik handienean aurreratzen nekusan, tronaduretan dilinda zeuden kristalezko argi-jauzi distiratsuen pean, urre hostoz estali hormekiko gela zabaletan zehar. Sissi ederraren mendeetako ohitura bailuen. Fermukiago so egin eta Romy Schneiderren matelan behera malko bat zehaztu nion ezpainaren marraraino lerratzen. Bego.

Bulegoan kabitu ginen. Jean Lavigne zuzendari aulki zizelkatuan, kadira arruntagoetan gu, eta ate kantoietan zaindariak. Sua akuilatu nuen:

– Ezagutzen duzu Marti Izozta?

– Ez. Behar nuke ala? Dena dela, zin dagizuet ez dela emazte bakarra nire kausaz zendu. Hala ere egia da Adam VanVriesek Elina urkatu zuen gunetik iragan nintzela. Orduko andregaiarekin. Maite genituen hariztietako itzal misteriotsuak. Baliteke *serial killer* zakarrak hor begimendu ninduela eta beretzat aitzakia

egokia nintekeela pentsatzea. Marti Izozta erran duzu?

– Euskaldunen munduan famatua da oraindik.

Behorlegiko bordako marxismo ikastaldian bildu argazkia erakutsi nion. Kopeta apaldu zuen. Etsitzear zegoen.

Hatza pausatu zuen:

– Eta moko mehe bizar zuridun hori nor da? Marti Izozta da?

– Ez. Txatxo izeneko ETAko zuzendari ohia.

– Badut entzutea, bai, nahiz eta ez nuen politikan sudurrik sartzen.

– Poliziei deklaratu zenien, euskaraz mintzo zen talde baten atzetik tematu zinela 1985eko Baionako Besten azken gauean. Zergatik? Argazkiko kide hauek ziren jarraitzen zenituenak?

– Edana nintzen. Kokainaz asea. Edozer egiten genuen. Gure gazteei debekatzen dizkiegun ibilerak genituen... Baina, bai, diozuen saldoa izan zitekeen. Iruditzen zait Txatxo hori ikusi nuela. Beste norbait betandu nuen Santizpiritu zubiaren puntako Gambetta plazan. Dupont de la Cuna. Gotikoz jantzia. Aluminiozko betaurrekoekin. Geiger kontagailua eskuan.

– Urte haietako Baiona ez bide zen gozoa...

– Frau Amaia Ezpeldoi bitte! Ez da txantxetakoa. Jende anitz zegoen zubian, denak kordelean, sexu edo pausa bila, arrazoi ezberdinengatik. Bokalera doan zubipeko tunelaren azpitik zetorren oihu garratza hauteman nuen. Abere bat bizirik sangreatzen bailitzan. Nire imajinazio nahasiaren emaitza zikina baizik ez zen. Ez naiz sekula horretaz nehorekin mintzatu. Eroa nintzatekeen erabat.

–13–

Arrats apalean berriz begiak tapatu zizkiguten. Mercedes erraldoira igotzen lagundu gintuzten zaindari zainartek. Jean Lavigne gurekin zebilen. Sabela nahas neukan eta Nolwenen eskua tinkatzen nuen, itsaso ernegatuko marinel izutuaren salbamen egur puska bailitzan. Bidaian Janaren garrasia hautematen nuela iruditu zitzaidan. Lavigne ezin isildua zen:

– Afera bukatu bezain laster Wiesbadenera etorri nintzen. Izeba batek deitu ninduen bere ardo zuri sotoez eta Rhin ertzeko mahastiez axolatzera. Bordeleko Unibertsitatean justuki enologia ikasia nuen. Ordutik ez dut arazorik ukan eta zuek agertu artean ez naiz Janaren desagertzeaz kezkatu ere egin, nahiz eta gauez amets gaiztoak egin. Frankfurteko psikologo on bati esker desjabetu nintzen aztarna mingarri horiez.

– Ez zuten Janaren gorputzik nehon aurkitu.

– Hala da, bai. Gaztaroko zozokeriei uko egin nien eta azkenean suharki plantatu nintzen lanean. Hortxe duzue hotela, bi izarrekoa.

Luisenstrasseko izkinan aurtiki gintuzten ogi zakuak baino ez baikinen. Hiriko planoa eskuan. Eske-

rrak eman genizkion Lavigneri, piztiek begietako oihalak kentzen zizkiguten bitartean. Eki horailak seinalatzen zituen karrika zabalaren bukaerako egoitza gorakoiak. Nolwen tatxa beltz baten antzera ikusten nuen argi-aurka. Mercedesak bihur handia egin zuen kalean bertan beste ibilgailuak kontuan eduki gabe. Errotak irristaraziz, izenik gabeko norabidean aldendu zen. Ez zuen *polizei* delakoen lotsarik. Gertatua beranduago zirikatuko genuela erabakirik, puskila arinak hotelean pausatu genituen. Harrerako andereak ingelesez errezibitu gintuen, hutsaren hurrengoa zelako gure alemanera. *Danke* eta *bitte* baino ez genezakeen ahoska. Alta, hiri erdira abiatzean, gogoratzen ginen gaztaroko zer kultuen aldarean Kraftwerk, Neubauten eta Nina Hagen erre ezinezko idolotzat geneuzkala, tutik ulertu gabe, bistakoa zenez:

– *Ich warte*... *und radio aktivität*!

– *Warum Wiesbaden*?

Kartari so gindoazen. Dern'sches Geländes plazako Marktkirche eliza gorriaren haga mehar luzeak miresten geundela jo zuen Nolwenen mugikorrak. Prezios zen.

– Ontsa? Ba berri interesgarria badut zuentzat. Angeluko Kortsarioen hondartzan juntatu dira gaur Julie-

ta eta Marieta. Nehork ez ezagutzeko gisan zebiltzan: beltzez bezti burutik oinetara eta alimaleko betaurrekoekin. Zoko ematen zuten.

– Ez da eder, Prezios, maite ditugunez trufatzea... –erran zion Nolwenek–. Zer zuten solas?

– Urrunetik gatibatuaren arabera, dirua naski. Zer bestela?

– Zehazkiago... –orroatu nuen telefonoaren bozgorailua saturatuz.

– Haizea ez nuen alde, badakizu. Arranguratuak ziruditen. Kuku umea habiatik erori bailitzan... Segiketa tematuko dut, lasai. Noiz etxeratuko zarete?

– Bihar iluntzean. Baionako geltokian itxoingo gaituzu?

– Marlenek nahi badu, bai.

Karkara larria askatu genuen. Lehen aldia zen Prezios norbaiten meneko zegoela deliberatzeko orduan. Marlenek sudurretik eramaten zuen jadanik. Egoera txarra zitekeen maitasun istorio batentzat. Baina amodioaren alorrean ez zen arau finkorik eta molde guztiak bali ziren, amodioaren izenean kolpez kalitua izateraino.

Zorigaitzez. Stadtschlossen enparantzatik lerratzean, Marktstrasseren ezkerraldean Maldaner kafete-

gia begimendu eta duda izpirik gabe bertaratu ginen. Ordu erdi baten buruan hertsiko zela xuxurlatu zigun zerbitzari plaxentak. *Sacher Torte* zati bana eta kikara bete kafe eskatu genion: gozo eta kafeina premian geunden. Wienako Hawelkaren itxura zeukan, dena girgil eta zaharreria, bizkotxo oparoak berina azpian herronkatzen zirela, jendeak ahapez zebiltzala mahaiaren erdian opari zetzan arrosa gorriaren usainaz loriatuz. Ikasleak, bainu-gazietara etorriak eta herriko burges apainduenak gurutzatzen ziren Maldaner ospetsuan.

Afalduak ginen. Azken edari batekin aski genukeela hausnartu genuen. Kanporatu eta, ahurrak bilduz, ahoratzeko ur bero eta gaziarekiko iturri baten saihetsean gelditu ginen:

– Lavignek aditu garrasi latzak harritzen nau ni. Janarena zena? Nolakoa zen? Abere sangreatu batenaren antzekoa zela berretsi digu. Alta errepikatzen dut: ez zuten Janaren gorpurik atzeman.

– Agian gizonaren defentsa egitura da. Erreferan, bere ttanttoaren salbatzeko, arerioak aurkituko ez duen pareta motzera igortzen du pilota.

– Nolwen, zu ez zara Lavigneren hitzez fidatzen?

– Ez dezazula ahantz Kergelen komisarioa naizela. Ez dut lehen xixtan nehor sinesten. Eta zer diozu Preziosek helarazi digun berriaz? Interesgarria, ez?

– Alafede baietz. Julieta depresiboa eta kexu baizik ikusi ez dudan Marieta saindua, biak, diruaz mintzo Angeluko hondartza horren sekretuan! Begira! Zein da partekatzen duten zama? Zer dute bat-batean elkarri kontatzeko? Daniel Elgebeltzen arabera 1985eko Baionako Besten gau miserable harrezkeroztik ez ziren juntatzeko gai izan. Bakoitzak taldearen argazkia datxika moltsaren zokotto batean. Bazauzu zuri?

– Auzia ez dugu orain trenkatuko. Goazen riesling baten hurrupatzera.

Galduak ginen. Jira-biraz genbiltzan iturri gazirik gazi. Erromatarren aztarna argitua zekarren zelai hertsi batetik jaitsi ginen eta Nolwenek, hatza zut-zuta, ostatu bat erakutsi zidan. Atea bulkatzean lekuaren izenaz jabetu nintzen: *Trend.* Barneratu eta ohartu ginen gure gisako bizidunen aizolbea zela: *Good As You*. Bezero gutxi zegoen. Salbu lau bikote, mahaietan jarriak. Gehienak kontuarrean jostari. Pantailan gizonez apaindurik agertzen zen Lady Gagak noizbait zuzenean eskaini *You and I* abestiak taberna mailukatzen zuen dantzari brantxatu apurren zorionerako.

Bizkarrak barrari bermatu ginen Trendeko faunaren miresle. Riesling ardoa manatu genuen: *trocken*. Rhin ertzeko lurren odol zuriak begiak pindarrez kliskarazi zizkigun. Jainkoen edaria preziatzen genuen, ttilikaz ttilika, zaurien bezperako egun dorpeen ondotikako saria bailitzan. Trendeko hezetasunean musua eman eta ausartu nintzen:

– Maite zaitut, Nolwen.

– Hara beraz bihotzaren ordua!

– Zergatik burlatzen zara nitaz?

– Amodioaren aitortza zuretzat zerga aitortza bezain arrotza eta desegokia dela iruditzen zaidalako.

– Atx! Uste duzu?

– Maite zaitut nik ere.

Beth Dittoren gorputzeko gurin masek gelako intimitatea eraso zuten. *Heavy Cross*-en bateria bizitoreak neurkatu zidan Nolwenen maitasun agerpenaren hats bahitua. Basoak berriz bete zizkigun Sharleen Spiteriren irudiko zerbitzariak. Ninikak ortzadarraren zazpi kolorekoak genituela baimentzen genuen hondarrean. Euskal Herritik urrunduz. Nolabait deslokalizatuz. Errazagoa baitzen, egia erran. Gauak gauari Miarritzeko Wittig tabernan tapalakatzen ziren Prezios eta Zoko geneuzkan gogoan. Marlen eta Deborah bien

andraideek taldea handituko zuten jagoitik. Nolwenek Trendeko ezezagun bati gatibatzeko eskatu bion argazkia bidali genien MMS uhinez. Joan Jetten *I Love Rock'n'Roll* hisiak mugitzera bulkatu gintuen. Izerdia kopetan perlatzeraino ausatu ginen, edan eta dantza, dantza eta edan, gauerditan Indigo Girls bikotearen *Closer to Fine* hiperbitaminatuak horkoak ez ginela gomutara ekarri arte.

– Goazen Robin Hoodera.

– Bostetan altxatzekoak gara...

– Trenean eginen dugu lo!

Hegoaldeko ama lanpetu askori entzun *ez izan pelma mesedez* lelotzen nion nik ere Nolweni. Irriz ari zen arrazoirik gabe. Ez jakin nola baina, autoen pasaia utziz, karrika alderik alde zerratzen zuen eraikin gris argiztatu baten hegalera iritsi ginen. Misteriotsua zen. Michelsbergstrasserantz isuri horma puskaren gibelean monumentuaren zergatia azaltzen zen alemanez eta ingelesez: hor zegoen Wiesbadengo Sinagoga, 1938ko azaroaren 9an, juduen ontasunen aurka naziek antolatu, akuilatu, sustatu *Kristallnacht* izugarrian suntsitu zuteneraino. Hegatsik ez zuen eraikinaren kantoian jarri ginen, erabat belliturik:

– Alemanian izan eta behar genuen, bai, iragana bera ezeztatzen duen Historiarekin parez pare agitu. Zerbait da! Judutarrei apokalipsia etorri zitzaien nehork ez zuelarik hatz ttittilarik higitu.

– Auschwitzeko trenen heltzea erakusten duten irudiek urratzen naute beti: *links*... *rechts*... hitz zintzurroi elkor soilaz trenkatzen zen Europako judutarren destinoa. Emazteak, haurrak, gizonak. Hondo gabeko horrorea. Jendarte mailan barka ezina. Arrazakeria, arrogantzia, insatisfazioa, bekaizkeria soziala lur beltz gisa dauzkan izurrite zatar hori edonoiz berriz heda daitekeela pentsatzeak negar gura hazten dit. Beldurtzen nau.

– Amaia, otoi... badakizu, ikasle nintzela Sachenhausengo kontzentrazio zelaia bisitatu nuen. Elur eguna zen. Zurezko barraketan aire hotza zebilen eta zigor ziegek leihorik ez zuten. Juduz eta aurkari politikoz bete bagoiak Birkenau edo Auschwitzera igortzen zituzten. Bizitzaren ikusteko manera aldatu zitzaidan orduan: *nevermore* marmaratzen nuen etengabe. Ezer ez ahantzi eta lagun proximoarentzat ona izan. Ez dut beste lemarik. Zuk ere ez, naski. Horregatik gara batera Sinagoga bat zegoela frogatzen duen leku zehatz honetan.

Behiala sarraskitu isiltasun sakratua errespetatu genuen, itsu mandoka ernatzen ginela Luisenstrasseko hoteleraino. Bostetan etorriko ziren Jean Lavigneren piztiak gu Frankfurtera eramateko. Parisen geltokiz kanbiatu eta betezpal mugimendu bakarraz Baionan ginatekeen. Lo labur eta bihurria egin genuen, riesling ardoarengatik edo Sinagogaren gerizan irun solasengatik. Zergatik jakitea zaila zen.

Henrich Böllen trena bezain puntuala suertatu zen Mercedesa. Zangoak loturik eta hegalak ebakirik zituzten pinpirin biren moldean garraiatu gintuzten, gehienek Mainhattan deitzen duten Hesseko hiririk handienaren muineraino. ICEaren 15. bagoian zinez plantatzen ginela segurtatu ziren mamuak. Gugan konfiantzarik ez bailuten. Bizkar zakuez gain Jean Lavigneren uztako botila laukote bana generaman.

DBko trenean ohatu orduko oihartu zen Nolwenen urrutizkinaren turruta bretainiarra. Louise Ebrelen kanta puska bat jarria zuen soinu. Preziosen izena jazarri zitzaigun.

– Moura villaren atarian bada mugimendua! Zin dagizuet... Haizea bortitza da eta uhinak apokaliptikoak. Non zaudete?

– Saarbrücke aldean. Errazu Prezios: Daniel ere Julietarekin eta Marietarekin dago?

– Bai. Hiru dira. Borta banpez hertsi dute. Besterik ez gaurkoz.

– Bihi eskasekin ez da irin onik ehotzen.

Loak eroan hegiko zuhur hitz berriaren unea zen.

–14–

Altzairuzko soarekiko neskatxon eder batek gidatu Porsche gris aterkigabea gelditua zen Kaiser Friedricheko su gorrian, Wilhelmstrasse panpoxera bihurtzeko. Berdea zartatu zenean abiatu zen errotak karrankaraziz, atzetik eroanez gizon ttattardunez emokatu BMW, Audi, Ferrari eta Mercedes lerroak. Autoen zaldietan zetzan sedukzioaren indarra. Hain maite nuen Janis Joplinek Mercedes Benz bat eros ziezaion otoizten zion Jainko Jaunari, lagun guztiek Porscheak zeuzkatelako eta bizitzan gogor lan egiten zuelako; ez zuen aski iraun gaixoak erregua egiaztatua ikusteko. RIP.

Oihu larriaren oiharrak iratzarrarazi ninduen. Trenean nintzen. Begiak ireki nituen. Irudi arraroz betea zen nire burumuina. Aho zokoa idor nabaritzen nuen. Ezkerraldera begiratu eta lotan zegoen Nolwen. Leihotik Frantzia erditsutako zelaiak ageri ziren. Lainoak zeru sakonetan dilingo eta estanka batetik bestera biribilkatzen zihoazen hari elektrikoen kurba uhergarriek gatibatzen zidaten arreta. TGVko jargia hertsiaren kantoira eskapatu zitzaidan Frankfurteko gelto-

kian erosi liburuarekin tematzen nintzen. Michael Kumpfmüller idazleak tuberkulosia antzeman zioten Franz Kafka zoriontsu moldatu zuen azken amodiozko istorioa kontatzen zidan eta, naski, muga zehargiak eta kez setiatu industrialdeak zeharkatu arau, Dora Diamantez maitemintzen ari nintzen nihaur ere. Doraren besoetan zendu zen Kafka gizagaixoa. Malkoa perlatzen sentitzen nuen begi hegian.

Kontrolatzaileak bagoiaren loeria astindu zuen. Ahots zakarrez billeteak eskatu zizkigun. Punpaz esnatu zen Nolwen:

– Non gaude?

– Ez dakit. Tours eta Poitiers artean, nonbait.

– Eta zu? Kafkarekin beti?

– Amets lakarrak dagizkit abiadura handiko trenetan. Janis Joplin begietsi dut Mercedes Benz baten bolantean. Ezinezkoa zitzaidana. Eta galdera zaharrak muina urratzen dit: *warum Wiesbaden*? Orduan Kafkaren maitasun izugarriaren hatzetarik nabil bulta honetan. Ez al duzu uste ikerketa nahikoa kafkatarra daramagula?

– Kilometro parrasta batera gaztigatzen gaitu eta itolarria eragiten digu bederen. Garaiz eta gorputzez aldatzeko makinarik balitz, gogotik itzuliko nintzateke

1985eko Baionako Besten hondar gaueko ordu txikietara.

– Bi lekuko geratzen zaizkigu galdekatzeko. Dupont de la Cuna eta, Donostian, Txatxo Landaburu.

– Argizaiolak piztuko dizkigute. Jimmy halaber aiduru dugu Basusarrin. Lavignek kontatuak kezkatzen nau. Oihu bat hauteman zuen: norena zen?

– Emazte edo gizon batena. Ez zezakeen erran.

– Aberearena izan zitekeela zioen.

Ele handirik gabe bukatu genuen bidaia. Lavignek oparitu riesling ardoz hantu poltsak ahurrean eta zakuak bizkarrean atera ginen Baionako geltokitik, pausatuak bezain airos: etxeko airea kilikagarria zen birikentzat, itsasoaren gazitasun hurbila usnatu genuen sudur zuloak zabal-zabalik, eta euro bat utzi nuen berinazko borta automatikoari berme zegoen eskalearen plastikozko basoan. Europan ez zen besterik entzuten berrogeita zazpi hizkuntzatan marmaratua: euro bat jateko otoi, un euro per mangiare per favore, un euro pour manger s’il vous plait, ein euro um zu essen bitte, un euro para comer por favor, ena euro parakalo, um euro para comer... manipulazio bekaitzen inaurkina aberasten zuen pobreziaren letania etengabea zen, apaletsien miseria zelako hamarkada haue-

tan munduaren azalean hobekien banaturiko ontasuna, ez Descartesen zentzu ona. Europan halaber, NDFa belaunikarazi Afrikako edo Hego Ameriketako herrialdeetan bezala, kaleko euro soilarekin iraun behar zen.

Jatetxearen parean mutiko talde bat pataskan zebilen goraki. Kasko pelatuak zituzten modaren arabera. Galtza beltzekin gizon bihurrien zapata zuriak zeramatzaten. Kulunkaz ibiltzen ziren eta besoak eihera antzera itzulikaz. Emazterik ez zen ageri. Ilunak troxatu Santizpiritu zubirantz zuzendu ginen. Zein aldeetarik jazarri zen orroa? Gambetta plazatik ala Santa Ursulatik? Lavignek ez zezakeen zehazki azaldu. Nolweni eskatu nion artxiboetan begiratu zezan, biharamunean laneko zelako. Odol tatxak edo harriaren memorian finkaturiko garrasiaren aztarnak harrapatzea espero bainuan, riesling poltsak andraideari eman nizkion eta zubiaren azpian aurkitu nintzen. Santizpiritu auzoa Baionari handizki lotzen zuen eraikinaren lehen zutoina ferekatu nuen. Noski, ezer ez zegoen. Inozentea behar zen, nire maneran, hainbeste denboraren buruan zerbait atzemanen nuela sinesteko.

Oinezkoei debekatua zitzaien tunelaren petik abiatzear nengoela, eskularru beltzez apaindu ahurra

sentitu nuen ahoan eta bi ukondo salbaiek gerritik amarratu ninduten. Nolwen deitu nuen. Erantzunik ez. Tinkatzen ninduen basaren besartean higitzen nintzen xarbo sotila amuaren puntan bezainbat, ostikari eta marrumaz. Setiatzen ninduten hiru izakiek Darth Vaderren maskarak zituzten eta urdailean ukabilkatzen ninduten aldizka. Hortzetarik isurtzen zihoakidan odolarekin nahasten zitzaidan behazuna. Jario likitsa aurtikitzen nuen eztulka. Bekaina urratu zidan zanpatzaile horietarik baten zilarrezko eraztunak. Indar eta ezagutzarik gabe hedailo nintzenean, Grezia zaharreko gorgona itsusi aurpegia mirets nezakeen. «Xahu hiz» izan zen nire azken pentsamendu arrazoitua.

– *Warum Wiesbaden*?

Sugeak botatzen zituen zotinez. Lepotik hertsatu ninduen. Hats eskasez zurbiltzen nindoala, konturatu nintzen begietarik ttantta berdeak limurtzen zitzaizkidala. Aluminio hidrikoaren gustua zuten malkoak lapatu nituen mihiarekin. Mamua zazpi zangoen eta erdian zeukan buztanaren gainean zutitu zen:

– Zer duzu beti *Warum Wiesbaden* marmaraz...

– Jakin nahi dut –erantzuten ausartu nintzaion– zergatik 1970eko Eguberri egun hartan ETAk Donos-

tian bahituriko Eugen Beilh kontsula Wiesbadenen azaldu zen sano eta salbu.

– Ez duzu hemen deus ikasiko. Infernuko ateetan zaude. Deabruaren zakur zaunkariarekin solasean. Laster hilko zara, Amaia Ezpeldoi urguilutsua! Burua debaldeko perpausez, aditzez eta deklinabidez hanpatua duzu. Eta galdera zozoz. Zertarako nahasi behar duzu euskal jendailaren iragan mitifikatua? Ez al duzu dakizkizun xehetasunekin aski? Zuk halaber abestu dukezu ostatuetan, zintzurrak eman ahala *Basabürüan Montori* famatu hura? Barkamendurik gabe zenduko zara eta nehor ez da zutaz oroituko.

– Bai, kantatu dut, hori eta antzeko beste anitz melodia txistukatu, Etxamendi-Larralde bikoteak hegaldaratzen zuen *gora jauzi ta düzü erori iuplala*... adibidez.

– Ikusten? Hobe zenuke isiltzea.

– Baina zergatik Wiesbaden? Beilh jauna ez zen horkoa sortzez. Gobernu alemanak norbait izendatu zuen Madrilekin negoziatzeko? Bordeleko kontsula? Zerbitzu sekretu amerikarrak tarteko ziren? ZDF telekateko kazetariek trukeko txanpon gisa erabiliak izatea nola onartu zuten?

– Gudariek kazetariak atxilo eduki zituzten Mainzen, Beilhek Rhin ibaia zeharkatu bitartean Wiesbadenera heltzeko. Hogeita bost egun igaro zituen herri kartzela batean, bost gutun idatzi zizkion bere familiari. Haren bizitza zalantzan zegoen ETAren baitako nazionalisten eta marxista-leninisten arteko gatazka ideologikoengatik.

– Irakurri nuen aspaldi *Saint Petersburg Times*-eko artikulu bat. Hiruzpalau egunetarik behin tokiz aldatzen zuten, batzuetan bortizki eta besteetan eztikiago tratatua zen, zaindariak ardura urduri sentitzen zituelarik. Wiesbadengo prentsaurrekoan negarrez amildu zen. Eta...

– Ez duzu dena jakitearen beharrik...

– Bai, orain gure lurretara bakea etorri delarik, dena jakitea komeni zaigu, aitortu ezinena barne!

– *Warum nicht Wiesbaden?*

– *Warum nicht Wiesbaden*?

Su txinpartak, garrasiak eta ahapezko eleak hauteman nituen. Suge gorriz emokatua neukan zintzurra. Begiak zabaltzen saiatu nintzen. Bat zerraturik geratu zen. Eskuinekoa. Sorbalda mugitu nuen. Minez larrantzi nintzen. Ohe aldean zeuden mutur luzeak oro arranguraz hurbildu zitzaizkidan. Non nengoen? Pur-

gatorioko ateetan ala? Zer zen harri-buru mehatxulari hura? Uher nekuskien paradisuaren atarian ongi etorria zegidaten aingeru begiraleak. Hila nintzen eta ez nuen gehiago berbaro trinkoen beldurrik. Ez zen gauza txarra funtsean. Bizitzan lagunak eta andraideak aspertu nituen nire ezinegon nardagarriarekin. Tanpis. Hargatik norbait falta zen linboetan. Antzara gris eraldatuaren karranka mutua libratu nuen:

– Nolwen...

– Hemen nago, bihotz. Lasai. Ubelduraz estalia zara.

– Bizirik naiz orduan?

– Bai eta nola! Kolpe galantak bildu dituzu. Beranduegi iritsi naiz zure salbatzeko.

– Aaai...

Batek eriaz balakatu ninduen. Prezios Marlenekin zen, amoros. Zoko eta Deborah harriturik ziren. Xanpari loriatzen zen Scully kanixea. Preziosen ezpainak higitu ziren:

– Izutu gaituzu. Nolwenek helatu gaitu. Trenpu txarrean zinen. Suhiltzaileek ospitalera eraman nahi zintuzten, baina «etxera etxera» mailukatzen zenuen tai gabe. Bosgarren solairu honetara igo zaituztete andetan.

– Argi gorriak, tuta lanzinanteak, aho zabal kalakaria, sugeak eztarrian. Orratzaren zizta eta makina elektroniko koloretsuen tzika-tzika jarraikiak.

– Sokorriak laster etorri dira. Eskerrak. Zer da daramazun hitz isuri melenga hori?

Zokok zapia eta djellaba brodatua ozkan jarriz, Deborah-ren soa bilatzen zuen. Herioaz harainditik itzuli Scullyren zaunka bipilak ninduen orobat zoratzen. Iharduki nazan desiratzen zuen garbiki. Burua plegatu eta pikura, pilula, banda meta eta erremedio ezberdinen azpian Nolwenen zerbitzuko pistola ikusten nuen, beltz bezain mehatxagarri. Egarri nintzen. Marlenek sabaia hezetu zidan ozonoaren zuloarentzat egokia bide ez zen lanbrogailuarekin. Mintzamena trabatzen zidaten hanturek eta matelako zauriek. Adiskideak estereo moduan zetozkidan:

– Ohean zaren arren, ttantto bat irabazten doa gure jokoa. Süper da guretzat.

– Ahaaiaiaa...

– Isil zaitez. Eta ez mugitu, *merde!* Darth Vader itxurako erasotzaileek ihes egitean gutunaz hornitu dute zure gorpuzki zaurituaren saihetsa.

Scullyren harat-honatek zorabiatu egin ninduten. Preziosek bere besape oparoan tinkatu zuen abere-

txoa Deborah-ren afruntua sustatuz. Ile mototsk kardari hasiko zirena? Bali nuen ezkerra altxatu nuen tregoa deiez. Nolwenek azal gorriarekiko letra zabaldu zuen:

– Zehatz ez dezakedan egunkari baten hizkiak erabiliz osatu testua dago paperean etzana. Kalitate eskaseko kola zuriarekin itsatsi dituzte zatiak. Sukalde zabarretan landua da, gurin eta kafe tatxak lekuko. Ogi pikorrak aurkituko nituzkeela segur naiz...

– ...eta zer dio paper madarikatuak? –Zokoren ahotsak Nolwenen zerrendatzea ebaki zuen.

Scully okerrez zinpurtzen zen. Andraideak kidearen ikara nabaritu zuen:

– Bai... Gutunean datzana. Lau ele, zero frankorekiko zenbakia eta eskakizun bat: NON DIRA 400.000 FRANKOAK? Zer? Nor? Nondik? Nora? Norekin? Misterioz bete aho geratzen gara. Urrats bi aurrera eta sei atzera Ziburuko kaskarot alegeren pare. Amaia, sarea bota duzu itsaso uhertuaren uhinetara. Uzta meharra da, baina radarrek iragartzen duten arrain saldoarengana goaz zuzen...

– Hau bai dela poliki errana... –erantsi zuen Zokok, Scully Deborah-ri pasatzen ziola zorri-zaku arrunta bailitzan.

Hauteman ez nuen Marlen herabearekin begi-keinua trukatu eta Zokoren berrestea interesatua zen. Hatz potolo beltzaranaz Wiesbadendik ekarri riesling poltsak erakusten zituen. Basoak koskatuz, Alemaniarako bidaiaren bilduma egin zien Nolwenek. Prezios eta Zokok Angeluko Moura villaren zelatatzearen emaitzak agertu zituzten. Mintzatu gai nintzelako, ohe gainean bermatu eta berriz gorde nintzen mihiseen erdian, zazpi burudun piztiarekiko elkarrizketa niretzat atxikiz: bost axola Beilh kontsula eta Wiesbaden. Segundoan aldameneko ahurrak sentitu nituen, soinean geldirik egotea gomendatuz. Pairamenaren lur lehorrak udalantzen zituen hausnarraren goldeak. Janaren oihuaren oiharra entzun ote nuen Santizpirituko zubiaren lehen zutoinean? Nire dolorearena zen soilik? Irudipena hatsanka zerabilkidan minaren eraginez.

Adio erran zigun Nolwenek. Lanera zihoan. Kontatu zidanez, pistola eta komisario txartela ateraz zirtzart haizatu zituen atakatzen ninduten Darth Vadertarrak. Nehork ez zekien nondik jazarri zitzaizkidan. Komando zital eran bazterretan izua barreiatzen ote zebiltzan ala Jana Elgebeltzen desagertzearen aferarekin zinez lotuak ziren? Noren panpinak ziren? Eta oro-

korrean nola ez nazakeen maitatu, laztandu eta ohoratu hain ausartuki salbatu ninduen emakumea? Eztarri karraka etsituaz hizketan jarrai zezatela ulertarazi nien lagunei: pika belearen piu-piua zuten hasten zirenean.

–15–

Arranpaz malgor esnatu nintzen. Begiak nekez irekitzean eta Scullyren txanpa xeherik ez entzutean, iragarri nuen adiskideek, ainarek larrazkenetan bezala, lekuak hustu zituztela lotan nengoela.

Nolwen bere bulegoan zegoen. Norbaiten eskuukaldia onartuko nuen ohetik altxatzeko. Trinkili-trankala jaiki nintzen eta sukalderatu, batetik ziperraren arintzeko erremedioak irenstearren eta bestetik goizetan premiazkoa nuen kafe beltz-beltzaren berotzearren. Leihotik beha geratu nintzen: nork zafratu ninduen?, zergatik ezkutatzen ziren Darth Vaderren maskaren azpian?, zer zen diru istorio hori? Puska ederra zen gero! Kafe makinaren burrunba hatsankaria hauteman nuen. Kikaretara gotorra bete eta mirailaren parean plantatu nintzen: bandez eta ubelduraz josirik, ez nuen seduzitzaile aire izpirik.

Zerbitzua eguerditan bukatzen zuela berresten zidan Nolwenen hitza aurkitu nuen mahaian. Oporretan nintzen ni neu. Ohargarria zen astebete jada elkarrekin izanki eta lanarengatik apurka baizik ez ginela juntatzen. Ordutegi zitzikatuak genituen, sendien

iraupena bera zalantzan jartzeraino. Lana, familia eta harreman sentimentalak baino garrantzitsuagoa bailitzan. Elediak bukatzean betidanik aditzen nuen:

– Zertaz kexatzen zira? Ahalkeizungarria! Lanaren edukitzeaz pozik behar zenuke. Gainera argi dago alferrentzat baizik ez dela lanik...

Irri gordinez lehertzen zitzaidan mintzaidea. Munduko zirtorik erranguratsuena ahoskatu bailuen. Baina egiaz ez zen erraza. Nolwen nahi nuke aldamenean 24/24etan, gauez eta egunez, egunez eta gauez. Bereziki kinka larri honetan etxean gelaz gela herresta nindoanean. Jakizu, irakurle, azkorri berantiarrean ez nituela zapata arrosak oinetan eta Osasunari zortzi ttantto sakatu zizkion Barçaren kapelua buruan, ibaiak gurutzatzen ziren hirian lasterka izerditsurik egiteko gutiziarik. Panpina hautsia nintzen. Eta ez nekien zergatik. Nolwenek agian arrapostua ekarriko zidan, ezen Poliziaren artxiboetan eskualde honetan agitu banku ebaste edo bestelako sos trafikoren herexak bilatuko zituela segurtatu baitzidan. Aski nuen igurikatzea. Prestuki.

Baina ezinegona nuen. Hamarrak ziren. Zokori telefonatu nion. Berehala etorri zen, makulu urdinak eskuan, bakarrik. Mailetan behera jaisten lauhazkatu

ninduen, kopeta zerratzen zion oihala ahurraz atxikiz. Hegi brodatuekiko bela hautatu zuela konturatu nintzen. Zoragarria zen. Deborah zorte onekoa zela neritzon. Sanandresko aparkalekuan zeukan autoa. Matoarekin funtsean aiseago ari nintzen, zahar kurkuildua ematen baldin banuen ere. Ezagun neuzkan lau herritarrek, agurtzean, lelo berdina berritzen zidaten:

– Zeeer? Senarrak joa ala? Merezi zenukeelako? Gauzak ez dira debalde agitzen. Dena dela, ez zaitu huts egin...

– Senarrek emazteak derrigor ukabilkatu behar baitituzte? Nondik duzue sineste zakar hori?

– Gure amen denboran horrela zelako dizut erraten. Emazteak eta haurrak larderia pean atxikitzen ziren.

– Ez dut senarrik.

Emazte mozkoteak marrumaz ari ziren. Batek zioen: *baluke ba baten beharra!* Eta besteak erreferaz: *xuxen martxatzeko alaina...* Atso laukoteari ez niolako duinki erantzun, Zokoren erasiak erdietsi nituen autoan sartu eta Basusarriko norabidean urtzean. Adinekoenganako errespetuak mugak bazituen edozein kulturatan, nire ustez. San Leongo borobileko suetarik batean geratu ginen. Jean Dauger zelaia

neurtu nuen begiz: hondar derbian axolagabea eta inuzentea nintzen. Daniel Elgebeltz hurbiltzera utzi ez banu, libre nintzatekeen arras. Ordez kolpaturik nenbilen: zuela mende laurden pasako Janaren desagertzea misterioa zen, eta iruditzen zitzaidan zango-sagarretarainoko lokatzean nindoala, trunpiloen tipitapa kakolatuz. Zokok, DG markako betaurrekoak sudurrean pinpirin, begiratu ninduen amultsuki.

– Zurekin noa Jimmy Sevranen kofesatzera. Zer gerta ere. Mesfidatzen naiz.

– Mila esker, Zoko. Zorretan nago zuekin.

– Ez da zorrik adiskideen artean.

Ona zen Zoko, Ben Aliren atzamarretik askatu berri zen Tunisiako gozoki sukratua bezain. Barre minberatsuz zirrimarratu nuen matelaldea. Europako buruzagi gehienentzat, zorra hiritar arruntenen gaztigatzeko eta biluzteko aitzakia baldin bazen, Wittig tabernan biltzen ginenontzat, bizitza bastatzen zuen oparia baino ez zen. Minarengatik mututasunez tinkaturik, zorraren estakuruz gaiaren ileetan zorriak nituen bilatzen.

Jimmy Sevranen gazteluranzko xendrako zuhaitz makurtuen lerro bikoitzaren erdian pentsamendu-tximistak zitzikatu ninduen: Zoko, Benji, Derartu,

Cheirch, Ilham, Hicham, Nguyen, Mbonbo edo Shirim ez balira gure artean, hutsa eta pobrea liteke mundua, zaporerik, kolorerik, soinurik eta usainik gabea, segurtasun (in)finitu meta nazkagarria, muturretaraino larrutuko gintuen biolentzia birla, hots. Ez zuten migranteek lurra xurgatzen, desorekatzen, izpirituz hutsalagoa moldatzen, nagusi politikarien zakur fidelek saturatu irrati-uhin zekenetan ardura entzuten zenez. Zokoren esku-azalean musua pausatu nuen.

– Uste dut heldu garela.

Baratzeko hesiak aizolbetu zuen Zokoren Clio makatua. Ezkerraldetik ihiztorren zaunka gosetiak hauteman genituen. Pirinioetako alimaleko zakur zuria hurreratu zitzaigun garaila xehean ibiltzen hasi orduko. Makulurik ez nuen higitu. Zoko saihetsean dardarez nabari nezakeen. Ez ginen sobera fida.

– Vicious! Tegira... agudo! –gizon mehakoilak pozik zirudien–. Vicious? Nire iragan punkia ez ahanzteko. Jimmy naiz. Jimmy Sevran. Musika ekoizlea. Zatozte eta hemen zergatik zaudeten esplikatuko didazue.

Hollywoodeko zinema alorreko marrazoen maneran karkazail gurintsua bihikatu zuen. Urrezko diskoak zeuden hormetan zintzilikaturik, zilarrezkoak, bron-

tzezkoak, platinozkoak, Mendeleieven taula periodikoaren 118 karratuetan kokatu metal bakoitzeko borobilak. Trenputxartuko nintzela sentitzen nuen. Iraultza Aurreko aulki erosoa proposatu zidan Jimmy Sevranek.

– Eta?

– Jana Elgebeltz gaixoaren kotxea skuatatu zenuelako nahi zintugun elerran –zintzurra karrakatu nuen–. Janaren desagertzea ikertzen ari gara.

– Astakeria franko egin nuen eta genuen gazte denboran, baina ez genuen nehoren bizitzarik kaltetu. Badakizu... Nola deitzen zara?

– Amaia Ezpeldoi, zure zerbitzuko.

Gizonak egun latzak pairatuak zituen, alkoholez, drogaz eta borrokaz mozkor. Labankada ugarien orbainek salbaitzen zioten kopetaldea. Zakilots taldearekin mugaren bi aldeetako taberna likitsenak udalandu zituela aitortu zigun harro. Soka hautsiekiko gitarra zaharra lekuko eskumenean:

– Nahi baldin baduzue gure *hit* bat joko dizuet...

– Ez, mila esker, Jimmy. Gosaldu berriak gara.

– Euskaldunegiak zarete kalitatezko musikaren estimatzeko.

– Pentsa! Alison Krauss eta Anari dabilzkit buklean auto-irratian –oldartu zitzaion Zoko–. Eta dakusazunez, ez naiz hain euskaldun zintzo, suhar eta plantta-koetarik.

Oilarkeria bulta ahitu zitzaion. Jimmy lasaitu zen. Mintzatzen ahal ginen serioski. Ilaina inarrosi nuen:

– Janaren Renault 12 berdexka zure habia izan zen bi hilabetez bederen. Zer ikusi zenuen? Segur naiz gauza anitz begimendu zenuela.

– Maiz mozkor izan arren, ez nintzen itsua. Eskale alfer eta urrintsuez gain, gauez bereziki, jende bitxiak hurbiltzen zitzaizkidan. Atzeko jargietan kuzkurtzen nintzen. Taldean zetozenek nire presentzia sumatzen zuten eta zaplakoz kanporatzen ninduten. Labana erabil zezaketen. Beldur handiko uneak jasan ditut Janaren beribilean. Espero nuen, jabea noizbait sekretuki itzuliko zela. Polizia etorri zen eta preso eraman nin-duen nireak ez ziren puskak andeatzeagatik. Hiru hilabete iragan nituen kartzelan. Eta urte erdia baratze zain. Preso lagun ohiekin, dirua zein ospea ekarri zigun Zakilots taldea sortu nuen. Kartzela onuragarria gertatu zen niretzat. Gainera, ama egun oroz zetorkidan bisitan Villa Chagrinera...

Zoko eta biok jargia nasaietan iltzatuak ginen. Ez zigun bada bere bizitza mindulina osoan kontatuko? Saihets hezurretako mina iratzartu zitzaidan: ai ene! Bekaineko banda aldatzekoa nuen. Epel eta mamitsu isurtzen zihoakidan odola hatzaz balaka nezakeen.

– Senarrak jo zaitu ala? –Jimmyk.

– Ez baitezpada. Eskaileretan erori naiz.

– Hori diote denek.

– Goazen harira: argazki honetako norbait autoaren inguruan kukuxka zelataturik gogoratzen zara? Garrantzi handiko afera da.

– Aurpegiak arrotz zaizkit... Baina... zaude... trenbideko pezoiaren gibelean txülüla jotzen ari nintzen gau batez... lau kide maskaratuk nire gordagia aldrebeski miratu zuten. Ttottogien peko eta kofreko tapizak idoki zituzten errautsarekin batera. Zerbait bilatzen zuten... errabiaz.

– Droga? Armak? Dirua?

– Nola nekike? Polizia sekretuak ziren. Laurogeiko hamarkadan karrika kantoi guztietan espioiak zutuntzen zirela jakina da, bereziki GAL taldearen hilketa sailetik lekorako hilabeteetan. Non bizi zineten bada zuek?

– Ni, Porte d’Ivryn eta Zoko Carthagon.

Erantzunaren estrainioak harritu zuen Jimmy. Ninikak betzuloetarik jazarri zitzaizkion ping-pongeko pilotatxoak bailiran. Ez nuen ulertzen zergatik, ezen Ivryz eta Carthagoz beste leku sordeiagorik baitzen lurraren azalean.

Ahoa zabaldu zuen kopeta ezkel:

– Azkorri batez argazkiko bi emazteak aurrandetu nituen Santizpiritu zubitik Renault 12raino. Biratu eta laburki ele elkorrak trukatuz alde egin zuten. Triste eta etsiak ziruditen.

– Eta gero?

– Lagungarri zaizukeelakoan: lau maskaratuetarik bat enano zaintsuaz segitua zebilen eta abere erraldoi bodybuildatua zen... begi bakarra zeukan kopetaren erdian... Biharamunean berean jin ziren hedexuriak autoa eta bere jabea lekutzera. *Manu militari*. Skuatetako espultsioak hala egiten baitziren.

Bezperako zauriek pairamena biderkatzen zidaten. Artamenduen tenorea nuen. Jimmy agurtu eta kotxean sartu ninduen Zokok. Alison Kraussen *blues* zohardia belarrian, begiak hertsirik, hasperen eta intziri pilota bat nintzen. Santizpiritu zubian atakatu nindutenen gorputz traken soka xerkatzen nuen memorian.

Ez zen aise, Darth Vader zaleek atzetik harrapatu nindutelako.

Auhenez leher eginik, Jimmyren erranetarik atera nezakeena laburbildu nuen: Janaren ibilgailu alboratuaren tokitik, antza, jende mota ezberdin asko pasatu zen. Garai hartan, irudiz, Janaren familiaz gain neskatxaren destinuaz bereziki interesatuagorik bazen bazterretan.

–16–

Oren erdia eman nuen etxeko bosgarren solairurai-no igotzen. Pisu bakoitzeko gune lauetan gelditzen nintzen pausatzeko eta besoetako zein saihetsetako oinazeak jabaltzeko. Giltza sarrailan kokatu nuen hon-darrean. Nolwen egongelan zegoen, paper meta handi batekin borrokatzen. Hostoak zoladuran ere barreia-tuak ziren.

– Aspirina bat behar nuke. Buruko mina jauzten zait. 1985etik 1991ra lau banku ebatsi eta bi aldiz atxilotu ziren ETAko Iparraldeko maleta eramaileak. Jana ez da ageri ez atrakatzaileen artean, are gutxia-go erakunde armatuaren faborez gordean ari ziren mugaz honaindiko hiritarren artean.

– Deabrua ikusi dut eskaileretan gora.

– Beherean jotzen ahal zenuen! Zure bila joango nintzen.

– Ez nekien sartua zinenik.

– Hori dakar mugikorrik gabe ibiltzeak.

Barre egin nion. Biktimak errudun zirelakoa zen mende berriko irakaskuntzetan lehena. Nolwenen as-pirina eta nire erremedioak apailatu bitartean, lotura

izpirik ez zuen noski, DSK likitsa telebistan pasatu biharamunean Zokok zilarrezko platerean eskaini prediku kexatuaz oroitu nintzen:

– Ez du deus argitu, huts morala zela baizik eta barkamendurik ez. Sexu harremana irun zutela baieztatu digu. Ez bortxazkoa. Ez ordainduzkoa. Tximistakolpezkoa ala? NDFko nagusi tripandiak adostu bortxaketa zena? Nafissatou Diallo sehi ginear pobrea gezurti errea bailitzan. DSK gaixoaren borreroa Nafissatou... Puxantaren ustez biktimak bide zuen Rykers Islandeko kartzela dastatzekoa... bazauna?

– So egiten baitun oraino horrelako pilixkakeriei?

– Pilixkakeria baino gehiago da: emakumeen bortxaketa zigortu gabe geratzen ahal dela erran nahi baitu, pantailaren aitzinean datzan jendetza urrikalduaren benedikatzearekin gainera. Barda arratsean emazteen oinarrizko eskubideak zangopilatu dituzte DSK eta Chazal andereak zuzenean. Bazekin? EZ denean, EZ da... funtsezko lema.

– Zer egin dezakegu?

– Haserretu bederen.

Ezpainetako sarraskiagatik musu epela lerrarazi nuen Nolwenen aho izkinan eta aspirina zekarren basoa mahai ertzean utzi nion. Nolwenek arrazoi

zuen. Zokok arrazoi zuen. Ez nuen baitezpada arrazoia nire alde plegatzea bilatzen. Sufrikarioak minberago moldatzen ninduen. Ez zitzaidan gustatzen eri edo trauskil izatea. Kanapean jarri nintzen:

– 400.000 franko. Berri ala zahar? Orduko jada zerbait zen. Eurotan ere kontu korronteetan edukitzea ez litzateke batere gaizki. Etxe batez jabetzeko. Edo bizitoreak garenez Janis Joplinek behin zerrendatu kontsumitzaileen amets arruntak betetzeko, hala nola Mercedes Benz baten erosteko, home zinema erraldoia eta mozkor gaua hiriko hotel merkean elkarri oparitzeko. Merezi dugulako...

– Ez zara sekula isiltzen zu?

Ez, ez nintzen sekula isiltzen.

Logelan neukan bulegoa. Ordenagailua piztu nuen. Euskal Herriko mendi tontor hautatuetako argazkiak miretsi nituen behako borobilaz. Eguzkia. Malda latzak. Iratzeak. Urrunago Ogellako harriak. Nire mundua zen eta, mineraltasun horretan bermatuz, noiztenka hegaldatzen ahal nintzen planetako edozein habietan gerizatzeko. Nolwen okupatuegi ez balego, nire barneko egia beritablea aitortuko niokeen: gurbiltasuna, desertua eta mututasuna bilatzen nuen. Dei larrantzia hauteman nuen.

– Zertan da Euskal Arazoa?

– Euskaldunentzat ez da halako arazoa, badakizu. Arazoa da bereziki hizkuntza eta lurraldea onartu nahi ez dizkiguten auzoko gobernarientzat.

– Egundainoko arazoa izatea ez da erakargarria. Irakurri dut armen tregoa iraunkorra eskaini zuela ETAk iragan larrazkenean eta Bildu deituriko alderdi politikoaren tsunamiak eraman zituela Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako herri aborigenak. ETA armen baztertzera doa, ez?

– Atzerritar batentzat nahikoa ongi informatua zara!

– Interesatzen naizelako, bihotz taupadak Louise Ebrelen Kan ha diskan kanta ukigarrien arabera neurtzen ditudalako, sortzez euskalduna ez izan arren, egoera uler dezakedalako, Kergelendarrek sustraiak Enez Eussa uhartean dauzkatelako.

– Mertzi anitz! Gauza bat: uste duzu menia indarrean eta bakea hurreratzen daudelako dela Daniel Elgebeltz bere arrebaren xerka atrebitzen? Zer diozu ideia horretaz?

Ilse Traumberg psikologoa berrietara zetorren. Maurizioren pizza zekarren ketan bazkal ordua pasatua izanagatik.

– Nola sentitzen zara, Amaia? Bendak aldatuko dizkizut. Pilulak irentsi dituzu? Goizean ohean egon zara arauz?

– Bai... Baina ez... Jimmy Sevran elerran dugu Zokok eta biok. Minez kiribildurik jaso nizkion agerpenak. Julieta eta Marieta Janak aparkatu Renault 12aren herexetan arriskatu ziren. Preziosek kontatuaren arabera, Wiesbadenen ginenean, bi emazteek hitzordua zeukaten Elgebeltzen Angeluko egoitzan. Sotoan berdin...

– Amaia –Nolwen zen–, sotoan ez zegoen ezer. Erran dizut. Bi errekerituak solastatzekoak ditugu, bereiz eta batera. Komisaldegira deituko ditut. Eta zuk jorratuko dituzu zerrendan ditugun hondar lekukoak.

– Donostiara joango naiz. Harritu egingo da Txatxo, Janaren izena ahoskatuko diodanean.

– Zu ez zara hemendik mugituko –Ilseren boz eztia zen. Larderiatsua aldion. Besoetan tinkatu ninduen. Bularraldeko hezurrak kraskari nabaritu nituen. Tony Montanaren pare begitartean labana-orbain bat nuelako irri amultsuz zartatu zen–. Ez zara gertatu zaizunaz hobendun. Sendabideko lehen urratsa da. Eta bigarrena, errazagoa, atsedenaz gozatzea.

– Ezin dut.

– Nola ezin duzula? Donostiaratzeko baimenik bederen ez dizut emango.

– Tarnoseko Metro hondartzaraino ere ez?

– Bakarrik ez. Prezios eta Zoko lanpetuak dira. Nolwen burumuin xurgatzen dabil paper horitu horiekin.

– Eroan nazazu zuk, Ilse! Otoi! Baitezpadakoa da.

Apartamentu txikian, kaiolan entzerratu sagutxoaren maneran, hapataka higatu zen Ilse Traumberg geniala. Banekien nire eskakizunari ez ziola ezetzik botako. Wall Street, Frankfurt eta Bartzelonako burtsen sarrera arduragabeko aferagileei trabatzen zieten *Indignats* edo *Occupy* oldeetako kidegoko baionarrek udaberrian okupatu Pelletier plazara so geratu zen Ilse. Hausnarrean. Ez nekien ordea zerk zuen gehien axolatzen, Parisen barna Bruselara zihoazen Madrilgo suminduak poliziak zurratzeak edo Tarnoseko itsas ezpondara berehala nire lauhazkatzeko premiak. Lepoan zeraman gurutze judutarra hupatu zuen. Erabakitzea zaila zitzaiolako marka.

– Joango naiz... Baina gero pausatu egingo zara. Bihar arte gutxienez.

– Nahi duzun guztia.

BobleLur bilatzaileari esker lokalizatu nuen Txatxo Landabururen Izarraitz liburu-denda. Donostia hiri er-

dian zegoen. Kontxari baino geltokiari hurbilago. Goizeko trena hartuko nuen lasai. Mugaren bi aldeetan bazebilen jendetzaren partaide anonimoa baizik ez nintzatekeen. Pazko bezperan Hegoaldeko hiritar franko bazen Lapurdumeko karriketan, Donostiatik edo berdin urrunagotik, dendetako alegiazko eskaintza aberatsak eta Cazenaveko txokolate uhinak preziatzera etorriak. Burua ezker-eskuin mugitu nuen lepo-hezurren egituraren on-gaitzak haztatzeko. Ez nuen minik. Doi-doia, hatsa ebakitzear, besoa edo burua altxatzean.

Bat-batean presatuak ginen. Ilsek ekarri pizza moztu eta Nolwenek, paper zama urrintsuetarik ateraz, entsalada olioztatuarekin klikatu genuen. Kafea banatu zigun.

– Segur zara ongi zarela?

– Gero eta hobe nago. Latza litzateke ez sendatzea, ditudan adiskide bihoztoi hauekin.

– Gutaz ari zara? –artekatu zuen Ilsek–. Ez gara beti zure meneko egongo. Kotxe bat ere behar zenuke.

– Mercedes Benz bat?

– Alafede, Amaia... neurririk ez duzu!

Ilseren heiagoraz jabetu nintzen eta Nolwenen kikizai estofatuaz. Kasuz eta kontuz jaitsi ginen. Pannecau karrika eroslez betea zen. Ahantzia nuen derbitik landa Xingar Feria antolatzen zela Baionan.

– Ez da arraileriarako, Amaia; auto baten premian zaude.

– Darth Vaderzaleek nire balizko hilotzaren ondora aurtiki gutunean aipaturiko 400.000 frankoak sakelan banitu...

– Beribil eroso eta merkeak badira merkatuan.

– Ibilgailurik gabe irautea erabaki nuen, 4L maitagarria Errobiko aparkalekuan errautsi zidatenean. Printzipio zozoa dela badakit, garraio sare publikoa ez baita hain garatua. Baina erreparatu ezazu gure bizimodu neoliberalak autoa noraino duen ardatz. Hiriak, etxeak, supermerkatuak, ausagailuak, zerbitzuak, amodio istorioak, espazio guztiak lau errotadunen zerbitzuko antolatuak dira. Halaber autoa: argi dago estatuen, petrolio alorreko multinazionalen eta aseguruenpresen behi esneduna dela. Gabetarik halatan nire karbono-tasa apalenean datxikat...

– Santizpiritu zubia oinez zeharkatzean karbono monoxido metak irensten dituzu... Eta zure lagun kutunenen ontasunaz baliatzeak ez zaitu kezkatzen?

– Paradoxaz betea naiz. Eta arranpaz.

Baiona iparraldeko bidean geunden. Porturantz. Barra aldera gindoazen. Lantegiz ttakatu Aturri hegiak desertu ziren uharren meneko. Bokaleko borobilean Tarnoseko norabidean eratorri ginen. Julian Grimau karrika. Munduan menturaz geratzen zen Lenin izeneko etorbide bakarra. Fabriken tximinietako kea hodei grisekin nahasten zen, altzairu urrina airean barreiatuz. Itsasora irekitzen zen Txirlinga zoroetxeko lobiroan eho zuen Ilsek behiala eztabaida iturri debalde suertatu Toyota abila. Eskuineko borta zabaldu zidan. Euritakoa luzatu. VIP ohoratuei hedatzen zitzaien tapiz gorria baizik ez zen han eskas... eta zu, maitea, bistan dena.

Ilsek gerritik zurkaiztu ninduen, matoa neramala ezkerreko ahurrean, miresten nuen *Dr. House* ezagunaren moduan. Ez zen irriz zapartatzeko kinka. Marmol zurizko lau maila igo genituen eta berinazko atea bulkatu zuen adiskideak. Harrera gelakoak super okupatuak ikusten genituen. Zaindari edo erizainak zirurika pasatzen ziren. Burua altxatzen zuenak berehala apaltzen zuen zer edo zer amoinatuko genion beldurrez. Ulergarria baitzen, nehork ez zuelako maite la-

nean trabatua izatea. Garbiketaz arduratzen zen andere beltzaranak helatu gintuen:

– Norbaitekin geratuak zarete? Ez da zuetaz nehor axolatzen?

– Badugu astia. Deitu dugu. Aspaldian hemen dagoen Dupont jauna elekatzekoa dugu.

– Baiips... Mattina, errazu, jendeak badira hemen...

–17–

Lantxurdak gogor jotzen zituen Txirlinga egoitzako bitrak. Mattinak, gibeltoka baina, Dupont de la Cunak kartzelatik ateraz geroztik etxetzat zeukan ganbara biluziaren sarreraraino eraman gintuen.

Gizon mehakoilak ireki zuen herabe. Irri izutua marraztu zigun:

– Etorri zarete beraz?

– Bai. Galdera soilarekin. Ez da luzea izango.

– Goazen itsasertzeko jargia horretara. Barnean baino egokiago garateke. Lokaztegi latzak inarrosiko dizkidazue. Berdin da. Intzeskatu behar dut nik ere.

Gure gidari zebilen hinki-hanka. Kanpoko euri xehea, hurbilean susmatzen ziren Atlantikoko uhinen bitsarekin uhertzen zela ziruditan. Zuriz bezti zebilen Dupont jauna, konkortua arras, larrua beilegi eta begiak leze. Txorimaloa ematen zuen itzulikatzen zenean. Aterpe eskaseko ttottogiara heldu ginen.

– Zer zen jakin nahi zenutena?

– 1985eko Baionako Besten azken gauean Santizpiritu zubiaren Gambetta plazako puntan aurkitu zinen. Zer ikusi zenuen egiazki?

– Memoria ezabatu zait pixka bat. Ez naiz denaz gogoratzen. Poliziek gainera anitz eskatu zidaten, lau neska gazte haien heriotzaz hobendun egiteko hondarrean. Presondegian igaro nituen hamabost urte. Libratu ninduten bortxatzailea Adam VanVries holandesa zela frogatu zenean. DNA hatzetarik alabaina.

– Zer zenuen aurka?

– Hiru emazteen hilotzen aldamenean nintzen aldi bakoitz. Bitxiki. Kointzidentzia hutsa zen. Beste lau kide halaber atxilotu zituzten premiazko lekuko gisa. Atxilotu eta epaitu egin ninduten. Ez nuen ihardukitzeko indarrik, are gutxiago sostengurik. Une batetik hara merezi baizik ez nuela pentsatzen hasi nintzen: zer nuen bada eratorrian inguma gisa biribilkatzeko jaidura txar hura? Negarrez hautsi zen Dupont de la Cuna. Aurpegia gordetzen zuen esku ahurrez. Elkarri so geratu ginen Ilse eta biok. Behatzaz orraztu zituen lantzerrak busti ile grisak eta solasari berrekin zion hitzak mailukatuz:

– Baionako Besten gauean erran didazuen tokian kausitzen nintzen. Jana zubian gora etortzen begietsi nuen, bere adiskidea zirudien emazte bat segika zebilkiola. Eskuinera bihurtu zen.

– Oihu garratza iragarri zenuen?

– Bai eta nolakoa.

– Sangreatzen zen emakume batena zen?

– Ez. Alimaleko aberearena zela uste dut. Betezpalak apaldu nituen eta zainetan odola ihesean irudikatu nuen. Beranduago, gizon saldoa nerraikan gorputza izan zitekeen pakete astuna lekuz aldatzen.

– Janaren hilotza zen?

– Beharbada bai. Ala ez. Nola segurtatu? Gaizkile banda plazako zuhaitzen itzalean zegoen. Jotzeko prest. Amets uherretik iratzartu nintzenean, ez nuen ez gizonen ez zubitik zetorren emazte haren hatzik nehon sumatu. Ezezagunak izanagatik, eder liteke lagun proximoez amiñi bat gehiago axolatuko bagina. Mende erdia higatu eta hori da fermuki sinesten dudana.

Ilseren kopeta zimurraz ohartu nintzen. Isilik hormatu zen, *iceberg*. Iluna lur gainera zetorren gure baitara bezain. Ez ginen aparentziarik ere zepotik jalgitzen ahal. Lekukotasunak Santizpirituko Gambetta enparantzan urtzen zitzaizkigun. Norbaitek nonbait gurutzatu bide zuen Jana? Ez zen horrela desagertzen ahal hatzik gabe? Beti bazen zer edo zeren jakinean zebilen begi gose edo aza-belarri bat. Zergatik ez zen hainbeste denboraren buruan zerbait agertu, ez dakit

aztarna bat, Aturri ibaiaren azalean beso usteldu bat demagun itsasora lehian? Nolaz ez zuen nehork Jana bilatu duela gutxi arte? Argazkian gatibatu bederaren iritziz, erakunde armatuan sartu zen liberatu gisa. Eskakizun gehiagorik ez. Normala bailitzan. Hargatik, nioen nirekiko, Duponten mututasuna ez inarrostearren, ETAren zerbitzuko jartzen zirenak noizbait azaltzen ziren poliziekiko tiroketetarik landa hilak edo burdinak eskuturretan auzitegietara hegazkinez abian. Gudariarentzat bigarren aukera zitekeen, naski, hoberena. Janaren kasuan, ez bat ez bestea. Zer orduan

Xehetasun bat oraino eta Dupont de la Cuna bere mamuekin bekoz beko utzietsiko genuen. Ikaraz ari zen, lanbroa jada indartsuago bihurtzen zihoala. Apirileko haizeek erraztatu duna biluzien arerio itsasoa marrumaz garatzen zen. Txirlinga egoitzako arduradunak solaskidea bere izenetik deitu zuen. Besondoan pausatu nion eskua:

– Zaude. Gizon saldoak begitarteak agerian ekin zuen edo maskaraturik? Zer diozu?

– Telesailetan azaltzen diren ohizko terroristek daramatzaten burukoak zituzten. Beltzez jantziak ziren. Zaluak eta zainartak gainera. Lauzpabost zenbatu nituen. Zorigaitzez ez dakit hori guztia ez ote zen ames-

gaiztoa edo benetakoa. Plazer nuke zuen argitzea, baina pilulen tenorea dut. Aski duzue zehar xendra horretarik aparkalekuraino zulatzea.

Agurrik erran eta eskerrak eman gabe urrundu zen espektro arin bilakaturiko Dupont de la Cuna jauna. Sorterriko adinekoek, gau izoztuen minean, erreka karroindunaren ezpondetan urrezko orrazia ahurrean begimendu Andere zuriaren itxura zuela erantsiko nukeen. Baina ez nintzen ausartu. Ilsek ederki larderiatuko ninduen, sineste arruntekiko biziduna nintzela azpimarratuz. Autoan tokitzean erran zidan erdi jostari erdi serios:

– Badakit zertaz pentsatzen duzun...

– Bahaia?

– Kristalezko birlak edo molde zaharreko sorginak ezinbestekoak zenituzkeela, adibidez. Ez dea hala?

– Ez zara urrun. Mirakulu baten beharra dugu, Janaren misterioa urratzeko.

Aturri hegiko lantegien altzairuzko eraikinak izugarriak ziren euri etengabearen menean. Distira antsiatsua hedatzen zuten kaietan eta Barrarainoko bide ertzetan. Esmeraldazko espaloietako justizia hamikatua edo langileria ezeztatuaren dolua zeramaten. Hemendik laster Baionak industrialde bat ukan zuelakoa

ahantziko genuen. Ikea bezalako supermerkatuak plantatzen ziren fabrikak suntsitu eta amiantoz hustu-rik. Herdoilak, errautsak, beharginen izerdiak, zapalkuntza sozialaren hautsak, duintasun kolektiboak eta metalaren tolesturek munta handirik ez zuten kontsumoaren tsunami erasokorraren parean.

Barneko lotsaren jabaltzeko Ilseri salatu nion, erabakior:

– Hondakin industrialok argazkitan hartuko ditut, debalde joandako bizitzen erakustetxe birtuala osatzeko. Bestela ezer ez da gelldituko. Jendarteak üsinetako umilazio meta horretarik deus geratu ez dadin desiratzen bailuen. Janaren kasuan nola. Bizitza bat, eta ez dakigu bukatua denez edo linboetan desintegratua, egiazki hila izan gabe.

– Deliriotan zabiltza, Amaia! Kasu! Eskerrak Baiona txikira heltzen ari garela. Etxeratu eta artatuko zaitut merezi duzun eran. Nolwen aiduru duzu agian?

– Lanean da. Espero dut oporrak bederen elkarrekin partekatzen ahalko ditugula.

– Bikote arrunten kezkak...

Ilseren lasaitasunak on zegidan. Bakarrik jardutea erabakia zuen. Arimak ustiatzeko lana eta amodioa jartzen zituen ororen gainetik. Halaz, Traumberg me-

dikuaren agindupean utzi nituen bereziki nire geldo eta klaustro fobiak. Eta aitortzekoa nuen lortzen zuela, handizki.

Etxeko atean Daniel Elgebeltzen solastatzeko gutizia gorriak puskatu ninduen. Ilseren telefonotik berehalako hitzordua finkatu nion, ohiko ostatuan, barrezka ohiko sospetxosoekin gehituz. Ilsek Robber tabernaraino ernatzea proposatu zidan. Onartzea zegokidan.

– Gaur bilduko gara Wittig Bar-en.

– Etorriko naiz. Nolwenekin zoaz?

– Bai, noski. Eta zurekin ere berdin. Eskerrak, dena dela, arratsalde honetan eman dizudan traholagatik.

– Sarri arte.

Errespetatzen diren lesbianen moduan, ez zen bakarrik zirkunstantzia literario bat, karrikaren erdian Rebecca Horn artistaren lumazko sorkuntzen arintasun gartsua zeukan musua trukatu genuen. Matoaz bulkatu nuen ostatuko borta. Han zegoen Elgebeltz, Baionaren eta Tolosaren arteko errugbi partida hastear zela telebistan. Etsai gaitza zuten baionarrek. Taldeen osaketa jarraitu bitartean ohartu zen nitaz:

– Zer berri? Baduzu berririk? Ala desesperatzekoa da Janaren desagertzearena? Jarriko gara, ez? Istripua

ukan duzu? Badakit ez zaituela senarrak jo. Zure erako jendeak gorroto ditut. Sodomatarren joera lizuna onetsi zuten zibilizazioak peko errekara joan direla badakizu arauz? Baina bego, hitzaren traukatzea bera zaila zait... Bakoitzak bere gurutzea!

– Gutariko bat bederari kalbarioko bidaldi bat doakio.

– Bikain... Orduan zer?

Ez nekien nondik hasi. Aldi berean deus ez nuen eta gauza asko banituen han-hemenka ikasiak. Eguzki artea irekitzeko partez jorratzeko nuen zeru aldea tapatzen zidaten. Eta jakina, gaurik beltzenean tximista baten fista ongi etorria zen.

Marti Izoztak eman argazkia sudur azpian ezarri nion:

– Eta?

– Bai, bistan dena: aspaldikoak eta betikoak. Txatxorekin mintzatu zara?

– Ez oraino. Zerbait irakatsiko dit? Zuk, Marietak, Julietak eta Martik gordetzen didazuen zerbait?

– Ez dizugu ezer ezkutatzen. Zintzoak gara. Julietak gurekin harremana berriz josi nahi zuelako bildu gara herenegun. Hurreratu zitzaigun Janari minik egin

ez geniolako segurtamena edukitzeko eta Txatxoz gomutatzen saiatzeko.

– 1985eko Baionako Bestetan azpimarratzea merezi zuen zerbait agitu zitzaizuen?

– Kalapita gaitza atitxatu genuen. Burutik atera zitzaidan.

– Urrats bat, urrats bi...

– Pannecau karrikan genbiltzan. Txatxo harrapatu genuen emazte pinpirinez setiatua. Mozkor oihuz ari zen: Jana behar dut, Jana behar dut... Martik ukabilka galanta bota zion kokots aldera eta hedailo ezarri zuen pixa zipo eta goitikin muinoetara. Handik laster Marti eta Jana pataskatu ziren, Julieta moderatzaile bermatzen zela eztabaidaren harian. Marieta besarka netxikan. Janak erran zuen:

– Banoa. Ez dut gehiago zuekin zinpurtzeko xederik. Sekula. Emadazue bakea. Aski handia naiz nihaur gobernatzeko. Zergatik ez Txatxo?

Daniel Elgebeltz histen zihoan, Tolosak Baiona zafratzen zuela publiko berotuaren ooo eta aaa ozenez ito tabernan. Ordukoz Pontriquetik trinkili-trankala Santizpiritu zubi puntara iritsiak zirela aitortu zidan ahapez. Janaren haserrealdiak taldekideen ari gozoak malgortu zituen eta mututasunik dorpeenak hogeita

bost urte iraun zuen Reduit plazako merguez urrinetan bereizi zirenen bihotzetan.

–18–

Ostiral Saindua bukatzear zegoen. Wittig Bar burbuilatsuan bildu ginen Jesusen Golgotako patarraren nekeak gainditzea ospatzeko. Zokok, Preziosek eta Nolwenek astea bukatzen zuten eta ni oporretan nintzen Pazko astelehenerainо. Alfertasunaren –zergatik beti alferkeria?– lehen orduak riesling hurrupatzen eman genituen. Chemical Brothersen musika entzuten, bata eta bestearekin funtsik gabe eleka eta bereziki gure artean tinkatzen, finkatzen, zinkatzen. Talde argazkia atera genuen, panoramiko moduan Prezios ohatzeko gisan. Irri baizik ez ginen, ahantziak bagenitu bezala mundua maldan behera zihoala eta Janaren zoritxarra. Ilsek gehitzen zuenez, jakin behar zen noiztenka *break* baten egiten...

Deborah eta Scullyrekin etorri zen Zoko. Wittigenean zakurrak debekatuak ziren arren, harrerako butx zainartek sartzeko baimena eman zioten kanixe maitagarriari, baina nardagarria nire gustuko. Loriatua zen. Prezios, aldiz, bakarrik hurbildu zitzaigun bost metroko muturrarekin. Marlenen berri galdatu nion:

– Eta Marlen?

– Joan egin da. Atzo. Edo hobe, lekuak hustu zitzan erregutu nion. Ez nituen jasaten ahal bere ordreak, manuak, erabakiak. Eta behar nintzaien derrigor plegatu, bestela bikote krisia garatzen zidan. Arratsalde osoko negarrak, otoitzak, barkamenak eta errudun sentitzeak pairatzekoak nituen. Bada hein bat, ez duzu uste...

– Baiki. Baina onartuko duzu zure heina zinez murritza dela.

– Noski.

– Eta?

– Heldu den larunbatean Donibane Garaziko Moxtola skuatean *lesbian speed dating* bat antolatuko dute. Zorte on gehiago ukanen dut barnealdeko neskekin.

– Baliteke.

Ez nintzen segur. Sexu bereko pertsonen ezkontzea eta homosexualitatea bera eskoletan aipatzea debekatua zen Frantziako erresuman bezain Euskal Herriko iparraldeko partean. Lesbianak ez ziren, horrela, Preziosen begi zoragarriengatik txori papo gorrien pare zuhaitz biluzien kaskoetan kantari jazarriko. Edo bai? Nire sorbaldan pausatu zuen burua eta larru beltzaren distirak ukiduraren mugetaraino eroan nin-

duen. Preziosen kontsolatzen zinpurtzen zen Ilse, argazkian bederen uros ager zedintzat. Bistakoa zenez, sentimendu tristeak ez ziren manatzen, baina haien dorpea arindu zitekeen adiskidantzaren bidez.

Mahai erraldoiaren borobilean metatuak ginen, basoak arradaz eta bara-bara. Hamazazpi urteko nerabeak ginen, axola eta helburu gabe. *Doi bat ero* zerrakeen Arthur Rimbaud zenak. Haatik, halako batean, Nolwenek paper puska handia jalgi zuen bizkar-zakutik, hedatu eta arkatzak banatu zizkigun. Serioski ari zen. Gure harremanen sarea marraz genezan nahi ote zuen The L Worldeko Aliziaren moduan? Preziosek gauza bera pentsatu zuen soa histen zitzaiola. Ilse ttattit zegoen. Zokok Deborah-ren altzoan pausatu zuen burua amultsuki. Bela zorrotza eta djellaba beltza zeramatzan soinean, beira urdineko betaurrekoak aurpegiaren erdian eta marka isilduko dudan kirol zapata kolore aniztunak oinetan. Zoriontsu ziruditen biek Scullyri musuka. Nolwenek laguntza eskatu zidan riesling edari jainkotiarrak itotzen ez zizkidan neuronak haiatu nitzan otoiztuz:

– Demagun paper zuri hau dela gure ikerketa eremua. Badakizue engoitik Daniel Elgebeltz bere arreba-

ren atzetik doala. Ditugun xehetasunen arabera entseatu gaitezen nor-nori-nork haren oihala iruten.

Danielen eta Janaren izenak idatzi zituen. Elerran nituen ohiko sospetxosoenak pausatzekotan geratu nintzen. Ordez, hartu berri genuen taldearen argazkia jarri nuen paperaren erdian, ikerketa aitzinatzeko premiazkoak ziren elkartasuna, batasuna, instintua, memoria, iraupena, heziketa, adiskidantza eta maitasuna irudikatzeko. Jimmy izkiriatu nuen, Lavigne, Izozta eta Dupont de la Cuna, bakoitza Janarengana iristen zen zagita meharraz ilustratuz. Preziosek Julieta eta Marietaren ikurrak pausatu zituen. Zokok izen guztien aldean galdezkako seinale gotorra marraztu zuen. Itxuraren azpian Txatxo txertatu genuen, egitura guztiaren giltza bailitzan. Bururatzean lau urrats atzera eman genituen Lilly Rushek Philadelphiako FBIko bulegoan zegikeen eran, hausnar eta arranguratsu. Zaunka erlastua askatu zuen Scullyk.

Etsitzekoa zen. Paperean etzan Janaren desagertzea ez zen zoharragoa. Edatekoa manatu genuen. Rieslinga burrustan uholdetu zitzaigun Wiesbadenen bezala. Biologikoa aldion. Wittig Bar hertsi arte egon ginen pantailan iragaten ziren bideo lizunei begira: oldozkun genuen alabaina. Txatxo solastatuko nuen

eguerdi aldera Donostian. Baldinba, Nolwenen dokumentuan pausatzeko zerbait lotura berri idoki nezakeen. Espero nuen behintzat. Ostatuko atean errondan nagitu ginenean, partida zailaren bezperan garaipenean sinesten ez zuten Aviron Bayonnaisko jokalariak baikinen, Nolwenek ahapekatu zigun:

– Darth Vader komandokoen gutuneko 400.000 franko haien hatza atzeman duket. Baldintza erabiltzen dut nahitara.

– Eta?

– Parisko banku pribatu batean atrakoa izan zen 1985eko uztailaren 14an, begiraleak oro telebistari iltzatuak zirela Champs Elyséesetako erakusketa militarra ikusten.

– ...*Qu'un sang impur abreuve nos sillons!*

– Amaia! Mesedez! Gertatzen da dirutza hori ez dela sekula aurkitu. Urtu egin zen nolabait.

– Nor ziren ebasketaren egileak?

– Misterioa da. Batzuek diote droga, arma eta emakumeen trafikoan nagusitu nazioarteko gaizkileek obratu zutela. Besteek, orduan indarrez zihoazen ekialdeko terrorista taldeen ildoa jorratu zuten. Emaitzarik gabe.

– Europar jatorriko terroristak izan zitezkeen?

– Zehatzago bazina, Amaia...

– Ba, IRA, ETA edo FLNCkoak demagun. Laurogeiko hamarkadan indartsuak ziren.

– Xendra horrek ez du ezer eman.

Wiesbadendik itzultzean burutik behera beltzez beztitu gizonen errabia erasokorrak frogatzen zuen bazirela oraino zenbait dirutza faraonikoaren atzetik zebiltzanak. Jotzeko eta, behar izatera, hiltzeko prest ziren gainera. Nire haragi kolpatu eta ubelduaren muinetik beretik nekiena. Noren eskuetan ziren laurehun mila franko haiek? Janarenetan? Berdin norabide faltsuan eratorrian ibilarazten gintuen lekukoetarik batenetan? Lumaz hantu putzuken pare elkarren aurka borrokatzeko baliatzen nindutela ziruditan unean suspertu nintzen karkaraz:

– Agian ez zuten franko meta hura eurotara aldatu 2001eko urtarrilaren 1etik hara! Zorigaitzez hamar urteren buruan euroa krisian dago. Ezjakin superinformatu aho zabal bakanek txanponaren bukaera iragartzen dute eta salbatzerik merezi duenetz terrentaz galdatzen... Hahahaha!

– Erraza da trufatzea –zerrasadan Zokok–. Pentsatzen duzu hiritar europar arrunten makurrari? Hauek dute krisia larrutik ordaintzen, ez biktima gisa aurkez-

ten zaizkigun banku eta aferagileek. Brusela jada pobreenei janari mailako emaitzen murrizteak erabakitzen dabil, dakizkigun soberakinak direlarik bestalde.

– Grezia belauniko jarri zuten. Italia eta Espainia gero. Denetan haserre gorriaren hariari tiraka, jendeak manifestatzeko hitzartzen dira. Euroa laster moneta egituraren zero graduan date. Ez txarra delako –zerraikan Preziosek–, baizik eta dolarra etsai duelako. Uste duzue Amerikak amore emanen duela?

– Eztabaida arraroa daramazue goizeko hiruretan Wittig Bar-aren aizolbean. Edanak izanik gainera! Eñaut Etxamendiren Ekonomia klasearen ordua balitz oraino! Hobe genuke etxera, ez?

Nolwenen aholkua onartu genuen. Gauaren erdian (bis) barreiatu ginen. Oteizaren burdintailua jotzen zuen itsas aldetik zetorren haizeak. Herdoila purruska bat iltzatu zitzaidan begi zurian. Uhinen dzangen neurrian torratzen nuen ninika: gaixo Oteiza, hor, bakarrik, gaixo hi, ordu txikietan nehor ez dabilen hiriaren bihotzean errotua! Itsasargiaren zirrista distiratsuak nire pentsamenduaren balizko kaltegarritasuna ebaki zidan eta Nolwenen aldamenean kuzkurtu nintzen, galernaren minean talaiarik seguruena bailitzan. Eskua pasatu zidan lepondoan. Hatzaz balakatu minbera

neukan begizuloa. Hotz zegoen. Munduko kide beroenak bide ginen. Sutan geneuzkan ahurrak, sabelak, bularraldeak, sorbaldak, zango arteak, besapeak, ixter xixterrak, oin zolak eta belaun hezurrak. Amodiorako sortu gintuzten, ustekabetarik, biraoka asmatu ezinez, norabideak uhertuz, egiazko gure nortasunak irakiten zeudela, lurraren azala kraskatzen, errausten, xehatzen, zimurtzen, pairatzen, xifritzen zihoan bitartean.

Miarritzeko Herriko Etxearen oinetan gaueko *chronoplus* sareko autobus berdea harrapatu genuen. Nolwen eta biok baizik ez ginen garraiogailuan. Lauzpabost gazte sartu ziren Angelun, kantu, garrasi eta desafio. Neskek akiturik ziruditen, mutikoak prest zirela ziotenaren arabera Donostiako pubetara lehiatzeko. Segur aski ohearen epeltasuna hautatuko zuten guztiz gehienek. Berandu zen alabaina. Argi uhargietan zehar andraidearen begitartearen zorrotza miresten nuen: Bretainiako lehorren maneran sardeztatua zen eta begi orlegiak kai-txori gosetuen pausaleku eztiak zitezkeen. Egiazki maitemindua nintzela onartzekoa nuen. Wiesbadengo Trend tabernako nire aitortza ez zen halaz gezurrezkoa. Egia erran, gustatu zitzaidan

nola argitu zigun 400.000 frankoen misterioa. Alegia deus ez.

Lau mezu nituen etxeko telefonoaren erantzungailuan. Daniel Elgebeltzen bat. Donostian izana nintzenez nahi zuen jakin. Hiru aldiz publizitate-dei-zaborrak. Ez genuen ihesik. Zena zelakoa, hortzak garbiturik etzatera abiatu nintzen. Elgebeltzek igurikatuko zuen. Nolwenek Wittig Bar gozagarrian elkarrekin marraztu papera egongelako murruan zintzilikatu zuen, Lenin eta Janis Joplinen posterren artean.

– Afera osoa begi-kliska soilaz ikusten ahal dugu horrela.

– Goiz, arrats eta eguerditan... Hoberena zara!

– Mila esker, zure laudorio garaiza burla edo musika den ez dakidan arren.

– Biak, kapitain Kergelen. Ohantzea aiduru dugu.

– Nahi zaitut, nahi zaitut, nahi zaitut orain...

Denborari denbora etsai jo genuen larrua. Moisesen mana bezain ona zen izerdiaren herio txikia. Munduarekin baketzeko tramankulurik egokiena. Amets izugarrian murgildu nintzen gero: norbaitek *Cry baby* abesten zuen, hiri ertzeko hamar metro gorako harresi zurbilean ixtaklok nengoen urrikalkor, Lisbeth Salander zitekeenaren ileak orraztatu nituen arraposki,

eta bertigoak edo mendigaitzak jo ninduenean orro garratza hauteman nuen, sangreaturiko aberearena edo labankaden ondorioz odolez husten zihoan pertsona batena.

Banpez iratzartu nintzen. Beharrik ez zela ganbaran nire kaskoan bezainbat nahasmendurik! Nolwenen bularretan pausatu nuen kopeta kolpatua, oihuaren ozenak sinapsiak kateztatzen zizkidala.

–19–

Euskaldunen plazara jauzi egin nuen larunbat goizean. Baionako karrika komertzianteko dendak ez ziren zabalduak. Bost Kantoietan zebiltzan, ordea, saltzeko ontasunez mukurutu kamioiak, goloski kontsumitzekoak presaka deskargatzen. Eskale bizardunek jada amoina galdatzen zuten, eskua luzaturik, txapela lurrean hedaturik edo plastikozko godaleta makilatxo baten puntan estekatu hariari loturik: merkatua izanez, egun aberatsa zuketen, jende anitz pasatuko baitzen sosak biltzeko aukerak biderkatuz. Silence izena zeraman gizon mutua ageri zen Orberen izkinan. Zentimorik atera gabe postara heltzean oroitu nintzen Wiesbadenen ez nuela pikarraiturik ikusi. Ala ez zen herrestarik Hesse eskualdean? Eta Alemanian non zetxizkaten bada zenbatzen ziren hamabi milioi jende pobreak? Frankfurteko geltokitik zihoan Kaiser Wilhelm etorbidearen espaloietan baziren irudiz ekialdetik zetozen otoizlari kolpatu andanak, matoarekin ere doi-doia zutik zeuden belaunetik ebakiak, enbalduituak eta gaineratiko jarriak: *ein euro bitte*...

Ez nuen debaldeko pentsamenduetan denborarik gastatzeko. Donostiara beharra nintzen Txatxoren elerrateko. Argitasun apur bat ekarriko zidakeen. Ikerketa nahiko neketsu neraman. Adiskideak aspertzen hasiak ziren, salbu Nolwen, bistakoa zenez; baina hark maite ninduen ezbai barik. Aitzakia polita zen alabaina. Andraidea ohean abandonatu nuen. Bitxi egiten zidan Nolwenengandik urrun ekiteak. Harekiko urratsetara moldatua nintzen astean zehar. Bere irriak jendetzen ninduen eta noranahi akuila nintzakeen Armorikako itsasoaren kolorea zuten begi berdeek.

Bidean nengoen. Donostiakoan hain zuzen, autopistara bihurtzen ari zen Lurraldebus konpainiarekin. Sakelan neukan azal beltz malguarekiko karneta hartu nuen eta ordura arte ikasiak oro arrapasatu nituen Euskadi Gaztearen uhinetan kulunkatuz. Coldplayren kanta berria aurkeztu zuen ahots fresko airosak eta publizitatetik landa Bide Ertzean taldeko *toxic twins* bikien elkarrizketa garatu zen. Pausuko muga zeharkatzen ari ginen ordukoz. *This is America* xuxurlatu nuen.

Kopeta keinuz apaldu nituen betazalak. Jauzira apailatzen zen kirolariaren moduan kontzentratu nintzen. Ez nuen ezerezaren arrokatan hausteko gutizia-

rik, are gutxiago erori eta urrin likitseko urmael zokiletan itotzekorik. Edozein gisaz, salbamen zinta gerrian segurtatzekoa nuen. Donostiako sarreran Jackson kartzelako herioaren hodian txerto letalaren aiduru lau orenez amildu zen Troy Davis beltzaren antzera sentitu nintzela aitor dut: edozer gerta zitekeen, zentzea barne. Ideia beltzak baztertu nituen eta Parte Zaharrera lehiatu nintzen, haizearekin Kontxatik zirurikan zetozen euri ttantta gaziek begitartea mailukatzen zidatela. Hinki-hanka nenbilen bezperako Wittig Bar-koa izugarria izan baitzen. Distira bat netxikan buru zokoan sigi-saga lasterka Bulebarra trabeskatzean, autoen artetik, txirrindulariak trabatuz, su gorria eta berdea nahasten nituelako bereziki. Daltonikoa nintzena?

Oinezkoen kaleetakoa lasaiagoa izan zen. Paper puska batean Izarraitz liburu-dendaren zuzenbidea idatzia nuen. Ezker eskatu, eskuin galdatu, hondarrean ateak ireki berri zituen dendaren parean suertatu nintzen. Nehor ez zen ageri. Auzoko ostatuan kafea irenstea erabaki nuen. Maite nituen Hegoaldeko kafe azkarrak, erraietako itxindu ahula berriz pizten zuten, bake zerbait ekartzen eta aldi berean borrokara balekebale haiatzen. Kontraerranaren funtsaz hausna-

rrean zinpurtzen nintzen, berinaz haraindian, gizon baten itzala sumatu nuenean. Txatxo zena? Mende erdiak lehertua zirudien. Klandestinitate eta kartzela urteak herronkatu zitzaizkion, gose greba garratzak eraman zituen, torturatu ere zutela behin baino gehiagotan. Antzeko egunerokotasunak edozein gizon toles zezakeen noski. Bere bizi-xendra zehazki hautatu zuen Txatxoren biografia irakurri eta ez nintzen negarrez hasiko. Aski hozki errana geratzen zitzaidan perpausa, baina erakunde armatuak zuela hamabi hilabete iragarri tregoa iraunkorraz balia nintekeen kolkoan nuenaren errateko. Kafearekin batera bakeak horretarako ere balio zuela erantsi nuen nirekiko.

Txatxo atera zen. Besoak gerrian pausatu eta inguruetako denda eta tabernetako mugimenduei beha zutundu zen, ameslari. Kalatxori auhenkariak ortzi grisa zirrimarratu zuen. Lanera itzuli zenean ausartu nintzen. Dudaz urgoitu aurpegia eman zidan. Bazekien, naski, zertara nentorren. Agurrak, labur eta on:

– Amaia Ezpeldoi? Zure zain nengoen.

– Baia?

– Dena jakiten da. Ez zatoz Uxue Apaolazaren azken nobelaren bila.

– Mea culparik ez orduan?

– Mintza gaitezen klarki: zer nahi duzu?

– Jana Elgebeltz anderearen desagertzearen misterioa ikertzen nabil. Marti Izoztaren talde argazkian agertzen zara. Nire kriseiluaren argitzeko zer kontatzen ahal didazu 1985eko Baionako Besten hondar gauaz?

– Brauki ari zara.

– Egia duzu. Salbaia izateko sortu nintzen.

Ederra zen Txatxo. Sorbaldan behera elurra bezain zuri jaisten zitzaizkion ile kizkurrak. 1968ko intelektualen moldean bezti zebilen, txinatar lepokoarekiko atorra eta kotoi lodizko galtzekin. Orduko pentsamaisuekiko abegikortasunez menturaz. Liburuzainari begira izartu nuen zein neurritaraino aldatu ziren denborak: nora buhatu behar genuen manatzen zigun oilarrik ez zegoen, berriak oro publizitate subliminalak ziren eta balizko saldo lanik ez zen gehiago, guztiek aharra partida hilkorretan atomizaturik bukatzen genuelako. Bizkitartean elkartasunez eta maitasunez baizik ez genegien amets. Lehiaketaz eta handinahikeriez aseak ginen. Kontradikzioz ele-huts genbiltzan. Pantaila lauen otalakoetan iltzaturik atxikitzen gintuzten hurrengo ziber mezu zaborraren peskizan: *you have a message*...

Txatxok, aldiz, urte urrun haien aire zerbait kontserbatua zuen. Bermatzeko manerako segurtasuna, demagun. Bai eta kaskoan nonbait iltzatua zeukan ideia bat: iraultzak bururaino eramateko kalipua behar da, haurrideak halaz instrumentalizatu daitezke derrigorrezko helburuaren zerbitzuko jarriz, galderarik ez egin, erantzunik ez bila, lepo zainak tinka eta finka. Etsaiaren kalitzea iraultzaren saihets damu domaien zerrendetan sartzeak kontzientziak lasaitzen ditu. Txatxok horrela zuen hersturetan zehar bizirautea lortu. Ez bestela. Zenbatek Txatxo bezala gure lurrean bertan!

Janaren desagertzearen aferak agian muinak astinduko zizkion. Durduza keinurik, alta, ez zuen erakusten. Zizeron bezain estoiko zegoen. Pataska hasiko zen:

– Jana erabili eta erailtzea leporatzen dizut.

– Eroa zara ala? Baiki, Janarekiko tratuak nituela; baina hiltzea, mesedez, zertan zabiltza?

– Zer nolako tratuak zenituzten?

– Marrazkia behar duzu? Haragizkoak lehenik eta borrokaren jarraipenari zegozkienak gero. Neska asko ezagutzen nuen bazter orotan. Jana berezia zen, ausarta eta lotsagabea. Are adrenalina gehiago nahi

zuen beti. Erraza zen harekin konpontzea. Iparraldean laguntzaile suharrak genituen eta haien buru neukan Jana. Eta hilko nuen?

– Preseski: bide zuzenetik urrundu zelakoan.

– Nondik daukazu hori zuk?

– 1985eko uztailaren 14an banku bat ebatsi zenuten Parisen. Atrakoaren emaitza: lau ehun mila franko, ez baita gutxi. Norbaitek eraman zuen.

Karkazail hatsankaz azpildu zen Txatxo. Liburu meta desorekatu zitzaion. Slavoj Zizeken *Munduaren bukaeran bizi* deituriko saioak zirela ohartu nintzen. Ufako ironikoaz askatzear nengoen Izarraitzen bikote plazenta sartu zenean.

– Marie Darrieussecq-en *Clèves* eleberria irakurtzekoa dugu. Frantsesez. Idazle miresgarria da. Baionan sortua gainera...

– Eskatuko dut. Zortzi egun barru eskuratu ahalko duzue.

– Maitea –emaztea zitzaion senar ttattardunari mintzo–, datorren astelehenean Iparraldera joaterik badugu, ezta?

– Uste dut baietz.

– Baina Pazko astelehenez dendak itxita egongo dira han.

Bezeroak so geratu zitzaizkidan *Nullius Terrae* ukatu eta ikazturik jazarriko nintzaiela ustez. Harritzeko arrazoi osoa zuten, normaren arabera aborigen beltz bat bezain itsusia nintzelako, batez ere Wittig Bar zoragarrian gaua malaskaturik.

Neska hozki ari zitzaion Txatxori:

– Ba orduan eskatu...

– Bueltan ordainduko dugu.

– Badakit ez duzuela ahaztuko.

Izarraitz liburu-dendako bortako ezkilatxoaren azantz arinak belarriak kilikatu zizkidan. Lerroan azaltzen ziren erosleak. Bakoitzarekiko beta hartzen zuen Txatxok, aholkuak eta liburuaren aukeratzeko arrazoiak zerrendatuz. Behialako solasaren segitzeko zirrikiturik ez nuen. Espres egina irudi zuen. Norbait sartzean, ezintasunez goratzen zituen sorbaldak gizonak, nik ongi ikusteko eran.

Ama-alabak zerbitzaturik, hurbildu egin zitzaidan:

– Ordu bata arte uholdea izango da. Ez dut astirik zuretzat. Elkarrizketa interesgarria hasia genuen.

– Hemen egongo naiz bukatzen duzuneraino. Pazientzia daukat. Tortuga da nire abere totema. Segundoak astiroegi bihikatzen zaizkidala nabaritzen dudanean, sakelan daramadan ikurra balakatzen dut hatz

puntaz. Konfuziok zioen: urritasunaz ez beldurtu, behin betiko gelditzeaz baizik.

– Nahi duzun moduan. Ez nazazula trabatu. Lanean ari naiz. Utzi itzazu istorio zahar zitalok! Nork bilatzen du Jana hainbeste urteren buruan?

– Daniel bere anaiak.

– Garaia zuen ba!

Baiona-Miarritze derbitik landa Daniel Elgebeltz gurutzatzean ohar berdina bastatu nuen nirekiko: garaia zuen ba! Ez ote genuen denok garaia laurogeiko hamarkadako berunezko mendeaz hausnartzeko? Exilioaren zergatiaz? Adiskidantza tresnatuen oinarriaz? Jana barne, desagertuen destinoaz? Kartzeletan mutxitzen zirenez? Borroka lautadetan debalde suntsitutako bizitzez? Penelope ugariren antzera, gerraren estakuruz desertatu ama, alargun, emazte eta haurrez? Bai eta kalitu etsaien ama, alargun, emazte eta haurrez? Maskaraturik eta Pazko igande oroz zabaltzen zen prediku hormatuen gerizarik gabe, geure aurka asaldatzeko ahalmenaz? Ez zena barkamena ekarriko eta distantzia jarriko zuen herri fikzio bakarrean, aldekoak eta kontrakoak biltzeko tenorea? Lurralde ukigarri honetan nork bere sinesteen araberako eremu irekiak lantzeko erronka ez ote zitzaigun hurbiltzen ari?

Baratze propioaren ukaitekoa, auzo ezberdinen baratzeen aldamenean: tortugaren ametsa zitekeen.

Txatxo segitu nuen. Liburuak ahurrean mugitzen zen deus ez bailitzan. Egiaren *garaia* bazetorkigula erantsi nuen.

–20–

Denda giltzatu zuen, burua apal. Jendez betetako karrikan gindoazen biak isilik. Hondartzara eraman gintuzten urratsek. Olatuekin dantzari eta klaskari zebiltzan portuko ontziak. Txoriek zerua airosten zuten garrasiz. Txatxok ez zidan behakorik luzatzen. Agerikoa zen haserre zela. Ahoa ireki zuenean hasi zen pataskaren bigarren zatia:

– Zuk ez duzu amore ematen.

– Sekula. Nire printzipioen aurkakoa litzateke.

– Zer jakin nahi duzu?

– Dena, ahal baldin bada.

Kontxara jaisten ziren eskaileretan jarri ginen. Santa Klara uharteko zuhaitzetan pausatu nuen soa. Euria bailitzan, bara-bara hitzetara amildu zen Txatxo:

– Badakit Janaren desagertzearen aferako lekuko garrantzitsua naizela. Nola uka? Aspaldiko istorioak dira. Memoriak batzuetan huts egiten dit.

– Indar txiki bat egizu...

– Jana militanterik onena zen, seguruena, sotilena, sekretuak atxikitzen bazekiena. Zerga iraultzailearen diruz betetako maletak pasatzen zituen airez aire

mugaz bestaldera. Ez dakit nondik. Garaztar jatorrikoa izanez, bideak bazituen mendi elurtsuetan zehar. Orbaizeta edo Xaretako sasietan gaindi. Gauak gauari ibiltzen zen. Bakarrik. Ez zuen arraun kiderik nahi. Bitxia zitzaigun, erakundean hirunaka jarduteko ohitura genuelako. Zena zelakoa, irria ezpainetan agertzen zen kafearen tenoreko Robber ostatuko gela hiratsuan. Gure junta-lekua zen.

– Nik ere Daniel Elgebeltz Robber tabernan solastatu nuen lehen aldiz...

– Hitzordu tokia ahantzi ez duen seinale. Tai gabe, espero du arreba galerna azkorriz azalduko zaiola!

– Azalduko zaio noizbait?

Banpez mututu zen. Galderaz damutu nintzen. Algara ozena libratu zuen. Hormaldia hedatu zen harrizko mailetan. Iruditzen zitzaidan elurrezko borobilarekin parezka nindoala. Harremana epeltzean jarraitu zuen:

– Iaioa zen armak erabiltzen ere. Landetako oihanera trebatzera joaten ginenean kontatzen zigun aitarekin ikasi zuela tiratzen, mahastietako pezoietako hegaztiak miratuz. Emakume oso alaia zen. Eta gisakoa. Liberatu genuen unetik egunak ederki lerratzen zitzaizkigun, bereziki elkarrekin larrua jotzen genue-

netan: goizean entrenamendua, kasik militarra; arratsaldean pistolen garbiketa eta ideologia ikasketak; eta gauean, afalondoren, amodioa egiten genuen. Ez ginen gu gixonak, jakizu; eta Jana ez zen emazte argamasetarik!

Irudika nitzakeen erraz. Bonny eta Clyderen erromantzea berriz jostatzen zuten Bizkaiko Golkoan, pinuen erdian, mugez axolatu gabe, polizia guztien bila eta aurkitu manuen lehiak zirela, xedera hersten zenean ihes egitea lortuz bata bestearen besoetan kiribilkatuak, antzerkilari handien moduan makillatzen, itxuraldatzen eta maskaratzen, ekintzetara pasatu bezperan, izan atrako, etsai hilketa edo agiri barreiatze Aberri Egunen karietara. Klandestinitatean jarduteak ausartzia eta harrotasun anitz eskatzen zuen, non ez zen errealitatearekiko arrogantzia, Tartas zenak lerrakeenez. Sosa bazuten alabaina, ausarki, izen faltsuekin hotel garestienetan atsedentzeko edo munduko edozein erakunde armatutako gudariekin biltzeko hegazkin txartelak hartzeko.

– Eta 400.000 frankoak? Norbaitek xerkatzen ditu oraindik. Darth Vader komandokoek gutuna bilatzen zuten zurratu ninduten lekuan.

Hiru haurrekiko bikotea eskaileran behera zetorren momentuan hitz ments geratu zen Txatxo. Konturatu nintzen klandestinitateko ekinbide zenbait errespetatzen zituela, adibidez belarriak barranda zebiltzanean ez mintzatzea edo telefonoa nolanahika ez erabiltzea. Harritzen ninduten gauzak ziren, mende berri honen hasieran sare sozialekin eta une oroko mugabako urrutizkin konexioekin intimitatea piztien hazkurri aurtikitzen genuelako. Big Brother zelatari geneukan eta gero eta gehiago eskatzen genuen, itsutzeraino haluzinatuak baikinen. Fritz Langen *Metropolis* izugarriko Maria gaiztoaren itzaletik genbiltzan, kopetak gorarik, pentsamendua zitzikatua, moralki zikiratuak eta urrats berdinean. Ikara hotza isuri zitzaidan bizkarrezurrean behera.

Eskerrak Txatxok ez zuela etenik eman:

– Inoiz ez da Darth Vader komandorik osatu erakundean. Nondik daukazu hori?

– Santizpiritu zubipean zafratu nindutenek Darth Vaderren maskarak zekartzaten. Lau ziren. Lau ziren halaber Dupont de la Cunak 1985eko Baionako Besten gauean zehaztu talde-kideak. Lau baita ere, Jimmy Sevranen arabera, Janaren kotxe xifritua mirazkatu zutenak. Baduzu zerbait eransteko?

– Hahahahaha...

– Zapartegingarria da, bai! Saldoa 400.000 frankoen atzetik dabil hogeita bost urteotan? Janaren desagertzea diru istorio zizkolatsua baizik ez da?

– Hahahahaha...

Ez zen gelditzen. Zer zuen bada horrela irri zozotan agortzeko? Arraileriaren minetik urrun ginen alta. Esku zolekin belaun gainak zanpatzen zituen. Behialakoan soberakinean neukan pazientzia galtzen ari nintzen. Tortugaren moldea sakelan ferekatu nuen eta lasaitu nintzen:

– Parisko atrakoaren ardita da?

– Louvre karrikakoa Marseillako gang boteretsuek antolatu eta erdietsi zuten. New Yorkeko dorre bikiak lehertu ziren arte erraza zen diru zikina zuritzea, kontrol gutxi zegoen eta maila bakoitza bereaz jabetzen zen. Europako ekonomiaren zainetan sos zikin uholdeak dabiltza. Mafia ezberdinak dirua latsatzen dute arraiki. Enpresariak, politikariak eta kazetariak banaketaren partaideak dira. Nire ustez. Engainatu naiteke...

– Ez zen ETAren obra beraz?

– Hasieran IRA edo ETA zitekeela aipatu zen prentsan. Hortik dator nahasmendua. Aski sos bagenuen

erakundean, zerga iraultzailearen iturri zaharretik zetorren ur berriaren ipuina badakizu engoitik... Baina egia da 1985eko udazkenean paketea bilatzen genuela guk ere, zaude lasai. Baionako Besten azken gauean, aldiz, aitortzen ildoan nagoenez ez dut ezer arriskatzekorik, Jana exfiltratu genuen. Bizitza normaletik klandestinitaterako jauzi argia eginarazi genion iluntze hartan. Galdekatu dituzun jakileak zuzen zebiltzan: lau pertsona ginen eta hilotzaren antzera garraiatu genuen Jana gurekin. Zinema ekoiztetxeetako tomate jarioz puztutako poltsak zulatu genituen odola itxuratzeko. Serial killer baten presentziarengatik kostaldean hedatu zen histeria kolektiboaz baliaturik konplitu genuen gure lana. Geroztik jakin dugu, bat: Dupont de la Cunak hamabost urte igaro zituela kartzelan, egin ez zuen krimen batengatik; bi: Parisko lapurreta dirdaitsua ez zela ETAren obra izan; eta hiru: denboraren buruan Jana xerkatzen dutela, horretarako detektibe rural txepela kontratatuz gainera.

Txatxoren mesprezioa irakurtzen nuen hondar perpausean. Aise zitzaion. Kaka nahaslea baizik ez nintzen. Heroia bera zen, sasia, tortura eta kartzela sufritu zituelako. Jagoitik, tasunik gabeko gizonaren pare, Izarraitz liburu-dendaren jabea zen eta egunero-

koa ttuttur zihoakion, norbaiten kalitzea, izanagatik etsaia, sekula manatu ez bailuen. Gerra ankerra zela deiadar egin zezakeen bere arimaren garbitzeko. Biktima plantan aurkezten zitzaidan borreroa zen. Eta alderantziz. Noski ordaindu zuela. Pagatua baldin bazuen, ez nuen ulertzen zergatik ez zen nirekin argikiago solastatzen. Amua urrunago aurtikitzera atrebitu nintzen:

– Non dago Jana?

– Ez nazazu trintxeraren bestaldera bultza.

– Non dago Jana?

Hiru hitzeko multzoa errepikatzen nuen leloki. Paltoko lepotik harrapatu nuen Txatxo. Besapearen eta bularraldearen gurutzune lizunean gorderik neraman kargatu gabeko 38 maitagarria jalgi eta saihets hezurretan sakatu nion: mintzatuko zen deabrua, mintzatuko zela! Komedia egiten banekien nik neuk ere! Zer uste zuen! Xingarrari berrekin zion, herabe:

– Jana hila da. Erakundeak Janaren hiltzea erabaki zuen.

– Hil egin zenuten? Hain borrokari ona baldin bazen, zergatik?

– Salatari lanetan zebilela konturatu ginen.

– Jana? Agente bikoitza zen?

– Frantses zerbitzu sekretuen informatzailea zen. Erabakiaren egiaztatzea Otsalar komandoaren esku zetzan. Ontsa oroitzen baldin banaiz, 1993ko urri hastapenean exekutatu zuten Iparralde barnealdeko herri hustu batean. Konprenitu behar duzu tragedia zela, baina bizitza sailak zalantzan geneuzkan eta GALen garaietarik landa erorketa handiak gertatu ziren gure artean. Kixu gudaria jarri genuen Janaren ikuskari lanetan eta herioa izan zuen sari. Zorigaitzez.

– Kixu hori nonbait aurki daiteke?

Historia tristea zen, hiltzeraino. Santa Klara neukan begimen. Janari agitua hozki azaltzen zidan Txatxok. Normala bailitzan. Ontzien intziriek nardatzen ninduten. Zorroan sartu nuen pistola.

– Minbiziak eroan zuen Kixu Alcalako kartzelan. Otsalar talde militarreko nehor ez duzu atzemanen. Zernaitz herriko apezarekin bildu zintezke. Handienetan abertzale handi hark zuen Janaren ohorezko meza laburra erran. Elizan ez, baizik eta Zernaitzetik Lubarrirako bidexkaren ipularreko milurteko haritzaren erroetan. Zernaitzeratzean ez dezakezu huts egin.

– Han berean ehortzia da?

– Etxepare apezaren arabera, bai.

– Eta inork ez zuen ezer jakin? Daniel, Julieta, Marti eta Marieta elaide zenituen. Ez zenien deus erran?

– Isiltzen ikasiz irabazten da borroka...

Julietak arrazoi zuen. Janaz axolatu beharko zuten, hurbiletik audela. Lasai zeuden alabaina klandestinitatean zebilelako, kausa ederraren aldarean hatsa oparitzen hots. Txatxok arrazoi zuen. Danieli zer edo zer salatu baldin bazion, egunak zenbatu zitzakeelako. Arrebari zerbait gertatu zitzaiola sumatuz gero planeta urdina purtzilikatuko zuen Danielek, bai eta Martik, bat anaia propioa zelako eta bestea Hegoaldeko gudarien haroaz troxatu Txatxok ebatsi zion Janaren gordekako maitalea. Zenbat suge ez zituen Iparraldeak irentsi azken hamarkada hauetan? Benetako piztiak bailiran ebaki arau berrosatzen ziren zazpi mutur eztendun zeuzkaten.

– *Warum Wiesbaden?*

– Zer derasazu?

– Beilh kontsula zergatik askatu zenuten Wiesbadenen?

– Eroa zara ala? Gertatu zenean ez nintzen mugimenduan.

– Egia behar dut. Berehala.

– Zoaz pikutara!

Ukabilkaz itsasora bota ninduen kasik Txatxok. Zinez kexu zen. Orekara itzultzean Donostiako kaian zehar bizkarrez ihesean ikusi nuen. Lasterrez ondoratu nintzaion. Pentsamenduaren eihera izutua martxan zebilkidan haize eskasiagatik. Alabaina Janaren dolua ekartzekoa genuen guk ere. Nolwenekin Zernaitzera joanen ginen biharamunean berean. Nahi nuen Janaren hilotza haztatu. Urrinaz, har malatsez eta zizare ubelegiez haratago. Botatzear nengoen.

– Azken galdera bat.

Brauki inguratu zidan kopeta. Oldozmen bekaitzetan uhinen aurka igeri zihoala zirudien.

– Azken galdera bat: Dupont eta Lavigne lekukoek aipatu abere oihu hura zer zen?

– Grabaketa soila. Hartz beltzarena. Erasotzen dutenean.

– Janaren gorputza atzemanen dut. Pagatuko duzu...

– Ez naiz erruduna. Erakundearen bulego erabakitzaileak zuen manua eman. Eta gehienak ez dira mundu honetako dagoeneko. Bakea emadazu, arren!

–21–

Donostiara eraman ninduen autobus berean itzuli nintzen Baionara. Pazko bezperan saldo koloretsuak baziren shopping egiten, bizpahiru hizkuntzatan, karriketan nagi. Xingar feria zen. Arratsaldeko laurak zitezkeen. Egiaz burumuinak nahasirik atera nintzen Txatxorekiko solasalditik. Norbaitekin mintzatu behar nuen. Kafe azkar baten premia nukeen. Bazkaltzeko ordua ihes joan zitzaidan eta Kontxako uhinen bitsaren gatza baino ez neukan ezpainetan. Zabalik zegoen lehen ostatuko kontuarrean plantatu nintzen, bizkarrez, gogoetan: Jana hila zen, hil egin zuten, eliminatu, borroka trabatzen baizik ez zuelako Poliziaren informatzailea zelako susmoaz.

Bat-batean aurpegi ezagunaren irudiak kilikatu zizkidan neuronak: AIM erakundekoek Annie Mae Pictou Aquash indioa kalitu zuten 1975eko larrazkenean, FBIko satorra bide zelakoan. Pine Ridge erreserbako lur zoko batean elurpean ehortzirik atzeman zuten gorputza. Hogeita hamar urteotan familiak, bereziki alabek, AIMeko buruzagiei kontuak eskatu dizkiete auzitegiz auzitegi, argitasun askorik sekula lortu gabe.

Lekukoak isilik daude eta bigarren eskuko ekileak dira gaztigatzen. Ordrea eman zuena mutu dago. Janaren kasuan, ikertzen hasiz geroztik nahikoa aitzinatu nintzela ziruditan. Jakileak eleka hasten ziren egokiro galdekatzean. Ardura negarra begian. Salbu Txatxo. Gudari famatua zeneko gogortasuna zaintzen zuen eta herriaren alde bermatzeak ematen zion errugabetasun sentimendu zoharraz jaukitzen zitzaidan. Halaz, Zernaitz herriko Etxepare apeza mintzatu behar nuen hilobiaren lokalizatzeko. Derrigorrez.

Baiona Txikira lehiatu nintzen. Dei batzuk nituen, etxetik pasatzeko. Une horretan, baiki, mugikorra baliagarri zekidakeela! Krisi moral arrastiri ubel batez, Caspar David Friedrichen *Der Abendstern* margoa begietan eta Steve Reich minimalistaren *Desert songs* izeneko musika belarrietan, eskukoa birindika aurtiki nuen Errobira. Ez nuen orduan deusen beharrik.

Pannecau zubian hedatu zuten xingar azpitik lerratu nintzen hausnarrean. Txistor eta merguez erreegien urrina zetorkidan Pelletier plazatik, Ikastolako gurasoek adelatzen zituzten taloena eta bisitariek bargoak bailiran irensten zuten garagardoarena. Binaka igo nituen apartamentura heltzeko eskailerak. Izpiritua hits eduki arren, osagarrian nintzen bederen.

Egongelako sofan zetzan Nolwen. Eguerditan bukatu zuen gaueko zerbitzua. Azantz puska bat eginez sukalderatzean, andraidea iratzarrarazi nuen zorigaitzez. Alabaina, agondu zenean, ez zidan hain maiteminduki begiratzen.

– Barkatu, ez nekien hor zinenik.

– Borta jotzen ikasten ahal zenuke.

– Etxean nago, ez?

– Bai, bistan dena, ahantzia nuen... –eztikiago zerraikan–. Uzta ederra ekarri duzu Donostiatik?

– Ez, berri txarrak eta tristeak baizik.

– Zer ba?

– Jana hila da. Erakundeak hil zuen. Nahiago ditut euskal aditzaren jasaile eta ekile moduak batera erabili gertatu zenaren agertzeko.

– Uste duzu gramatika irakasgaiaren tenorea dela?

Louise Ebrelen Kan ha diskan moldez harilkatu abestiekiko KDa bultzatu zuen Nolwenek. Sudur ahots harrigarri bizitoreak gozatu zigun sukaldearen eremua. Te orlegia apailatu bitartean pentsakor nenbilen: ardura hala zen, gatazka eta gerra anitzen oinarrian gramatika puntu zehatzak zeuden eztabaidagarri. Gramatikaren baliabideak ziren erabiltzen, populuak

manipulatuz zapaldurik mantentzeko. Uztarturiko adiztegiak eta gramatika mingarriak zigun euskaldun gisa bizirik irautea halaber baimentzen. Ez genukeen arma, anatema, bortizkeria, oilar-joko, ez eta hurkoen baztertze zital beharrik, nor-nori-nork haren bidea ahalik gurbilen eta askeen azpiltzen ikasten bagenu sehaskatik beretik. Edari beilegiaren berotasunak monologo mentala ebaki zidan. Bi ahurren artean tinkatu nuen kikara, salbatua. Musua oparitu eta ondoan eseri zitzaidan Nolwen pollite.

– Zernaitzera goaz. Berehala. Haritz erraldoi baten erroetan ehortzia omen da Jana. Etxepare apezarekin hitzartzeko, emadazu zure telefonoa otoi!

– Hortxe da. Nondik duzu Etxepareren zenbakia?

– Txatxok emanik. Garai heroiko haietarik harreman apurrak zaindu dituzte itxuraz. Eta 400.000 frankoen istorioa apeu likitsa baino ez zen! Txatxo xendrak uhertzen jostatu da.

– Banengoen ba! Dirua ez nuen ezerekin lotzen ahal! Eta zure aurkako erasoa?

– Ordainduko du.

Etxepare apezaren boza lasaia eta sakona zen. Arratsaldeko zazpietan bilduko ginen Zernaitzeko baselizako kalostrapean. Ez nion salatu zertarako zen.

Aski goiz jakinen zuen! Prezios eta Zoko ere helatu nituen. Lohiko jantziekin, palekin eta aitzurrekin etortzea erregutu nien. Baiezkoa ihardetsi zidaten galdera soberarik gabe. Jada Euskal Erakustokian baizik miretsi ez zitezkeen tresna herdoilduak premiazkoak genituen Janaren hilotza ahanzmenaren infernutik iradokitzeko. Irria eskapatu zitzaidan, ohe zolan aitarengandik ondare errezibitu burdin barra zizelkatua banuela nik ere haztatzean. Seietan juntatuko ginen Sanandres plazako Robber ostatuaren parean. Zokok proposatuaren arabera, Deborah-ren VW transporter kamionetan sartuko genituen lanabesak, ziuntaz Zernaitzeratzeko.

– Hori egina.

– Biba zu!

Daniel Elgebeltz elerratekoa nuen. Arrunt. Bost minutu utzi nizkion Robber tabernara heltzeko. Gauza xehe zenbait argitzeko xedea neukan. Hatsankaz jin zen laurden baten buruan:

– Pazko irian aparkatzeko diren zailtasunak badakizkizu. Nolanahika gidatzen dute Bestaldekoek. Egun astuna ukan dut, baina horrela da *chiffre d'affaire* delakoa emendatzen.

Isildu zen behingoz. Garagardoa manatu zuen eta ura niretzat. Pausatuagoa zirudienean atrebitzea zegokidan.

– Etxepare apeza zure ezagunetarik da?

– Bai, ezagunetarik eta adiskideetarik. Marieta eta bion ezteietako meza kantatu zuen. Miresgarriki. Zergatik?

– Zuen taldekoa zen?

– Zen eta da, kudeatzen dudan ezkerreko alderdi abertzalearen kidea baita ere. Barne-aldizkarian parte hartzen du hilabete oroz. Maisuki idazten digu borrokaren ideologiaren teoriaz. Gu lurtarragoak gara; ekonomia eta sozial arlo erreala lantzen dugu, *herrian ekoitzi herria garatu* lemaren ildotik. Liberalak gara, non ez garen noiztenka neoliberalak. Norberak berea irabaztekoa du. Ez gara denak funtzionario auherrak izaten ahal, ezta? Zinez fidagarria da. Iparralde honetan sekretuak irensten dakien pertsonetan bakarrenetarik da. Pentsa!

Etxepare itsuki adoratzen zuela argi zegoen. Txatxorengandik ikasietarik ez nion ezer azaldu Elgebeltzi. Jakin izan balu pitotuko zen, eta banan-banan kalituko zituen lagun hurbiltzat zeuzkanak. Banekien gerri aldean pistola bat zeramala, zer gerta ere. Baio-

nako denda-zainak zerratzeko orduetan kaxaren eske jazarriko zitzaizkien ustez, atzerritar jatorriko gazte mukizuen balizko erasoen beldurrarekin bizi ziren. Beraien arteko batzarretan erran ohi zuten, oinarrizko seguritatearen bermatzeko ez zela Poliziarekin kontatzen ahal. Eta hor, bazukeen pistolaren baliatzeko aitzakia, ez gaiztaginen aurka, baizik eta mende laurden honetan adiskide minak zituenen kontra. Herensugea bere buztanaren ausikitzera bortxatua zatekeen.

Salatu nion, hargatik, seietan Zernaitzera zuzenduko nintzela Etxeparerekin mintzatzeko. Beharbada jakinen zuela Janaren desagertzeaz zerbait. Begitartea alegeratu zitzaion:

– Bizirik da orduan?

– Ez dakigu. Baina xedera zerratzen doa.

– Zure lagun emaztekoiekin joango zara apez saindu harengana?

– Ez baldin baditu sekula bi andere edo bi gizon elkarri musuka kukuxkatu, munduaz ez dakike askorik.

– Oraino horrelakorik!

Janaren exekuzioaren lekukoa izan zena Etxepare? Kixuk zuena neskatxaren lepo gibelean finko arma atxikitzen? Ala zintzur hondora luzatu zion, burumuina

arras zartarazteko gisa? Txatxok ez zekien. Ordrea eman eta ez zen gaineratikoaz axolatzen. Buruzagien egitekoa erraza zela marmara nenbilela, Sanandres plaza kantoian Deborah-ren Transporterra gelditzen begimendu nuen. Prezios eta Zoko jaitsi ziren, alde guztietara beha, Nolwen eta biok nondik agertuko ginen arrangura.

– Kordokaren korapiloa askatzen lagundu didazu. Mila esker, Daniel.

– Ez dakusat zergatik. Onenetan hoberena da Etxepare apeza. Konfiantza egiten diot begiak hertsirik, gure artean diogun eran.

– Arrazoia duzu... Izan funtsa! Kideak aiduru dauzkat. Deituko zaitut zerbait dukedanean.

Bostekoa inarrosi nion. Ahurra motel eta heze zuen gizonak. Ez nintzen nitaz biziki harro, gezurra ez ahoskatu arren, ez niolako egiaren osotasun ankerra bihikatu. Nik ere banekien sekretuak zaintzen.

– Erran diozu? –huraxe izan zen Nolwenen lehen kezka.

– Zer?

– Jana hila dela.

– Ez. Aski goiz jakinen du.

Soa kamionetaren atzealdera makurtuz konturatu nintzen baratzegintzako tresnaz mukuru zegoela. Ehun mila hilarrietako lurra iraultzen eta beste hainbeste zulo irekitzen ahalko genituen. Euritakoak, lokatzean lanean aritzeko jantziak, botak metatuak ziren desordenatuki, bai eta argizaiolekiko proletario burukoak ere. Guztiak gureak ziren. Deborah bolantean zen, Scully belaunetan. Zoko eta Prezios aurreko jargietan nekez kabitzen ziren, gibelean umetzen nindoala Nolwenen besoetan. Misterios zetorkigun Ilse Traumberg psikologoa ondoan genuen. Eskifaia galanta ginen. Eta deliberatua. Deborah bazterrak leuntzeko jaioa zen:

– Musika pixka bat?

– Zorabiatzen garela ahanzteko?

– Scullyri gehien gustatzen zaiona... –bizkitartean ttette beltzaran sotilak txanpa minimoaz saritu zuen bere etxekoandrearen aipamena.

Tracy Chapmanen ahots beroak beribila hantu zuen kasik Zernaitzeraino. Autobidean, eskuak bata bestearen sorbaldetan pausatuz, denbora ilunetako himnoa bailitzan, kantaren erritmoan urtu ginen gu ere:

– All what you have is your soul...

– Inxala!

Zokoren desira auhen hegaldatu zen. Lanabesen azantz metalikoa oihar zebilkigun Zernaitzerako bihurgune bakoitzean. Nire ondareak ikusi nituen kulunkari: aita zenaren dailua eta burdin barra. Eta ez nion estatuari herentzia-zerga izpirik ordaintzen. Net benefizio. *Smile*.

Euri ezkela ari zuen. Zernaitzeko plazan giltzatzeke abandonatu genuen ibilgailu kargatuegia. Hiru urratsetara zegoen baseliza. Ausartzea zegokidan.

– Bakarrik noa.

– Oihu egizu, beharrean!

–22–

Herri txikia zen Zernaitz. Plazaren inguruan lau etxe zeuden, hilerria eta erortzear zegoen pilota lekua. Baseliza deitzen zion Etxepare apezak gotorra bezain apala zen Jainkoaren egoitzari. Belar puloak hazten ziren bidearen erdian eta urarekin batera lohia isurtzen zen arroiletara. Aspaldi hertsi ziren eskolak eta ostatuak.

Jauzi batez kalostrapean aurkitu nintzen Etxeparerekin bekoz beko. Hozki agurtu ninduen. Ez zen alabaina arraileriarako ordua.

– Ongi etorri Zernaitzera –murmuratu zidan bozkariorik erakutsi gabe.

Une horretan nahiago nuen milatan, gozoagoa izan zelakoan, Lasturrera iritsi nintzen Mendekoste eguerdi ondoaz oroitu. Bixente tabernaren jabeak kafea apailatu zidan, eta Miliaren urratsetan eraman ninduen errotaren eta tokiko harri moten bere bildumaren mirestera. Egiaz, Lasturrera ez neraman Zernaitzera nekarren bezalako zama dorperik kasko gibelean. Etxepare aiduru zen. Puntua bota nion:

– Ezagutu zenuen Jana Elgebeltz?

– Bai eta nola. Horrelako pertsona bat ez da erraz ahanzten. Nondik dabil? Aspaldian ez dut haren berririk.

– Txatxo errefuxiatuaz gogoratzen zara?

Begiak zuritik beltzera pasatu zitzaizkion. Umore aldaketaz konturatu nintzen. Bazekien zehatz zertara nentorren, ez segurik Pazkoko mezako, kofesatzeko premia eduki arren. Nire bekatu bakarra bazterrak eta gorotza arraiki nahastea zen. Naturaren kontrako harreman sexual baten eramatea ere bai, agian. Daniel eta Martik kontatua kordelatu zidan: marxismo klaseak, armak erabiltzeko ikastaroak, sasitarren laguntzeko ekintzak, gutun-kaxa sareak osatzea, bizkar-zakuak eramatea, apartamentuak alokatzea eta zuloak noski zulatzea erakundearen artilleriaren gordetzeko.

– Hori guztia egiten nuen egunez, herriko apez soila izanez. Fededunek ez zuten sekula ezer jakin. Halaber, ezker abertzalearen aldizkarietan idazten nuen eta dut oraino. Funtsezko artikuluak, badakizu...

– Baia?

– Nazio eta klase borrokaz adibidez, edo borroka batean irabaziko dutenen aldea hartzearen abantailez, edo literaturak nola zerbitza dezakeen gatazka bat. Gai zorrotzak dira. Euskaldun suhar anitzek egi-

ten dituzten galderak. Irudiz ez zara haietarik. Ez dezakezu ulertu.

– Zu entzun ondoan ez nuke nahi ere...

Gogor ihardetsi niola ziruditan eta berehala damutu nintzen. Etxepare ez zen kantitu. Ohitura zeukan, zioenez bere moduan pentsatzen ez zuten jendeen komentarioak belarri batetik sartzen eta bestetik ateratzen zitzaizkion. Hersturetan trinko ihardukitzen jakitea komeni zela uste zuen aiatolak. Erasoak eraso truke. Hormaturik klikatzen zen talo kausera baitzen mendekua. Haren ezpain plegu handiosak Historiaren zatarretarik bizirik ilkitzearen ohorea seinalatzen zidan. Haizeak inarrosten zituen baselizako teilak, dar-dar. Aire karroindua zebilen gauak zitzikatu aterpean barrena.

– Jainkoari gezurra abestu diezaiokezu, baina lagun proximoari, ezezaguna denean bereziki, egia zor diozu.

– Baina? Nola mintzo zatzaizkit, andere Ezpeldoi? Blasfematzen ari zara. Dena dela, ez dakit Jana non dagoen...

– Jana hil eta Zernaitzen nonbait lurperatu zenutela salatu zidan Txatxok. Ez bere kabuz, noski. Baina,

soizu, pistola xume honen muturrak konfiantzaren hedatzea erraz dezake...

Urrats bat saihets zegien banpez. Jainkoaren mutilak ez zuen armarik nehoiz ukitu, belaunaldiak borrokara akuilatzea zelako bere lana, Txatxorena ordreak ematean zetzan eran. Etxepare hargatik hor zegoen meza sekretuak murmurikatu behar zirenean. Farisauen lerroan sartuko nuen Jondoni Pedro banintz, eta hipokriten infernuko hamazazpigarren zirkuluan Dantek, noizbait nire esku ukaldia premiazkoa balu.

Ahurrak altxatu zituen:

– Merezi zuen gisara ehortzi genuen. Santxo Etxeberri agertu zitzaidan ilunabarrez. Arazo bat zuela orroaz. Kitzikatu eta azkenean jakin nuen zer zen: zer gertatu zaio?, istripu bat ukan du? Mutu geratu zen. Lubarri alderako borda txispil batean utzi omen zuen hilotza otsoen hazkurri.

– Zer egin zenuten?

– Agudo deliberatzekoa nuen. Santxo hautsia zen, pentsatzeko batere ez gai. Apezetxean hilkutxa zahar bat banuen. Nire landroverraren kofrean kargatu eta Lubarrira zuzendu ginen. Eskerrak ez zela hortik nehor iragan. Borda aski urrun dago bidetik, zorionez.

Etxepareren arabera, Santxo gazteak nahi izan zuen, Janaren gorputza armiarma sarez josi hilkutxa hartan berak bakarrik pausatu. Lekukorik gabe. Intimitate osoan. Oihal zuri baten distira sumatu zuen apezak eta hilotzaren pisuak egur idorren kontra zegien klaska elkorra hauteman. Otoitz eta otoitz ari omen zen zainetan zebilen Santxo, harri borobilarekin kutxaren gaina iltzatzen zuela sakre, irain eta biraoka. Zuloa berak egina zuen jadanik izerdi patsaren kostuz.

– Negarra, buztina eta lokatza zerion aurpegian behera, niregana lehiatu zenean. Besarkatuko nuen abere salbaiaren moduan, harrapatu ezina ez bailitzan. Lubarriko txabolatik hamar urratsetara dago Janaren hobia. Metro bat lurraren azpian. Milurteko haritzaren erroen gerizan.

– Eta orduan, Daniel Elgebeltz zure lagun minari ez diozu nehoiz hemen gertatua kontatu?

– Dakigunak bezainbat isiltzen dugunak gaitu salbatzen.

Apez zuhurraren gerriko gurin birletan nire pistolaren husteko gutizia menperatu nuen. Ez zen kargatua alabaina. Hori Etxeparek ez zekien. Keinu bortitzagoa egin nuen. Zilborraren hondoraino sakatu nion arma.

Haize eroak hegatseko teila bat mugitu zuenean izutu egin zen gizona:

– Poliziaren informatzailea zelako zurrumurrua barreiatu zen gure taldeetan. Ez genuen guhaurren seguritatea zalantzan jartzeko eskubiderik. Bazen hainbeste gauza jokoan: armak, diruak, sareak, jendeak.

– Eiki...

– Erakundearen funtzionamenduaz sobera bazekien. Iraultza-zergaren sosez bete maletak garraiatzen zituen Hegoaldetik Iparraldera. Bat atxiki zuen behin beretzat. Dirutza horrekin erosi omen zuten Danielen zapata-denda. Extremadurako kartzela batean minbiziak eroan Kixu gizagaixoari eman zitzaion Janaren zelatatzeko betekizuna.

– Txatxok?

– Denbora haietan Txatxok zituen erabakiak hartzen eta manuak banatzen.

– Jana ehortzi eta zuk segitu duzu zure bizia deus agitu ez bailitzan! Eta informatzailea ez baldin bazen, zer?

– Erakunde klandestinoaren antolakuntzan justifika ez dezakezun apurraren erruduna zara. Heriotzaz gaztigatu zaitzaketela jakin badakizu sartzen zarenean. Batera doaz sekretua eta zehargitasuna.

Huts neukan urdaila botatzear nengoen. Behazun kirats oldeak nabaritu nituen zintzurrean gora aho sabairaino uhin igotzen. Ez nion Etxepareri damutzea galdatzen, borrokalari sutsu moduko erantzunik ez niri egitea baizik, jendetasun eta malgutasun gehiagoren erakustea, hots. Totalitarismoa, beltza edo zuria, azpatzen zuten diskurtsoez asea nintzen. Bat nentorren alabaina Hannah Arendtekin: hizkuntzak ez zuen hobenik, baina bego aitorra niretzat, ideologiaz kutsatu, tatxatu eta zikindu mintzaira honek gogaitzen ninduen. Perpausak egundainokoan adjektiborik gabe formateatzen zituen euskaldun arruntak, sentimenduen eta ikuspuntuen alorrean bederen, izakiak hizkuntzatik kanpo geratu behar bailuen. Euskararen tragedia zen oro har: mintza bedi, ofizialtasuna lortu beza redios, bai horixe, baina ez dezala sekula deus erran, deus erran bereziki haragiaren ikaraz, politika mailako dudaz edo erakunde zein elkarte sakrosainduetako zorri-zakuez. Espektroa genuen harilkatzen.

Zainetan nintzen. Pistolaren mihia zanpatu nuen. Tiroa partitu zen. *Merde,* bala bat bazen! Transporterrean aizolbetzen ziren adiskideak ernatu ziren tarrapataz, itsuskeria bat suertatu zela beldurrez.

Emakume izutuak sosegatu ziren bizirik nintzela frogatzean. Borobil trinkoa marraztu genuen Etxepare apezaren inguruan. Deborah-ren kamioneta seinalatu genion:

– Lubarrira gida gaitzazu. Janaren gorputza atzemanen dugu eta afera horretan busti direnak banan-banan auzipetuak dirateke.

– Hogeita bost urte! Pentsa! Preskripzioa bada...

– Zaude isilik!

Nolwen Kergelen kapitainak sudurpean landatu zion komisario karta. Apeza deabruaren aurrean bezala urdindu eta mututu zen. Ez zuen ulertzen nondik eta zergatik zetorren baratzegintzako tresnez eta neskatila apetizantez mukurutu beribila Zernaitzera. Hala ere entzuna zuen Daniel Elgebeltz bere arrebaren atzetik zebilela. Ondoriorik gabe oraindinokoan. Irudiz, detektibe bat kontratatua zuen eta egia lehertuko zen uholdeetan baradera ahulak erroizten ziren moldean, hegiak behin betiko itoz. Pistolaren muturra hezurretan, Etxepare dardaraz zebilela ohartu nintzen:

– Lubarrin gaude. Zein haritzen azpian lurperatu zenuten?

– Ez dakit gehiago... Ez naiz oroitzen.

– Neskak! Jaitsi ezazue materiala! Euritakoak ere bai. Honek ez du gelditzerik!

Argizaiolekiko espeleologo burukoak jarri genituen. Marra fluoreszenteekiko aterkiak. Galtza eta bota gorakoiak. Bakoitzak aitzurra eta pala eraman zituen. Salbaiki bulkatzen nuen Etxepare, aita zenaren burdin barra neramala ezkerretik. Lubarriko bordaren aldameneko pentzean hamar bat milurteko zuhaitz bazen. Baten parean geratzen ginen, Etxepareri galdatzen genion eta gehienetan kopetaz ezezkoa zinominokatzen zigun. Kaskoetako argi zirristak haritzen larru-azaletan itsasten zitzaizkigun. Azkenaren parean zutundu zen apeza:

– Hau da.

– Segur zara?

– Bai. So egizue: gurutzea dakar. Santxok labanaz urratu zuen. Amaia Ezpeldoi, apaldu ezazu otoi pistola hori. Izutu egiten nauzu. Ez zaituztet engainatuko.

– Hobe zuretzat.

Gurutze doia ageri zen. Haritzaren erroen artean belarrak zoharragoa zirudien kriseiluen distiretan. Laster lurpetik idokiko genuen zoritxarreko Janaren kutxa, bai eta denboraren buruan zurbildutako hezu-

rrak. Etxepare negarrez urtu zen. Akitua eta etsitua zen.

– Alea jacta est.

– Ez da latinaren baliatzeko tenorea. Hemen zen edo ez?

– Hemen zen.

– Zula dezagun bada. Zotükatü gitean...

Ordreak aldion nik nituen ematen, zuberotarrez audela. Arrantzale sokaz haritzaren abarrik apalenean lotu nuen Etxepare. Suge harroa bailitzan oldartu zitzaidan:

– Ez dut ihes egiteko ohiturarik.

– Horrela ez duzu aukerarik ukanen.

– Sakrilegoak zarete. Vade retro Satana.

–23–

Preziosek, emazterik indartsuena baitzen, mazoa deblauki hartu eta nik axis mundi bailitzan netxikan burdin barra jotzen zuen arraiki. Etxeparek seinalatu lekuan egiazki zerbait bazegoenez segurtatu behar genuen zulatzen zinpurtu aitzin. Ez ginen debalde unatzeko prest. Euriak kamionetaren hegatsean zegizkien kloska ozenei gehitzen zitzaizkien arotzen zoriona emendatzen zuten tresnen oiharrak. Ilse, Zoko, Deborah eta Nolwen begi luzeekin so zeuden. Scully aldiz jauzi eta txanpaz zebilen, barbari bau bau mamuaren balizko etorreraz guri abisatzeko bezala. Burdinak zerbait ukitu zuen. Lagunak bukaerarik gabeko oooooa ahoskatuz gibeleratu ziren. Hilkutxaren tapakia edo haritzaren erroa zen? Apezak eeeeeka zerraikan:

– Hor da! Zuzen ari zarete!

– Bakea emaguzu, arren.

Klera zuriz markatu nuen kutxaren eremua. Belar tustoak iradoki genituen lehenik. Landa bustia zen, baina hotzik ez. Aitzurra altxatu eta apaldu aritzen ginela berotzen ginen nolabait. Ilsek ukaldi ederra zue-

lakoaz konturatu nintzen. Irudi zuen bizitza osoan ez zuela besterik egin. Nolwenek hasieran ez zukeen zikintzeko gogorik, baina txapla lerratu zen zipoetan, ez zuen halaz saka-saka ekiteaz beste aukerarik. Bere djellaba eta buruko plastikozko beloarekin nekezago ari zen Zoko. Prezios! Champion! Bota aztal zorroztunak oinetan, Deborah karratuaren hegian zegoen, maiasturuen metro horia erakutsiz. Bazter batean eseri nintzen kideen laneko jaidurak aztertzeko. Nolwen hurbildu zitzaidan. Lur heze gustua zuen musuz gatibatu zizkidan ezpainak:

– Etxepare askatzen ahal zenuke!

– On du, bai, mina zer den ikastea...

– Normalean ez zarela hain gaiztoa pariatuko nuke!

– Irabazia!

– Zerk zaitu horrela erotzen?

– Kontzientzia hoberenarekin krimenik likitsenak bete daitezkeela ondorioztatu berri dut. Eta horrek sutan jartzen nau. Krimen diodalarik, krimen errealez eta krimen metaforikoez mintzo naiz. Zenbat jende ez da euskal mundutik urrundu Etxepare apezaren antzekoek epaitu, baztertu eta kanporatu zituztelako? Badakizu zuk?

Ez zekien. Alabaina, funtsean zertarako balio zuen jakiteak ere? Bretainiarrek, bistakoa zenez, nortasun arazoa ezberdin irakurtzen zuten. Nolwen besoetaratu nuen nire ertzo bulta barkatuko zidalakoan.

Anartean zuloa handitzen zihoan. Ilsek aitzurra Deborah-ri pasatu zion. Fideliok bezain maisuki zerabilten pala zaharkitua Zokok eta Preziosek. Lur metak ketan punpuilatzen ziren karratuaren aldamenean. Hilkutxa metro bateko barnetasunean baldin bazen, langintzak iraunen zuen, eta agian gu ginen bukatu baino lehen akituko. Aita zenaren burdin barraren arabera bederen, laurogeita hamar zentimetrotan zetzan.

Aitzur pikotxarekin ebakitzen nituen zango sagarreraino heltzen zitzaizkigun zuloaren hegiak. Urrun ginen oraino. Saka-saka ari nintzen, auhen lakarrak artekatu eta oldarra aski goratik emanez. Haur denboran ikasi keinuak zetozkidan berriz memoriaren harrotzera, orainaldi ito hau eta iragan lehor hura olde berean ezkontzen bailiran Jana Elgebeltzen gorpuaren harrapatzeko. Daniel anaiaren tristezia dorpea irudikatzen nuen zegoeneko, Julieta adiskidearena eta Janaz maitemindurik zegoen Marti Izoztarena. Lubarriko pentze galduan are kalipu gehiagorekin irekitzen nuen behialako katastrofearen ildotxoa. Aitzurra, pi-

kotxa, pala eta pertzak. Aldizka ari ginen elkar ez trabatzeko. Laborantza lanetan ez usatuak, laster kolpatzen ahal ginen.

Ozenak ziren Etxepareren intziriak:

– Libra nazazue! Libra nazazue!

Ez ginen bihozkatzen. Txandak kanbiatzen genituen. Briu-brau. Jada belaunetaraino kabitzen ginen zuloan. Ez zen ezer ageri. Espero nuen hilkutxa genuela zinez aurkituko, ez eta milurteko haritzaren alimaleko erroetarik bat. Apezaren benedikazioa erdietsia genuen. Segurtatu zigun ez zuela nehoiz gezurrik ahoskatzen, baizik eta egiak ez osoan azaltzen. Konfiantza egin behar zen une latzetan. Apurturik zen Zoko:

– Pausatxoa zilegi dugu?

– Uste duzu badugula denbora?

– Kafea ekarri dut.

– Ahah... Gaitezen jendeki bizi, beraz.

Jario beltzez arradatu plastikozko kikarak buhari, zuloaren inguruan plantatu ginen behialako kantonier gutxietsien posizioan: kokotsa puñalaren gainean eta ahurra lanabesaren giderrean bermaturik. Historia likitsaren hariko hezurrak bilatuagatik eta Kamasutrak zerrendatzen ez zuen arren, aitortzekoa dut egoteko

erarik lizunena iruditu zitzaigula. Ahoetarik kea ihesi zihoakigun hurrupaldi bakoitzean.

Etxepare marmaraz ari zen:

– Eta niretako kaferik ez duzue ala?

– Ez duzu merezi.

Kafe kontuetan trebetasun handia zuen Zokoren ebazpena zen. Deborah-k kamionetako entzungailuan Madonnaren arrakasta bultzatu zuen: *Give me all your Luvin'*. Tornuari lotu gintzaizkion musikaren neurrian. Wittig Bar-eko ezagun guztiak deitu beharko genituen. Ziuntaz aitzinatuko ginela orduan! Baiki. Seion artean hargatik ez ginen hain gaizki konpontzen. Aitzurrarekin eta pikotxarekin ari zirenak gerriraino sartzen ziren lurrean. Palariek beso aldeak mugitzen zituzten buztina kanporatzeko eta mokor astunak lekutzeko ibilbidea zabalduz.

Hirugarren orduaren buruan garrasi bat bota zuen Preziosek:

– Hor dago.

Zuloaren bihotzera apaldu ziren soak oro. Ez zegoen hiro urrinik. Zossima baino sainduago zena Jana? Isiltasun bitxia hedatu zen Lubarriko bordaren kantoietan. Arbolari zintzilikaturiko apezaren zintzur-ka-

rrankak aditzen ziren. Prezios erizainak lehen diagnostikoa oparitu zigun:

– Oinazpian dudana egurra da.

– Erroa izan daiteke?

– Bai, baina, zaude kuzkurtu nadin. Erroa baino leunagoa du azala. Taula landua dirudi.

– Askatu beharko genuke, ez?

– Amaia, emadazu zure burdin barra.

– Kasu egizu! Ez andeatu, otoi.

Prezios zen zuloan lehertzen. Argizaiolarekiko kaskoaren kolore jauzikaritik jarraitzen genuen. Ahaha garratzak entzuten genituen. Herioaz bestaldeko boza iritsi zitzaigun:

– Pertzak igorri iezazkidazue soberakin hauen kentzeko. Agudo!

– Oizu... Zer dago zure oinetan?

– Kutxa bat. Agian ez ditugu sokak ahantzi?

– Bere sexu-joko masokistetakoak ekarri ditu Ilsek.

Irriz zalapartatu ginen zuloaren ertzean juntatuak. Haserre zen Etxepare:

– Ez duzue hilen errespeturik ere? Non bizi naiz? Kauensos! Emazteak elkarri musurika bargoen antzera eta hobiaren ezpondetan karkaraz, dantzaz eta arraileriaz.

– Gizon baten eta korda honen premia ukanen dugu. Libratuko zaitut. Gure bestatxoan parte har dezakezu. Ez zaitez balia haatik eskapatzeko! Den mendreneko keinua marrazten baldin baduzu kalituko zaitut. Pistolarekin erdi mentsa naizela badakizu...

– Ohartua naiz, bai. Axuria bezain prestu egonen naiz. Hitza hitz...

– Edo apeza bihits.

Helburuari hurbiltzen gintzaizkion. Ilse, meheagoa, zulora jaitsi zen eta makilatxoz txirikordatu gurutzea jalgi zuen. Janaren hilobia aurkitu genuen. Zorte on pitta bat ukan genuela ezin uka.

Arazo tekniko askori buru egitekoak ginen oraino. Nola pasatu soka kutxaren azpitik? Zelan eraman lurraren sabeletik belardiraino? Deus galdatu gabe nire duda-mudak argitu zituen Etxeparek:

– Kutxa itzulika ezazue eta soka beheretik iragan. Hortik aitzina denen artean airera ekarriko dugu bai arauz? Nahi baduzue sokaren jartzeko sakrifikatuko naiz...

– Txanda aldaketa! Ilse!

– Banoa, banoa.

Zipli-zapla genbiltzan. Lerratzear. Meategietako langileen moduan beltz genituen begitarteak. Ater-

kiak zeharkatzen zituen euri etengabeak. Ordulariari behakoa bota nion. Gaueko hamaikak eta erdiak ziren. Biharamunean Pazkoa zen, igandea, eta Lubarriko herri deusezean geunden gu, lokatzean ihalozka, hogeita bost urte lehenago desagertu neska gazte baten hilkutxa barnetik mirazkatzearen zain. Likitsaren ardoa ahastaraino edatekoa genuen engoitik.

Etxepareren zanpak ametsetarik iratzarrarazi ninduen:

– Hara! Sokak prest dira! Hiru kideekiko talde bi molda itzazue sokaren punta bederetan. Hemendik haiatuko zaituztet!

– OK...

– Eta gauza bat! Alde berera tiratuko duzue denek. Bestela ez gara sekula helduko.

Apezaren aldia zen karkaza gordinaren askatzeko. Indarka sumatzen genuen. Zinez ari zen. Astuna zirudien gora zetorren kaxak. Agertu zitzaigunean harritu egin ginen. Soka abantzu laxatu genuen. Petik hatsanka zebilen bultzatzailea izutu eta bristan jalgi zen ireki genuen sarraski zizkolatsutik. Lohiz emokatua. Akitua. Begi bistan geneukan zera. Gau ainarak eta harpe txoriak mututu ziren. Euria gelditu zen. Urruneko zakur zaunka baten oihartzunak kamionetako aitzineko jar-

gietan lotan zegoen Scully esnatu zuen. Deborah-ren altzora hupatu zen. Hilkutxaren inguruan nehor ez zen urrats baten egitera atrebitzen. Apeza ere hormatu zitzaigun.

– Duela mende laurdena ukitu nuen zera hau. Hementxe dago Santxo Etxeberri gizagaixoak trentzatu gurutzea. Ez litezke sekula santan goroztegi zatarrak inarrosi behar.

– Anaiari zor diozu.

Lanean mailegatu erratzarekin xahutu nuen mutxituriko kutxa. Etxepare belaunikatu egin zen besoak zabalik. Lubarri alta ez zen Golgota! Deborah eta Zokok berdin egin zuten. Ilse haritzaren maldan kuzkurtu zen. Nolwen keinuka ari zitzaidan:

– Eta orain zer?

– Irekiko dugu. Ez dugu beste egitekorik, ez?

– Zure esku! –desafiatu ninduen andraideak, burdin barra aurtikiz.

Izuzko uhinak nabaritzen nituen nigan igotzen. Kemena eskastuko ote zitzaidan? Astebete Janaren hatzetarik genbiltzala eta T tenorean zalantzaz malgortzen ari nintzen. Ez nuen nire burua ezagutzen. Ausartagoa nintzen normalean. Herioaren aurrean normalitatea zer zen galdatu nuen nirekiko.

Burdin barrarekin lau kantoietako iltzeak jauzarazi nituen. Erdikoak bigarren oldean. Kutxaren tapakia mugitu zen eta zizkek ausiki mihise tartaila zirtzildu zitzaigun.

–24–

Haize buhako azkarrak harritzen gintuela, kutxaren tapakia sotilki baztertu nuen burdin barraz. Ez nekien zer igurikatzen genuen, harrez eta zizarez troxatu hilbiziekiko film amerikarretako piztiaren baten agertzea agian. Ireki berri genuen zuloa bezain sakon genituen begiak. Plastikozko eskularruak jantzi zituen Nolwenek eta, zainetan bezala, oihal zaharkituaren izkina altxatu zuen. Bigarren puska bati ekin zion sinets ezin:

– Baina... ez da gorputzik barne honetan!

– Zer diozu?

– Ez dela hilotzik? Nolaz?

– Norbaitek ebatsi egin du! Eta harriz bete du ordainean...

– Urrin zakarra dator ordea.

– Pasatu den denborarena, menturaz.

– Jainkoaren miserikordiak zaindu gaitzala –amildu zen Etxepare apeza; otoitzean zerraikan, ohar lurtarregiak lerrokatzen genituen bitartean.

Hilobia zabalduz uste genuen gure hersturen hondarra helduko zitzaigula, baina misterioa lodiagoa baizik ez zen. Gordinagoa. Dorpeagoa. Paradisuak eta in-

fernuak urrikalmendu uhin bakarrean juntatzen ahal zitezkeen arren, ez gintuzten ateka gaitzetik ilkitzen lagunduko. Betikoa errepikatzen nuen: mende laurdenak irentsi ote zuen Janaren gorpua? Non zegoen? Hezurrik ere ez zen azaltzen hondoan.

Zurezko egoitza umilaren zoladura arakatu nuen. Kantoi batean emakume-poltsa bat aurkitu nuen: beltza, larruzkoa, errautsez emokatua. Nolweni eman nion. Argitxoarekin erraiak zirikatu zizkion.

– Ezpain gorritzekoa, orrazia, mokanes lilitsua, antisorgailu plaketa, hamabost liberarekiko moltsa marroia, preserbatiboak, paper zuri bat zuzenbide batekin, irakurgaitza, rimel hodia, etxe bateko giltzak eta Jana Elgebeltzen nortasun agiria.

– Ez da besterik?

– Zer espero duzu?

Nolwenen ahotsaren bortitza neurtu nuen. Aurkitu genuena baino gehiago igurikatzen genuela aitortzekoa nuen. Scullyren txanpa alegera hauteman eta kopeta inguratuz, ohartu nintzen, lohiz arras bezti, kamionetaren aizolbera lehiatu zirela Prezios, Ilse, Zoko eta Deborah. Osatua zuten misioa! Euria hasi zen eta hobe zen edozer gisaz aterpetzea. Etxepare apezarengana zuzendu nintzen Nolwenekin. Zernaitzeko kalos-

trapean erabili pistola jalgi nuen sakelatik. Oraindik belauniko zetzan gizon xifrituaren belarri gibelean plantatu nion, nahiz eta ez nintzen Nikita ospetsua.

– Badukezu zerbait errateko...

– Dakidan bakarra, duela hogeita bost urte haritz honen maldan ehortz meza laburra murmuratu nuelakoa da, Janaren gorputzarentzat neronek atzeman kutxaren aitzinean. Santxo Etxeberrik egin zuen zuloa. Behar zenukete haren elerratera joan nire arima torturatzen jarraitzeko partez.

– Janaren aurkako kontratua bazela jakinean zinena?

– Zer edo zer banekien. Erakundean molde batez edo bestez dena ikasten zen. Handik edo hemendik. Haatik, erabakia hartuz gero, ez genuen makina geldiarazten ahal. Ibili zebilen harri borobilaren parekoa zen, guztiak lehertzen zituen abiaduraz hantzen zenean.

– Noiz ikusi zenuen Jana azken aldikoz?

– Ehortzi genuen aitzineko astean preseski. Zernaitzeko apez etxera azaldu zitzaidan izuturik. Zurrumurruen arabera sentitzen zuen hilko zutela, eta ez etsaiek, taldeko adiskide propioek baizik. Koloreak zurbil zituen eta ageri zen aspalditik ez zuela bazkal-

du. Eztia, intxaurrak eta ogi puska bat eskaini nizkion sosega zedin. Hapataka jaten zuen, abere ehizatua bailitzan. Janaren lasaitzen saiatu nintzen. Debalde. Ordularia martxan zegoen bere tik-tak lanzinanteare-kin. Eta geldiarazteko molderik ez.

Hatsaren hartzeko isildu zen Etxepare. Hitzak mihi puntan eta hortzen harresian kolpeka ari zitzaizkiola nabari zen. Hustu behar zuen, behingoz norbaitek nonbait bere antzinako axola gabezia barkatuko ziola-koan. Matela umelaren eremua kilikatu nion pistolaz.

– Eta?

– Banekien eta... ez nuen ezer egin. Alderantziz, erakundeko botere mailarik gorenaren deliberoa sos-tengatu nuen, arazoak ekiditeko. Janak, aldiz, zintzoki ezeztatu zuen leporatzen ziotena. Histeria bulta bat pairatu zuen. Orro egiten zidan ez zela egia 400.000 frankoak ebatsi zituela eta, are gutxiago, Poliziaren in-formatzailea zela. Buruzagitzako norbaitekin hitz egin nahi zuen berehala. Ez zuen hiltzeko xede izpirik. Uler-tzen nuen, gaztea eta polita baitzen, denoi bezala etorkizuna eskubide zitzaion.

– Salbatzen ahalko zenuen?

– Bai eta ez. Kordoka latza zen: begira, salbatzen banuen, ni ninduten hiltzera kondenatuko... ez ba-

nuen salbatzen, kontzientziak ninduen betiereko damuetara kondenatuko. Erakundearen agiri sekretuetan izkiriatua konplitzera utzi nuen. Funtsean, kontzientzia ez da pistola bezain lanjerosa. Hautua nire alde trenkatu nuen.

– Biba zu!

– Bake ederraz gozatu nuen zuek Zernaitzera hurbildu arte.

– Non dago Jana?

Terrenta bihurtzear nintzen. Janaren exekuziora eraman urratsak hobekiago ulertzen genituen orain. Zena zelakoa, Daniel Elgebeltzen arreba ez baldin bazen hilkutxan... nonbait bizirik iraun zezakeen, ez? Ametsetako lukainkaz asetzen nindoan. Hargatik Etxepare apeza mistifikatua izan zen. Janaren berririk ez zukeen. Sinesten ahal nuen. Edo Santxo Etxeberrik erail eta leku zokoratuago batean ehortzi zuen Jana debaldeko zeremoniarik gabe. Baikortasunaren eta ezkorkeriaren artean balantzan nenbilen: bizirik zen Jana... hila zen Jana. Argia... iluna. Zalantzak erausten ninduen.

Nolwenen gerriari uztartu nintzaion andraidearen soinaren berotasunaz izpirituaren jabaltzeko. Etxepare keinuz ari zitzaidan:

– Uste dut Daniel Elgebeltz eta Marti Izozta adiskideekin iraganaz mintzatzeko prest naizela. Luzaz ihesean ibili natzaie, apez nintzelako aitzakiaz, baina bereziki Janari gertatu zitzaiona ez nuelako erabat asumitzen. Aho sabaian bilisaren kiratsa itsasten zitzaidan. Gauez, lotarik, askotan Daniel elizako atean danbaz irudikatu nuen, arrebaren berriak ukan beharrez. Bistan dena, Elgebeltz jauna ongi ikasia da eta ez du nehoiz nire nardatzeko jaidura gaitzik izan.

– Zorte handia duzu.

– Galdatzeko deretxoa zuten. Erakundearen organigrama eta abertzaletasuna ikur zeramatzaten kideen haroa errespetatzen zuten, sobera eskakizun kritikoetan zinpurtzeko. Janaren ingurukoak, beraien itzalekin, jende onak dira. Ez ziren sekula nireganatzen ausartu. Jendetasuna finkatzen duen tasunetarik bat, alta, bizitzaren segurtasunaren mugetan ernatu arranguren zirikatzeko ahalbidean datza. Erabat.

Hausnar elkorrez, elge zurbilean hedailo ezarri zen Etxepare. Kamionetatik ez zetorren zarata mikorik. Baldintza zailetan pausatzen zeuden lagunak. Scully barne. Nolwenekin, segidan tapatu genuen zulora botatu genituen hilkutxaren aztarnak. Janaren esku-poltsa genetxikan ordea azterketa gehiagorako. Paper

purtzilduko zuzenbidea Nolwenek argituko zuen Poliziaren baliabideekin, eta preserbatiboan gatibatu esperma tanta idortuen DNA premiazkoa suerta zitekeen Janaren hondar sexu-partaidearen nortasunaren ezagutzeko. Jende arrunten memoria ez bezala, memoria genetikoa nehoiz ez zen ezabatzen. Munduko biziteriaren historia idatz genezakeen permiar aroko seigarren hormatzearen ondorioz harrietan kontserbatu hazietako DNA xingolei esker. Pentsamendu biribilak baztertuz, palakada galantak hegaldarazten genituen bozkariotsu, elkarri sorik gabe.

Zuloa eta hobia izan zen lekuan belardiaren tapiz orlegia hedatu genuen. Merezi baizik ez zuen bakearen meneko utzi genuen milurteko haritzaren malda. Ordulariari behatu nion: goizeko biak ziren Zernaitzen. Pazko eguna hastera zihoala oroitu nintzen laneko arnesak kamionetara eramatean. Pazko eta hamaika Aberri Egun, hamalau aldarrikapen, hogeita sei anatema eta berrogeita zazpi garagardo godalet. Ni ere Pazko azkorriz sortua nintzela kantatzera nindoan, atzetik zetorkidan Nolwenek besarkatu ninduelarik, tinki eta trinko, musuz estali aitzin. Larrua lokatz malguan bertan joko genuen, zelatari egon ez balira

Scully zakurra eta apeza. Fama txarrari ez genion txarragorik erantsi nahi.

Etxepare zutitzen lauhazkatu nuen. Jana bizirik zitekeen eta ez nukeen harekin zeken eta zakar izateko arrazoirik. Pistola paltoko gordagian nuelakoaz segurtatu nintzen. Gizonak kamionetarainoko eremua plistiplastatu zuen:

– Elerran ezazue Santxo Etxeberri!

– Justuki! Ez dugu beste ideiarik! Non kokatzen den badakikezu?

– Otsalar komandoari esku ukaldi zenbait eman zizkion. Baionako Barrako altzairutegietan ari zen lanean, plan sozial baten karietara kanporatu zutenerainо. Ordutik Anzibarren errotu da, bere amaren sortetxean, bio labelarekiko laborantzari arras emana.

– Errekonbertsio ederra.

– Originala bai! Bio hori aberatsentzat da. SMICa irabazten duenak ezin du janari onik erosi. Zergatik bio kozinatu, hanburgerrak hain sanoak eta merkeak direlarik?

– Galduko zara jauna... Baselizara garraiatuko zaitugu... Aski lelo gaurkoz! –ahots nekatua zuen Nolwenek.

Ez zitzaion bio ekoizpenen aurka mintzatu behar, Enez Eussako landetan ahizpa eztigile eta ongailu zein belarzidarik gabeko baratzekari baitzeukan. Baiona gustatukoa zuela aitortzen zidan baina zerbait falta zela: hiri handietan, Wiesbadenen ere ikusi genuen halakoa, kausitzen ziren supermerkatu erako bio denda bat edo beste eskas zitzaizkion arras zoriontsu izateko. Maitale sutsua bederen bazuela ihardesten nion aldikal, barrezka. Arraileriatik aldenduz, hargatik bagenuen oraino bide Baionako ohantzeetara itzuli aurretik.

Etxepare, kantonier arnesak eta biok kamionetan sartu ginen, atseden hartzen zeudenak iratzarraraziz. Antzara karranka galantak sumatu genituen.

Etxeparek burua apal zetxikan. Apez etxean agurtu genuenean, jendetasunez, kafearen edatera gonbidatu gintuen. Astirik ez geneukan. Eskaileretan gora igo zen trinkili-trankala eta borta klaskarazi zuen.

– Nora goaz orain?

– Anzibarrera –erantzun nion Zokoren kezkari–, Santxo Etxeberrirengana. Goizeko seiak arte itxoingo dugu laborariaren lo-hausnarra ez trabatzeko. Harrituko da, harrituko dela!

– Agian Jana bizirik dago –Ilseren boza zen: gozoa, beroa, amoretsua.

Bagenuen adiskidetasun arduratsu horren sentimenduaren premia, izugarria. Argi zenez, gure itxaropena handik oren apurretara, Santxoren agerpenen arabera, hautsi eta puska zitekeen. Ahula zen miraila. Handia, arriskua. Herioaren erresumatik gentozen pikarrai.

Bizkitartean Nolwenek zuen gidatzen, astiro. Zurrunga pare baten musika erlastuak gintuen behingoz memoriaren pleguetan hara bultzatzen.

–25–

Hogei kilometro baziren Lubarritik Anzibarrera, bihurguneak bihurgunetegi, bide zati zut-zutak, holtz gorakoiak eta angelu bitxiko zubiak. Hirugarren dimentsioko herrialdea zeharkatzen genuela zirudigun. Mutu geunden. Beldurra bezalako zerbaitek kilikatzen zizkigun erraiak. Arrain begiekiko bizidunak aski genituen gurutzatzea eta gureak auteferafutro zegikeen. Bitxia zen. Scully zaunka ments zegoen. Hodeiek noiztenka agertzera uzten zuten ilargiaren distirak bihikatzen zuen lantxurda ari zen, eta arbolen abarrek balizko mehatxuak iragartzen zizkiguten ilunean. Udaberria zen baina oraindik sahatsak baizik ez ziren lili.

Etxeparek seinalatu xendratik iritsi ginen Urkia izeneko Santxo Etxeberriren baserrira. Euria salbu, bazterrak lasaitasunaren itxura eskaintzen zuen. Molde zaharreko egoitza zen Urkia, mende erdia zuela arraberritua. Saihetsean hangarra eta urdandegiak hedatzen ziren, gibelean selaurura pasatzeko zurubia eta ezkerraldean oilategiak. Hautinaren kantoian erle kofoinak zehazten genituen. Naharrez setiatua zetzan etxea, mihimenez, asunez eta edozein laborari moder-

nok roundupa zitalarekin kalituko zituen belar tusta salbaiez.

Goizeko laurak ziren. Ez zen jende plazenten esnatzeko tenorea. Kamionetan lotan zeudenak bultzatuz, Nolwen eta biok halaber, pausa sakratuaren eratorrian urtu ginen.

Oilar zoharraren kukurrukuak ametsetarik idoki ninduen. Desertuaren erdian nenbilen, gose eta egarri, Jana non zegoen eskatzen. Karabanak lerratzen ziren, bihotzean neraman arranguraren soleitzeko betarik gabe. Antsiak kiribilkatzen ninduen. Janaren gorputza bilatzen nuen tematsuki, errabiaz, hezur parea edo den mendreneko hatz ñimiñoa. Askorik ez. Hilkutxan aurkitu poltsatik gatibatu nortasun agiriko Janaren argazkia erakusten nien urrats nagian hondarrak, dunak eta oasiak zeharkatzen zituzten gameluekiko ibiltariei. Gatz puskak oparitzen zizkidaten, oihuz iraun nezan basamortuan, iraun nezan ezinezko amodioak iruten, iraun nezan Janaren atzetik. Uste dut Ilseren ahotsarekin batera oilarraz ohartu nintzela.

– Amaia, zer duzu? Oizu ur ttilika bat... Ez da ezer. Lasai.

– Non nago?

Prezios, Zoko, Deborah eta Nolwen arnas hautsien erresumatik jauki ziren. Scullyren punpa arinek alegeratzen gintuzten. Intzeskatu ginen, besoak tiratu ziren, aharrausiak borobildu eta Zokok bezperako kafe termoa ireki zuen, kikarak arrada bete eta erronda unatu baina zoratuari gogotik eskaini. Jario beltzaren usainak inarrosi gintuela ezin uka. Egun berri bati ekiteko prest ginen alajainkoa!

Baratzegintzako tresna lohituetan jarririk lerrokatu genituen bezperako gertakariak. Garrantzitsuena hilkutxa hutsa zela errepikatzen genuen.

– Parioak hartzen ditut –buhatu zuen Deborah-k–: Jana bizirik. Jana hilik.

– Debbi, otoi... –Zokok artetik–. Ez da horrelakorik egiten desagertu baten bizkar.

– Jostatzeko da. Animatzeko. Bestela Janaren ingumak gu ere irentsiko gaitu. Beharbada erakundeak, elkarte entzutetsuek eta elestatu ditugun arduradun handiek hori dute lehia, hiritar kalakari arruntok, hipotesia zurrunbiloak, gorputz eta arima, eraman gaitzan, trenpu txar eta burtzoro, ekin molde entropikoa hobetsiz. Ez da lehen aldia zuzendaritza bati, zuzendaritzara hain zuzen bultzatu duen herria jasan ezin zaiola.

– Zein kementsua zaren, Deborah!

Kalipua behar zen, alabaina, eguna ez zelarik oraino Deborah-k harilkatuaren antzeko pentsuaren txirikordatzeko. Eta neuronak orekan! Ilsek miresmen burlaria erakutsi zion *Jana bizirik* erantsiz. Jokoa abiatua zen. Bakoitzak berearen alde aurtikitzen zituen bost euro, Zokoren maneran jadanik, Debbi deitzen genuenaren zetazko kapelura. Irabazi zuelakoaz harro, Leonard Cohenen *Old ideas* KDa bulkatu zuen, eta negro espiritual baten moduan bastatu *Going home* ukigarriaren poderioz samurragoa bihurtu zen kamionetako tepua.

Bat batean Urkiako argizaiolak piztu ziren. Seiak eta erdiak pasatuxean. Gizon bat azaldu zen atarian makilarekin. Alderik alde beha zegoen norbait igurikatzen bailuen edo pixa kanpoan egitear. Etxepare apezak salatu bide zion telefonoz edo e-mail goiztiarrez, emazte pinpirin saldoa Jana zenaren gibeletik zebilela. Dena zen posible, komunikazio erregearen garaietan. Deborah-k lobiroko kirillara hurbildu zuen sasiaren itzalean zegoen Transporterra. Gizona doi-doia higitu zen. Ez zuen keinu berezirik bostekoa tinkatu nionean:

– Banekien noizbait norbait etorriko zela.

– Santxo Etxeberri jauna?

– Bai, hura eta bera. Etxeparek deitu dit. Beldurra hezurren muinetaraino sartu diozu. Pistolarekin zabiltza ala?

– Batzuetan derrigorrezkoa da. Kargatua ez den arren. Futxo bala bat gelditzen zitzaion eta Zernaitzeko kalostrapeko *Monument aux morts* delakoaren marmolak pairatu zuen barda.

– Aitzina, andereak!

Ezkaratz hezea trabeskatu genuen. Upelak, ardo barrikak, golde nabarrak, sardeak, timoiak, atelak, zareak, saskiak eta euritako jantziak nolanahika metatuak ziren. Pentsatu nuen: etxe honetan ez dago emakumerik... eta ziztuan damutu ere bai, epaiaren matxismo kargaz jabeturik. Bazitekeen Santxok ordre letala baino desordrea maiteago izatea.

– Barkatuko didazue, ez dut garbiketaren egiteko astirik ukan. Ahal dudana dagit Maiana zenduz geroztik.

– Maiana?

– Nire emaztea. Kafea berotuko dizuet. Akituak zarete. Ez da erraza hiritarrentzat gaua lur lanetan higatzea! Babak dituzue ahurretan, ezta? Ezerezen kausitzeko gehiago dena...

– Etxepare apeza zizpildua zen –Santxoren trufairea ebaki nuen–. Uste zuen hilkutxaren sabelean Janaren hilikiaren atzematea.

– Istorio luzea da. Eta tristea.

Bulta honetan mutxitzen utziak zitezkeen bizkotxoak jalgi zituen armairutik eta kafea zerbitzatu zuen. Uraren beltzatzeko suteko ikatza baliatzen zuen Maripetipierra izeba itsuarenaren pareko edaria zen. Botatzeko gutizia zapaldu nuen eta irri zoriontsuz eskertu nuen Santxoren onezia. Faltsua izaten banekien nik ere, ez hain aspaldi ikasia. Mahai buruan plantatu zen sorbaldak lehertuak.

– Istorio luzea da; eta tristea, erran dizudan bezala. Tristea ezen hogeita bost urteko epea garatu baita norbait Janaren bila abiatu artean. Tristea berdinki, isilik eta mutu egon garelako. Nitarik haste.

– Bizitzak ziren jokoan.

– Bai, Janarena bereziki. Kixu mihi gaiztoaren ustezko segipenen ondorioz heriora kondenatu zuten, Polizia Sekretuaren informatzailea omen zelako. Zuzendaritza Batzordea Iratiko oihanean juntatu zenean, Kixuk, lekuko gisa, saltsa guztietako gizkeia zen Frantxis Murdutegi aurkeztu zuen. Biak bara-bara mintzatu ziren Janaren kontra: dirua ebatsi zuela, ez zela fi-

dagarria, hedexuri batekin solasean kukuxkatu zutela Lubarriko herriko bestetan... Zerrenda begi gosea bezain aseezina zuten.

– Eta zuk zenuen Jana exekutatu.

Bizkarrean behera ikara hotza tantakatu zitzaion. Hitzak herbaltzear zeuzkan. Oldartu zitzaigun:

– Nik hil dudala Jana? Nondik duzue hori?

– Hala azaldu digu Etxeparek.

– Apeza izanagatik deus ez daki gizon horrek. Nik hil dudala Jana? Bazauzue! Norbaitek zerbait obratu baldin bazuen emakume gaixo haren alde... nik neuk egin nuen ez beste nehork! Txatxok erabaki zuenean aho-zabalak oro ttattit gelditu ziren, fitsik ez zuten erran; *ni-ni-bai-bai* nazkagarrien moduan kopetak apaltzen dakuskit oraino, nagusi handiak hilketa obratuko zuen besoa hautatu bitartean.

– Zergatik zu?

– Erraza da ulertzeko. Otsalar komandoaren sostengu-taldeko kidea nintzen, baina ez nuen ekintzetan kuraia erraldoia frogatzen zuenaren osperik. Melenga nintzen haientzat. Gainera, Etxepareren trakako teorizatzaileek ziotenez, norberaren balioa biderkatua zen lagunik hurbilenaren kalitzeko kapable zinela agertzen baldin bazenuen. Anaiak anaia erailtzen zuen.

Ahizpak ahizpa. Senarrak emaztea. Adiskideak adiskide mina...

– Eta onartu egin zenuen?

Hatsa hartu eta begitartea torratu zuen. Behin. Bitan. Kafea *calva* ttilika batez aberastu zukeen.

– Isildu dut istorio hau... Eroak ziren. Eroak ginen guztiz gehienak. Eta dagoeneko erakundeak bake iraunkorra iragarri duenean, batzuk ari dira herriak berak hazi zituen piztia paranoiko eta psikopata horien izaerak, jokaerak edo ibilerak justifikatzen. Bukatu da kagularen eta kalaxnikofaren aroa. Mintza gaitezen argiki. Juja dezagun jujatzekoa duguna, ez beti auzoaren itzala. Bilkuretan dakuskit Marti Izozta, Daniel Elgebeltz edo Etxepare. Hiruren arteko sarea Janaren desagertzeak iruten du. Etxeparek badaki Danielek aspaldian xerkatzen duen arreba lurpean dagoela. Hargatik ez daki Lubarriko milurteko haritzaren maldan mirakulu bat gertatu zela...

Irri ederrak airostu zuen Santxo Etxeberriren kasko alde zimurtua. Zazpiak jo zituen sukaldeko ordulariak. Argia karmin-gorri nabari zen leihotik. Ausartuko zena laino grisen erditik Pazkoko ekia? Nire bakarrizketa abandonatu nuen Santxok zerraikalako:

– Erakundearen zuzendaritzak Jana soto batean preso atxiki zuen exekuzioaren unera arte. Beti oroituko naiz: «Egizak egitekoa duana» mailukatzen zidan Kixuk, Murdutegik pistola kargatua hatzetan pausatzen zidala. Ez nuen sekula tirorik bota. Horregatik neukan lotsor fama. Frantxisek ere ez, baina are urrunago akuilatzen ninduen: «Ez diagu deus jakin nahi, ez nola eta ez non, egizak eta kito».

– Egin zenuen, bai edo ez?

Segundoak agudo zihoazkigun. Gutariko zenbait eguerditan gonbidatuak ziren axurikia milikatzera. Zokok eta Deborah-k zinemarako xedea zuten. Ilse geratuko zen, ez baitzuen ezer berezirik apailatu; eta hiltzaile batekin parez pare suertatzea interesgarria zitzaion, izugarri.

– Egin nuenetz? Ba, goraipatzen duten kuraia ukan baldin banu, egingo nuen...

– Ez zenuen egin orduan?

– Jahvek Abrahamen besoaren oldea geldiarazi zuen.

– Zer derasazu?

– Badakit zehatz Santxo zertaz ari den –murmuraz Ilsek–, eta nik bederen istorio luze bezain tristearen bukaera asma dezaket.

Semerik maiteena sakrifikatu ziezaion galdegin zion Jainkoak Abrahami. Mendira joan eta erretzen zegoen sasi gotorraren aldameneko harrizko aldarean etzan zuen semea. Labanaz hornituriko ukaraia altxatu zuen haurraren bihotza urratzeko. Jahvek orduan Abrahamen keinua hormatu zuen, ez zuelako haraindiarekiko fideltasunaren izenean muturreko jaidurarik eskatzen. Aski zitzaion sakrifizioaren posibilitatea bera.

–26–

Santxo isildu egin zen. Sabaia lehortu zitzaion. Azkorriak ekarri euri ezkelaren herotsak baizik ez ziren aditzen. Kafea hozten zihoan kikaretan. Mahaiaren inguruan ginenak oro karroindurik ginen. Gizona hitz gabetu zitekeen edo egin zuenaren argiki agertzeko ele egokiak bilatzen zituen. Ahoa ireki zuen. Ez zen ordea hotsik atera. Nolwenek zizareak sudurretik idoki zizkion behialako galdera errepikatuz:

– Egin zenuen edo ez zenuen egin?

– Ez nuen egin. Ezin nuen. Zailegia zen borrokahaurridea horrela hotzean erailtzea. Janaren otoitzek beraztu egin ninduten. Ez zuen konprenitzen zuzendaritzaren epaia. Hobengabea zela orro egiten zidan. Nik bihotzean min nuen. Hatza durduzatzen zitzaidan pistolaren mihian... eta ez nuen hil. Ez nuela hil!

– Bizirik da orduan?

Nire oldarrak esnatu zuen Santxo. Oroitzapenen zama dorpetik askatu zen, sasi artetik jauzika zetorren urtxintxa bailitzan. Ezpainak mugitu zituen eta Ilseri begira kontatzen hasi zen:

– Hondarrean antzerkia muntatu genuen Janak eta biok. Ez genekien sinetsiko zutenetz, baina kutx ala pilean jostatu ginela aitortu dezaket orain. Alegia egin genuen.

– Bizirik da orduan?

– Bizirik da, bai. Ez dakit nola deitzen eta non bizi den haatik. Libre utzi nuenean erran zidan, amerikar pasaporte bat zeukala, faltsua bistan dena, eta hemengo zekenek arras ahantzi zezaten, Kaliforniara abian zela. Menturaz han dago oraindik. Hollywood Boulevarden korrika eta zinema munduko langile. Hori baitzen bere ametsa. Iraultza-zerga ekarle gisa ari izan zenean dirua baztertu baldin bazuen, ametsaren egiaztatzeko baino ez zen. Nork daki zer bilakatu den!

– Erabat desagertu zen bederen...

– Ongi obratu zuela iruditzen zait. Zuzendaritzakoek zerbait ikasi bazuten, xahu ginen biak. Nire bizitzak ez zeukan pisu anitzik haien begietan, pentsa, manuak traditu nituela jakin bazuten! Ez nituen ehun metro eginen, tiroz lardaskatua izan gabe... Ez ginen barkatzeko sortuak!

Frantxis Murdutegik pistola bekaitza meneko utzi zionetik Janaren itzala Lubarriko haritzetan uhertzen

joan zenerainoko gertakariak lerrokatu zizkigun Santxok, kafe beroa bigarren aldiz zerbitzatuz.

– Hau guztia bego gure artean. Mesfidatzen naiz tregoa iraunkorra den arren. Erakundearen bake iragarpena aintzat hartuko dut zinez Gernikako Arbolaren oinetan borrokako armak metan azalduko zaizkigunean.

– Urtea badu ez dela atentaturik. Sobera eskatzen duzu. Denbora behar da. Bildukoek istorioa norabide ezberdinera bultzatuko dute.

– Agian bai. Edo zinikoa naiz. Gisakoegiak dira idazleak eta komentario egileak ETAko gudariek buruhausteak zituztela azaltzen digutenean, Herriak antzeko piztiak munduratu zituelakoa mendratu edo menostu nahi bailuten. Funtsean ez zuten duda izpirik. Ez zeukaten kontzientzia zalantzarik. Hiltzen zutenean lepo zainak trenka hurran geunden deboila humanoarekiko mutu. Ohoratzen genituen hiltzen zituztenean. Biktimizatzen genituen. Logika horri uko egin nion Janaren ez exekutatzea erabakitzean. Lazoa banintzen, lazoa nintzen bururaino.

Desbideratu zen. Etsipenez josi gorrotoa isuri zen manta karratu zuri-gorriekiko mahaiaren zabalera. Mintzatzera uzten genuen. Euskaldun bakoitzak ala-

baina bazuen erakundearekiko anbiguitatez azpatu dotrina bat. Euskal Herriaz herio urrina zerion farwesta tipia osatu zuten gudarienganako sentimenduak indiferentziatik pasio morbidora zihoazen. Zena zelakoa, borrokaren gaiak gure muinak paralizatu zituen egundainokoan, aipatzea bera kritikatzea bihurtua zelarik.

Nolwenen soa gurutzatu nuen, Ilseren irria ustiatu eta Santxoren ahots apala hauteman:

– Nahi nuen erara moldatzea aholkatu zidan Murdutegik. Nonbaitetik zelatatuko ninduela segur nintzen. Halaz, Lubarriko haritzaren intimitatean hobia zulatu genuen. Arrastirian negar, oihu eta intziri hutsal baino ez zen Jana, elkarrekin bien bizitzak salbatzeko komediaren antolatzea erabakiz gero bipildu zitzaidan. Zangoekiko argazki makina nirekin neukan. Froga bila hertsatuko ziren. Exekuzioa gatibatu nuen. Jana belauniko, begiak tapaturik. Ni pistolarekin kopeta minari geinatzen. Flashak izutu gintuen. Amaren doteko mihiserik ederrenean zerratu nituen hogei bat kiloko lauzpabost harri. Etxeparek seinalatu lekuan aurkitu dituzuenak.

– Apeza ez zen deusez ohartu?

Aharrausi kezkatuaz iratzartu zen Zoko. Ordulariari begiratu zion. Arrangura zirudien. Deborah-k ahurra sorbaldan pasatu eta berehala jabaldu zen. Scully lobiroan anartean loriatzen zihoan Urkiako zakur mehearekin batera.

– Nola konturatuko zen? Ilunak bastatzen zituen bazterrak eta behitegiko lanetarako egokia zen petroliozko argigailuetarik bat generaman. Janaren hilotza zirudien bitxikeria prestuki apailatua neukala ebatzi nuenean, Etxeparerengana jo nuen lasterka. Gurutzearen seinaleaz agurtu ninduen eta hitzik trukatu gabe hilobia zegoen tokira lehiatu ginen. Jeeparen atzealdean alegiazko hilotza kargatu genuen. Apezak oihal brodatuz gerizatu zama zurbila begimendu zuen, pistolaren mutur epela ukitu eta zuloaren sakontasunaren neurria baimendu. Betekizuna konplitu nuen sasi-arazoak ekidinez eta behingoz nire gizon-balioaz harro.

– Ehortz meza bertan marmaratu zuen?

– Zer uste duzu, andere Ezpeldoi! «Gerlan gerlan bezala» zioen Frantziaren aldeko hiru mobilizazio orokorretarik bizirik ilki gure aitatxi Pierranok. Kantarik ez zen. Jende gehiegik ezagutzen eta estimatzen zuen Jana. Zernaitzeko eliza txikiegia zatekeen. Lubarrikoa

bezain. Berdin Baionakoa. Erakundeak berak garbiarazi batentzat ez zen ehortzeta ofizialik imajinatzen ahal ere, sekretuak sekretuan lurperatzekoak ziren. Etxeparek *Gure Aita* marmaratzeari ekin zionean, jadanik urrun zegoen Jana. Apezak zikintzeko gutiziarik ez eta zuloaren tapatzeko bakarrik abandonatu nindu en. Argazki makinako pelikula jaso zuen, pistola eta Janaren urrezko eraztuna. Besta biharamun batez Txatxok oparitu omen ziona.

Aste euritsutik lekora, eguzkiz hordi zirudien Pazko goizak. Zortzi eta erdiak irian amets izugarritik bellitu zen Santxo. Armairutik txokolatez emendatu eta chantilly kremaz ihalozkatu bizkotxoa jalgi. Kanpoan, zakurrak, txitak, piuñak, oiloak, urdeak, aratxeak, denak gosez harramantzan zebiltzan.

– Ezin ase madarikatuak! Barau egin balezate Pazko egunez gutxienez! Bazkatuko ditut beranduago. Gauza batek zutointzen nau. Amaia Ezpeldoi: nola lortu duzu zuk niganaino heltzea? Daniel Elgebeltzek kontratatu detektibeak eta, barkatu Nolwen, hedexuriak beti Santizpiritu zubiaren puntan huts geratzen ziren, hortik hara nebulosetako hondo beltza hedatzen zitzaiela. Banekien ordea noizbait norbait etorriko zitzaidala kontuak eskatzera.

– Munduaren laurdena jorratu dugu. Janaren desagertzea Adam VanVries serial-killerraren bortxaketen garaikoa zenez, hastapenean afera horretako jakileak solastatzen saiatu gara Alemaniako Wiesbadeneraino bidaiatuz. 1985eko Baionako Bestetan Reduit plazan zeudenek Santizpiritu zubiaren meridianoan itzal bat uhertzen zekusaten. Gambetta enparantzan zirenek, aldiz, lau mamu maskaratu zenbatu eta abere antzeko garrasi zakarra aditu zuten. Ilseren trebeziari esker Julietaren memoria ikaratu da eta Txatxoren izena oparitu digu.

– Txatxo 1984 eta 1996 bitartean giltzarria zen Iparraldeko euskal mugimenduan. GALen atentatuen garaian Otsalar komandoak irun sareko etxeetan gordez salbatu zen. 1987ko urriaren 3ko raflean atxilotu eta laster askatu zuten, Hegoaldeko hainbat haurride espultsatzen zituztela. Hondarrean, Daniel Elgebeltzen egoitzan arrastatua izan zen 1996ko martxoaren 23ko polizia-operazioan. Libre dago Frantziako kartzeletan eta Espainiakoetan gaztigua beterik, ohiko urte gehigarriekin. Donostian bizi da. Berarekin hitz egin duzu, Amaia?

– Noski. Eta balarik ez duen pistola honekin mintzarazi dut. Bilatzen genuen 400.000 frankoko altxo-

rra ikerlarien nahasteko apeu gisa erabiltzen zuela aitortu zidan. Pista faltsua guretzat. Eta badakizu Darth Vaderrez mozorrotu zezen zainartek zafratu nindutela Wiesbadendik etxerakoan?

– Bekainean duzun ospela ez da zure senarrak eman tuinako baten ondorioa beraz?

Irriz lehertu zen Santxo, Nolwen artoski aztertuz. Gure harremanaren jakinean zitekeen. Sardexkarekin xahatu zuen txokolatezko bizkotxo nasaiak sudurpean itsatsi azukre eta chantilly krema lumatxoa.

– Dirutza hori ebasteaz akusatzen zuten Jana. 1985eko uztailaren 14an Louvreko banku bateko atrakoaren emaitza zen. Erakundean gureek egin zutelako zurrumurrua hedatu zen. Poliziaren arabera Marseillako gaizkile saldoak erreusitu zuen kolpea. Txatxok kudeatu Otsalar komandokoek Janaren inguruan, haren autoan, anaiaren etxean, lagunen egoitzetan sosaldea xerkatzen zuten. Denborarekin frogatu da diruaren aitzakia baliatu zela kideekiko kontrolaren gogortzeko: denak sospetxosoak ginen, denek bagenuen aitor ezinezko bekatu bat, denak ttattit eta mutu geunden ezpata noiz erori zain.

– Janak Ameriketara zihoala agertu zizun izen eta paper faltsuekin. Bizirik dago eta aurkituko dugu, itsa-

soaren haraindian baldin bada ere. Oroitzen zara ihesean erabiliko zuen deituraz?

– Biak salbatzeko tratua finkatu genuenean bideak zedarritu genituen. Lehenik isiltzea. Gaur arte egin dudana. Gero sekula ez elkartzea. Mugimendutik urruntzea. Uste zuen egiazki hilko nuela. Bazekien kuraia eskasekoa nintzela, baina buruzagitzari nire balioaren erakusteko balentria egingo nuen. Bere azken ordua hurbil zekusan. Ohartu zenean ez nuela hiltzen ahalko, gaina hartu zidan. Negarrak lehortu eta antzerkia asmatzera bulkatu ninduen.

– Izena zein zen?

– Anitz gustatzen zitzaion idazle baten nobelako pertsonaia batena hautatu zuen. Eleberriaz, idazleaz eta abizenaz ez naiz gogoratzen. Daniel edo Julieta zirikatzeko aukera duzu, Amaia.

Ekiak Anzibarreko hegiak gozatzen zituen Santxoren sukaldetik beterik jalgi ginenean. Pozik geunden Jana bizirik zela ikasi genuelako. Ameriketan zitekeen. Lokalizatuko genuen eta utziko genituen Daniel, Marieta, Julieta eta Marti harekiko hariaren irutera. Santxo besarkatu genuen aldizka, bikaina baitzen.

Motorra berotzen zihoakion kamionetara nindoala belarrira xuxurlatu zidan:

– Salataria funtsean Murdutegi zen. Suizidatu zen emazteak dibortzioa erdietsi zuelako estakuruaz. Erran dizuet istorio luze bezain tristea zela. Hargatik lazo, herabe eta koldar gisako nire orduko ausartziaz harro nago. Eta zoriontsu.

–27–

Deborah-ren VW Transporterrean zerratu neskatila guztiak ainarak udaberrian habiatik bezala barreiatu ginen. Hitzorduak geneuzkan.

Ilse Traumberg etxetik pasatu eta dutxatu ondoan gureganatuko zen. Bagenuen bai ur hotzaren azpian garbitzeko beharra. Lohia larruko poro txikienetan kokatzen zitzaigun eta beltz-beltz genituen azazkal azpiak. Kamioneta Sanandres plazan aparkatu zuen Deborah-k, bi egunez saririk ez zelako ordaintzen. Geroago deskargatuko genuen eta norberak bere tresnak biltzen ahalko zituen. Ontsa baliosa suertatu zitzaidan aita zenaren burdin barra zoharra.

Eskaileretan gora gindoazela, Nolwen poliziategiko lankidearekin ari zen telefonoz. Ez zuen nehoiz ahanzten Kergelen komisarioa zenik. Apartamentuko atera heltzean bihotza urratzear utzi ninduen irria eskaini zidan. Buztin-errauts beilegiz estali lepo gibelean pausatu nizkion ezpainak. Larruaren eta lurra gustuaz gose-hamikatua nintzela iruditzen zitzaidan. Giltza salbaiki sakatu nuen bortan eta zurrutaren pean ginen di-da batean, ikaraz, dardaraz, aharai eta intziriz ple-

gatzen. Herioaren mugetan ibili ziren hatzek, ileek, ahurrek, sabelek, bularrek, aluek, sorbaldek eta bizkarrezurrek ez zuten plazeraren erresumara iristeko abilezia izpirik galdu. Eta balaka bat bakarrik txispildu garen aldientzat, eta pott etengabe bat gure buruak gorrotatu ditugun uneentzat, eta milika bat pobre herresta gisa kontsideratu gaituzten minutu bakoitzarentzat. Santizpiritu zubiaren itzaleko behialako orroa baino jendekinagoa zitekeen ahots zintzurroiaz askatu ginen.

Busti-busti etzan ginen ohean. Biluzik. Munduaren edertasunaz bara-bara ari ginen, hatsanka, gorputzaren gune minberatsuenetan taupada eztiak nabarituz. Utzitasun lasaiak eraman gintuen loaren altzoraino. Hargatik sukaldeko urrutizkinaren azantz madarikatuak oroitarazi zigun bizidunen erreinua ez zela sekula arras urruti.

– Banoa –Ilse zen.

– Bai, zatoz. Elkarrekin xerkatuko dugu Jana.

– Pazkokari bederen berri ona ukan dugu. Eskerrak noizbehinka izate bakunak besteaz urrikaltzen direla, izanagatik etsaia edo etsaitua...

– Zure aiduru gaude, Ilse.

Tarrapataz beztitu ginen. Muxmux. Sarridio. Nolwen lantokiratu zen. Hilkutxaren barnean atzeman genituen bilo puska eta zuzenbide misteriotsuarekiko paper purtzilikatua analizatuko zituen. Emaitzak berehala behar zituela erantsi zuen. Ilseren aiduru, Daniel Elgebeltz eduki nuen linearen bestaldean:

– Jana bizirik da.

– Baia? Non dago?

– Ameriketan liteke. Behintzat han egon omen zen denbora batez. Baina bizirik ikusi zuen hondar lekukoaren arabera, Euskal Herrian bertan ohatzen ahal liteke berdin. Izen faltsuarekin dabil eta aurpegia irudiz aldatua du kirurgia estetikoa dela medio.

– Ez nuke jasanen mende laurden honetan egunero jakin gabe gurutzatu dudala pentsatzea. Urte gehiegi eman dut ezaxola. Klandestinitatean sartua zitekeelako nolabait bakean. Barka ezina naiz. Ni, Marti, Marieta, Julieta, Etxepare apeza eta Txatxo: Janaren adiskide minak ginen... Barka ezinak gara.

– Zein zen Janak irakurtzen, ikertzen, aipatzen, zirikatzen eta urratzen zuen liburuaren titulua? Idazle goraipatu baten obra... Arren, zuri errefera!

– Zenbakiekin azkarra naiz. Liburuez eta literaturaz deus ez dakit. Ez zaizkit nehoiz interesatu Janak

irensten zituen nobela mardulak. Hargatik kasko zokoan biga ditut: *Jende pobreak* bata eta bestea *Krimena eta Zigorra*. Errusiarra zen egilea. Gogoan dauzkat, ezen Leninen eta Trotskiren saioekin batera edonon leitzen zituelako. Zioenez, Lenin eta Trotski biak uztarturik baino askoz handiagoa zen Fedor Dostoievski. Ihardesten nion: «Bakea eman emazu, nork entzun ere».

Telefono hariak bozkarioz inarrosi zituen Elgebeltz jaunaren karkarak. Ohartu nintzen astea bazela gizona ezagutzen nuela eta ez nuela haren irriaren hotsaz gozatzeko aukerarik ukan. Robber ostatuan biltzen ginenean beti kexu ahaire zebilen, arrabokaz, nardatua, presatua, ez ninduela estimatzen leloki murdukatzen, ez zuela nigan konfiantzarik eta antzeko airoskeria franko. Algara jabaldu zitzaion.

– Badakit nori galdatzen ahal diozun! Andere Ezpeldoi, bidea jada ireki dizunari! Eta nola!

– Julietak balekike?

– Adiskide minak ziren. Lagun erreak. Intimoak direla ahoskatuko genuke dagoeneko. Nahi duzu harremanetan jartzea?

– Bai noski... Ilse Traumberg psikologoaren kabinetean juntatuko garela erraiozu. Arratsaldeko laure-

tan. Egoitza ez du arrotz. Eta Marti Izoztari ere emaiozu Jana bizirik delako berria. Plazer egingo dio.

Ilse, zorte onekoa nintzenez, ez zen etxetik atera. Amen batean agertuko nintzaiola salatu nion, ez zedila mugitu, Julieta halaber azalduko zela, Santxok aipatu idazlearen obraren izenburua amoinatuko geniola eta balizko abizenak ordenagailuz bilaturen genituela. Oinarrizko ahalmen soilenen egiazkotasuna saiatuko genuen urrutizkin operadore historikoaren zerrendak arakatuz adibidez. Pazko arrastiri zoragarria opatu genion arraiki. Detektibe lana hori zen funtsean: ez zen aste egunik, ez iganderik, ez gaurik, ez eta argirik. Xinaurria bezala ekiten zen, ardura debaldetan. Ordea batzuetan, Janaren desagertzearen kasuan nola, afera dorpeen misterioak urratzen ziren.

– Tea apailatuko dizut.

– Bizkotxoak hartuko ditut Bost Kantoien plazako okindegian.

Moltsa, konputer eramangarria eta paperak zakuan sakatu eta Pannecau karrikara jaitsi nintzen, mailetan launaka. Apirileko ekiak gorriz, berdez edo urdinez tindatu bizitokien egurdiak distirarazten zituen. Halaber Errobi ibaiaren azala. Eta zubi lerroak. Merkatuko burdineria orlegiaz zer erranik ez. Ikaraga-

rria zen kaioen harramantza. Haize mehea aski zitekeen txori txiolarien barreiatzeko. Jendeak bazebiltzan, alfer, hegietara beha, denden berinen aurrean aitzintoka, prezioak eztabaidatzen, kontsumoarentzat atsedenik ez bailitzan. Deituak ziren hiruzpalau Aberri Egunetan zeuden euskaldun haboroxeak, *besta bai borroka ere bai* lema kopetan iltzaturik, oneski dantzatzen, planttan elestatzen eta garbiki mozkortzen. Berun-aroak ziren ez nintzela horrelako ospakizunetara agertzen. Olde-bainuak ez nituen maite.

Ilseri hitzeman pastelak ordaindu eta berehala zanpatu nuen psikologoaren atea. Tea zerbitzatua zen Courbeten *Munduaren jatorria* margoaren kopia zegoen gelako mahaian. Erdian jarri nituen mila hostoekiko gozoak. Izkinan zegoen ordenagailua piztu nuen. Zurrunga ozenez iratzartzen zihoan bitartean, eguerdiko bazkariaren ordezko arratsaldeko askaria nakanakaz klikatu genuen Ilsek eta biok. Sukaldeko zurezko penduluaren kukuak laurak kantatu zituen. Joaldi xeheak entzun genituen: Julieta zen. Euritakoa zekarren. Txapel beltza kendu eta herabeki agurtu gintuen, kopeta makur.

– Txatxo elerran zenuen beraz?

– Bai, zuri esker. Jana bizirik delako segurtamena ere badugu. Izenez eta izanez aldatu omen zen. Salbatu zuenaren ustez anitz estimatzen zuen eleberrigile baten nobela arrakastatsuko pertsonaia nagusiaren abizena hautatu zuen. Ameriketan egon zen zenbait urtez.

– Zer nahi duzue orain?

– Nobelaren titulua.

– Aldi honetan ez dut hipnosia beharrik oroitzeko.

Zarata xeheaz nire ordenagailuari konektatu zen Nolwen, webcamaren boterez. Pantailan zabalik zeukan izenen nazioarteko fitxategia. Te ttilika bat hurrupatu zuen Julietak, begiak zohardi eta izpiritua brist, bere adiskiderik handienarengandik gero eta hurbilago zela sentitzen zuelako. Bi ahamenen artean marmaratu zuen:

– *À la recherche du temps perdu*... hori zen Janaren obra kuttunena.

– Marcel Proustena?

– Amaia, otoi, besterik ezagutzen baituzu zuk? –Ilsek harridura markatu zuen.

– Ez, baina zortzi ale horietan ehun mila pertsonaia badira! Orratza belar puloan bilatzea bezalakoa da. Ezinezkoa.

– Alta asmatu behar dugu –Ilse zen berriz–. Eta agudo.

Ilsek Julietaren matelan pott eztia zirristarazi zuen. Pantailaratu nituen orrialdeetan Prousten nobela ezberdinetako izenak ordena alfabetikoan agertzen ziren. Mila milioi ahalezko baziren. Ordubetez pertsonaiekin jostatu ginen ondoriorik gabe: Albertine Simonet, Eulalie Callot, Leontine Cottard, Odette Crecy, Gilberte Frecheville, Clemence Verdurin edo Jeanne Vinteuil ez zeuden, ez Nolwenen fitxategian, are gutxiago eskualdeko listinetan. Nobleziazko partikulak saihestu genituen ez baitzitzaizkien Janaren nortasunari egokitzen. Partikulekin ere saiatu ginen alabaina! Etsitzear! Estatistikalari trebearen premia genuela genioelarik, ideia bat ukan zuen Nolwenek:

– Zerbait xerkatzen dugunean konplikatzen dugu beti. Soil eta sotilenera ari bagina?

– Zer proposatzen duzu?

Oren aldaketarengatik arrats apalak argi nagitzen ziren euskal lurretan. Zoramena zen. Linearen puntan krix-krax ahula aditu genuen. Aiduru zeuden Julieta eta Ilse. Belarri baizik ez nintzen nihaur ere.

– Eta... Madeleine Proust izenarekin entseatzen bagenu?

– Errazegia da. Pentsa!

– Ixo, Amaia! Frantzia osoan berrogeita hamabost badira, eta hiru BAB honetan. Horietarik bat Jana Elgebeltz balitz?

– Ilsek telefono zenbakiak notatzen ditu. Egiazki hiru Madeleine Proust badira hemen. Izugarria da Nolwen!

Courbeten margoaren maldan kuzkurtzen zihoan Julieta. Ukidura handiko uneak egartzen zituela ageri zen, tragikoak eta laketak aldi berean. Webcamaz zotzean deliberatu genuen nork deituko zion fikziozkoa ez zen Madeleine Proust horri. Nolwenek irabazi zuen. Jeloskor nintzen. Hala ere urrunetik jarraitu genuen Nolwen Kergelen komisarioaren ekina. Lehenak antza pikutara bidali zuen, Poliziaren izenean telefonatzen zuten psikopatak epaitegian salatuko zituela erantsiz. Bigarrenak Madeleine Proust amatxi zuela zerasaion negarrez hipaka, galdu berria zutelako. Kordoka trenkatuko zena noizbait?

– Madeleine Proust anderea?

– Bai, ni naiz.

– Jana Elgebeltzez baduzu aditzea?

– Nork du eskatzen?

– Anaiak eta adiskide hurbilek.

– Adiskiderik ez dudala jakizu.

– Elkar gaitezke?

– Menturaz...

–28–

Bilakuntza azpiegiturak desertatu genituen. Julieta Ilserekin geratu zen. Nik autobus kliskaz Nolwen harrapatu nuen Baionako Barrako itsasargirako eskaileretan. Xibertako oihanean eman zigun hitzordua Jana alias Madeleine Proustek. Gaua eta Pazko egun osoa zain-aire higaturik aski estimatzen nuen uhinen hagun gazia aurpegian zartatzen zitzaidalako unea, mihia ezpainetan alfer zihoakidan bizitzaren gustua birdastatzeko. Marea gora ari zen. Oinezko xendran sei-zazpi lasterkari izerditsu ekidin genituen, batzuk pairatzen eta besteak alaitzen. Gehienek musika zeramaten belarrietan bakarkako korrikaren abiadura mantentzearren.

Emazte bat zegoen eskalada murruaren itzalean. Marti Izoztak eman argazkia atera nuen paltoko sakelatik. Aiduru zetzan emakumeak ez zuen Janaren antza izpirik. Zahartuago zen, hogeita bost urte ez zirelako hutsalki lerratu. Itxuraldatuagoa halaber. Ulertzekoa zena, naski, Santxo Etxeberriren agerpenen ildotik: kirurgia estetikoaren baliabideak betean erabili zituen Janak. Matelak meharrago zituen, sudurra zuze-

nago eta begiak sakonago. Itsasoaren gristasun muskerrak begitarte arranguratuaren ezaugarriak azpimarratzen zituela onartzekoa nuen. Lehen bistan, Nolwen eta biok baino anitzez handiagoa zirudien Madeleine Proustek. Igurikatzen gintuen jargia publikoan zutzuta landaturik. Larru gorrizko esku-zakua zeukan belaunetan.

Hurreratu gintzaizkionean ez zen den mendrenik mugitu. Doi-doia agurtu gintuen eta esplikatu ezinezko barrea eskaini zigun. Bele zakarraren kroak Xibertako eremua inarrosi zuen:

– Zer nahi duzue?

– Jana Elgebeltz zara?

– Aspaldian desagertu zen Jana Elgebeltz. Madeleine Proust naiz. Niretzat hasteko eta maite nautenentzat gero.

– Anaiak bilatzen zaitu.

– Azkenean!

– Ez da erraza izan zuregana heltzea.

– Hatzak ezabatu nituen.

– Heriotik salbatu zinen. Zure lagun eta etsaiekin mintzatu gara astean zehar.

– Zer gertatu zen badakizue orduan.

Sudur hezurra ferekatu zuen ulitxo zuntzunak kilikatu bailuen. Ahula zirudien. Beldurrez zebilen, erabat. Aurkeztu nintzen mehatxuzko izuaren urruntzeko:

– Amaia Ezpeldoi, detektibe rurala. Daniel Elgebeltzek kontratatu ninduen duela zortzi egun Baiona-Miarritze derbia bukatzean, mende laurden honetan arrebaren berririk ez zuelako. Marti Izoztak eta Jean Lavignek ere dirua proposatu zidaten inkesta bururaino eramateko. Julietak, zure lagun minak, hipnosipean, istorioaren giltza oparitu zigun.

– Eta ondoko kide hori nor duzu?

– Nolwen Kergelen. Baionako komisaldegiko arduraduna. Eta nire andraidea, egia den bezala azaltzeko. Ebatsi zenituen 400.000 frankoak xerkatzen zituen Darth Vader saldoak zanpatu ninduen Wiesbadendik gentozela Santizpiritu zubiko tunelaren ilunean...

– Aha, bai, laurehun mila franko ziztrin haiek!

Zintzurraren hondotik aho zabaleraino, goiti eta beheiti, ezpalkatzen zihoan algaraz urratu zen. Ez zen gelditzen ahal, oker eta zotin andanaz askatzen zela. Jabaldu zenean jarraitu zuen:

– Sosarengatik zenbat zauri ez da irekitzen! Etxeetan berean, zaharra hiltzean ontasuna dela kausa aha-

rratzen dira haurrideak. Zurrumurrua hedatu zen arren, Louvreko atrakoa ez genuen guk egin, zorigaitzez. Hargatik aitortzen ahal dizuet orain, mugaz honaindira kontrabandoz pasatzen nuen iraultza-zergaren zati potoloa nireganatu nuela. Ontsa baliatu zitzaidan iheslari denboretan.

– Barkatu zabar eskatzea baina –arraposki zetorren Nolwen– Polizia Sekretuaren informatzailea zinen?

– Ez, akusatzen ninduena bera zen: Murdutegi. Suizidatu egin zen, baina ni ordukoz hila eta ehortzia nintzen.

– Bagenekien, baina nahi genuen zuk erranik entzun.

Ukaraia astuntzen zion diamantez hornitu ordulariari so egin zion. Klase ertaineko andereak sozialki erreusitu zuen. Soilak baina arropa karioak zeramatzan. Hatz erakusle horituak baizik ez zuen itxura orokorraren perfekzioa hausten. Zigarreta jalgi zuen zakuan zeukan zilarrezko zorrotik. Suak ninikak argitu zizkion.

– Santxo Etxeberrik bizia zaindu zizunean ihesi joan zinen beraz?

– Nola dabil Zantzo? Ez dut ahantzi. Nirekiko urrikizko sentimendu apurraz murgildu zen bakarra izan zen naski. Eta ez kuraiaz. Alderantziz. Zabarkeriaz. Berak bere burua uzkur nazkagarritzat zeukan. Batzuetan boteretsuei plazer egiteko erakusten den kuraia, uzkurkeria modu bat da.

– Ameriketara eskapatu zinela berretsi zigun.

– Sei urtez egon nintzen Kalifornian. Erakundean paper faltsuen alorraren arduraduna izanez, ez zen zaila niretzat. Ameriketan Mary J. Winston gisa ezagutzen ninduten. Bakersfieldeko *Baba-Round* euskal jatetxe erraldoiko zerbitzari nintzela, Soziologia ikasketak bukatu nituen. Eta kirurgia estetikoari esker araz eta trakaz erabat aldatu nintzen.

– Zorionak! Noiz itzuli zinen Euskal Herrira?

Zigarreta hondarra Xibertako xendrako errautsean lehertu zuen zakar-ontzirik ez baitzen. Zaborren berezilaria nintzenez, banekien Iparraldeko baratzeetan eta parkeetan eskas zirela Wiesbadenen denetan ziren zikinkerien biltzeko pertz publikoak. Oroitu nintzen orduan, Pazko astelehen arratsaldetik hara zortzi egunez laneko nintzatekeela: sabelaren zola antsiaz larrantzi zitzaidan. Nolwenen begiak non ziren bada? Niri begira alabaina. Nola zitekeen bestela. Pentsa-

mendu ziztakorra ezabatu nuen, orainak, dolorez ustiatua bezain edana izatea merezi zuela konbentzituzik.

– Irakasle postu bat lortu nuen Parisen. Masen soziologia aplikatuaren alorrean. Nire abizenaz burlatzen ziren lankideak, baina Frantzian Madeleine Proust asko dago. Eta izenari esker herioaren latzetik salbatu nintzenekoa gogoan netxikan, ideia finko bat ardatz: bizitza ez zela edozein maneraz gastatzen eta andeatzen zen ontasuna, alderantziz baino, eskuzabaltasunez ereina izatea aldarrikatzen zuela. Jana Elgebeltzen tasunak atxiki eta keriak ahantzi nituen Madeleine Proust bilakatu nintzenean.

– Zure adiskideek jakingo dutenean!

– Badu bi urte Angelun nagoela. Bordeleko goren graduko teknologia irakaskuntza zentro pribatuan nintzen, hango plan sozial murritzaren karietara aitzinerretreta harrarazi zidatenean. Hemen nabil dagoeneko. Txori hegalez anaiaren Moura villatik hurbil. Noiztenka igandeetan gurutzatzen dut itsasertzeko bidean Marietarekin. Eskerrak nor naizen ez dakien.

– Familiatu zinena?

Galdera indiskretua egiten ari nintzaion. Errabiaz epaitu ninduen. Nolwen bera, alta pipolzale amorra-

tua, harritu egin zen. Deus ez bailitzan ordea, samurkiro ihardetsi zidan:

– Ez. Nigan dena faltsua zen izenetik haste. Ezteiak ospatzeko paperak zuzen behar dira. Nahiz eta behin Las Vegasen ezkondu nintzen, Burlington eskualdean agituriko hegazkin istripuan zendu zitzaidan Allan Millsekin. Alargundu eta Frantziara pasatzeko Madeleine Prousten nortasun agiria aiduru neukan.

– Anaiarekiko ikustaldia onartuko zenuke?

– Beranduegi da.

– Garesti ordaindu dit zure harrapatzeko.

– Beranduegi da.

– Zutaz kezkatu dira hala ere.

– Beranduegi da.

Lelotzen zihoan Madeleine. Beranduegi da errepikatzen zuen etengabe. Azantz izugarriak zetozen arrastiri hotzak setiatu Xiberta Oihanetik: abar idorrak kraskatzen, hostoak zartatzen, txori unatuak auhenez eta balizko piztiak eratorrian orroaz. Hontzarena edo kahakarena zen ez nekien uluak ikara hazi zidan haragian behera. Ehiztariaren orduan haurrak eta adinekoak zaintzekoak ziren urrezko edo zilarrezko altxorrak adina. Madeleineren neuronen erresuman galerna zela susmatzen nuen. Nola jasan muturralde eta bio-

grafia aldatuekin antzinako haurride eta adiskideekiko bateraldia? Baztertu zutenak zebilzkion atzetik. Zer aldatu zen Daniel bilakuntzara bultzatzeko? Erakundeak hamabi hilabete zuela plazaratu tregoak haiatu bake uhinak ote zituen egitekoak leuntzen? Mende erdiz burdinazko ahurrez gaztigatu zuen Iparraldean ere? Betazalak apaldu eta eriak juntetan klaskarazi zituen.

– Bizitzan beranduegi izan daitekeelakoa ideia faltsua da. Funtsean, nehoiz ez da berandu. Danielekin egon nahi dut. Bai eta Marieta, Julieta eta Martirekin. Santxo Etxeberrirekin halaber. Haiekin hitz egiteko premia nabaritzen dut. Hainbeste gauza dugu elkarri irakasteko eta barkatzeko...

Hara, urrats bat, egina... Zin egin genion, Ilbarritzeko holtzen aizolbean bilduko ginenean, nehork ez zuela Jana Elgebeltzen izenik ahoskatuko. Mezu zehatzaren pasatzera gonbidatu gintuen, bestela biltzarrik ez zatekeela.

Madeleine Proust ttottogiatik aldendu zen buhako handiosa libratuz. Espantu eta oldarroikeriarik gabe despeditu gintuen:

– Bihar arte.

– Bederatzietan Erretegian.

– Izuak kateztatu une hau frankotan irudikatu dut. Baina beldurraren ordez arintasuna eta poza dabiltza nire bihotzean. Ez didazue erran: zertan da Santxo?

– Ongi da, baina ez du inoren elerrateko gutiziarik. Esperientzia nahikoa traumatikoa suertatu zitzaion Lubarrikoa. Mentalki paralizatua da. Erail behar zintuen tenore uher hartan gelditu da betiko. Ezindua da.

– Bakean utziko dugu momentuz?

– Hobe bai.

Madeleine Proust Xibertako zuhaitzetan uhertu zen. Isiltasunak malgortu gintuen. Nolwenek mutu zerraikan eta nik ez nuen perpausik trenkatzen ahal. Depresioaren ezpondan geundela zirudien. Inkesta latz bat bukatzean horrela nintzen beti: hustua, errendatua, etendua eta oro har disgustatua. Janaren desagertzea aztertzen genuen arau agertzen zitzaizkigun gertakariak ez ziren sobera plazentak. Solastatu genuen jende bakoitzak Jesusek Golgotan deiadartua murdukatu zezakeen: *Eli, Eli, lama sabactani*... Baina zegoeneko denek ikasiko zuten makulu eta pentsamaisuez mesfidatuz irauten, borrokaren ezpataren mihietarik bat mendekua baldin bazen, bestea barkamena zela, Herria logika morbido biktimizatzailez aserik zetzala, odolak berdin balio zuela bizitzeko eta hil-

tzeko, eta gerlak gal zitezkeela onartzean uste gabeko etorkizunen bortak zabalduko zirela hondarrean.

Nolwenen eskua ausiki nuen. Xibertatik autobus geltokira ernatzean Daniel Elgebeltzen villaren atarian gelditu ginen. Ez ziren etxean. Biharamuneko hitzordua posta kutxan itsatsiriko paper batean utzi genion. Wiesbadengo Jean Lavigne deituko genuen Baionatik eta Santxo Etxeberri. Gaua gurea zen osorik. Amodioa eginen genuen. Edo elkarri so geratuko ginen mirakuluak maila guztietan eragiten bide zuelako.

–29–

Baiona hiriko Chronoplus konpainiako A1 lineak eraman ninduen Bidarteko Erretegia hondartzako juntaraino.

Bezperan gurekin afaldu zen Ilse. Nahiz ez nintzen Sarah Wiener sukaldaria bezain trebea, ez nintekeen *Tiffany's-eko gosaria* filmeko Audrey Hepburn kalakari pindartsua baino malestrukagoa ere. Ez zen alabaina sorgintze beharrik planttako arrautza eta xingar hirunaren apailatzeko. Ordualdi adiskidetsua txirikordatu genuela aitor dut, Alison Kraussen abestiak eta Ludwig van Beethovenen bosgarrena buklean entzunez. Nolwenek artetik Louise Ebrelen kantak ozenarazten zituen eta nik Maddi Oihenarten Atarratzeko kontzertu bateko grabaketa piratako *Egün bereko alargünaren* eresia akuilatzen nuen. Negarra begietara jauzten zitzaidan, Atlantiar arkuaren muturretako artisten ahotsak belarriratzean eta biak imajinatzen nituen sotilki tauladetan. Nitaz burlatzen ziren lagunak. Ziria are barnago sakatu nien:

– Ametsetarik dakuskit halaber Ali Farka Touré, Johaine Barkos eta Ry Cooder batera Lasturko zezen plazan jotzen, Uztapide aurkezle!

Bakarrik jaitsi nintzen Erretegiara. Nolwen lanean zegoen eta Ilse menturaz lotan, bardako pow wow maitemintsua berandu bukatu genuelako. Apirileko itsasoa segundo oroz aldatzen zen kolorez. Goizaldeko argiak bazterrak azpimarratzen zituen. Zoramen mineralean urtzen nindoan. Txoriak intziriz zebiltzan lainoen mugetan. Uhinen hagun lodia hedatzen zen sablearen zabalean irudi sinestezinak marraztuz. Ortzaizean surflari talde grinatsua begimendu nuen. Marea behera ari zen ertzak biluziz. Hitzordu lekura zuzendu nintzen. Ez zegoen nehor. Urak azaleratzen zuen harri mihiaren gainera igotzea lortu nuen eta han jarri nintzen lehenik jinen zenaren aiduru. Olatuen iraunkortasun errepikakorrean bermatu nituen pentsuak: Maule eta Zuberoako holtz gris ukigarriak galdu nituen Baionan bizitzen hasi nintzelarik, baina itsasoaren hurbiltasun miresgarria irabazi nuen ordainez. Ez nuen aste soil bat iragaten bitsaren gazitasuna nolabait dastatu gabe.

Ilbarritzeko ezpondaren urrako urdinean ttattit gorderik zegoen Madeleine Proust. Eskuaz helatu nin-

duen. Ez zen kantitu hargatik. Uhabiara pasatzeko harkaitzaren bizkarraren goratasunetik punpa egin banuen ere, urrun geratzeko seinalea igorri zidan andereak. Mendizaleen makilarekin hurreratu zitzaidan:

– Eta besteak? Abisatu dituzu?

– Bai. Bertaratuko dira denak. Ordua datekeenean. Hogei minutu badituzte. Nola sentitzen zara atzoz geroz?

– Nortasun bikoitzarekiko nire lehen arratsa jasan dut. Jana memoriaren zokorik likitsenean ehortzia nuen. Ohean itzuli-mitzuliz ibili naiz. Egiazko eskizofrenia. Eskerrak Jose Manuel nire senargaia Mexikon dagoen. Nazioarteko bankuez axolatzen den egituraren Europako adarraren arduraduna da.

– Grezia sutan eta belauniko eman duen Troika hartakoa?

– Bai eta ez. *Hops & Flops* notazio agentziaren nagusia dela azalduko nizuke, gaia hemen berean hain minbera ez balitz.

– Arrazoia duzu: hobe isiltzea.

– Norbait dator hantxe...

Jana ohiaren dardara nabaritzen nuen. Ulertzen. Eta nola! Ez zekien oihalaren sakea nola bastatu, nola arraprentsatu, nola josi. Orratza kendu zioten zuela

mende laurden eta hari berria nekez aurkitzen zuen bekaizkeriaz zekendu ziren merkatuetan. Itzala zehatzagotu zitzaigun. Muturretakoarekiko alimaleko zakurra paseatzen zuen adineko tripatsua baizik ez zen. Ez gintuen begiztatu ere egin. Uhabia aldetik zetozen Daniel eta Marieta besotik loturik, herstura latzean elkarturik zirautela erakusteko gisa. Tenorea zen. Erretegiako xendratik aldiz jazarri zitzaizkigun Marti eta Julieta. Hauek ere bildurik. Adiskideak eta anaia borobilean mirestean malkoz urtu zen Madeleine. Daniel Elgebeltzek urrats bat egin zuen:

– Jana... Zatoz tinkatu zaitzadan! Jana... Jana... Jana... Uste nuen...

– Uste zenuen desagertua nintzela, sordei hila eta zizareek aspaldian irentsia. Bada ez! Zuekin nengoen. Zuen artean. Baina ez zarete nire presentziaz ohartu. Julieta?

– Erremedioengatik urdeen pare gizendu naiz. Badu hogeita bost urte depresioaz sufritzen dudala. Ezagutzen nauzu hargatik! Ezpeldoi andere honen saldoko Ilse Traumberg psikologoak kolkoa ixten zidan tapakia ilki zidan duela zazpi egun, eta haren aholkuekin eta bizirik zaudela jakitearekin iharduki dezaket.

Ura bere bidetik doa berriz eta nire gogoaren eremu lehorrak astiro-astiro itotzen ditu.

Janaren papo aldean tapalakatu zen Julieta. Batbatean pertsona bakarra osatzen zutela zirudien. Bi gorputzen batasunetik nostalgia hegaldatzen zela sentitzen nuen.

– Zuk ere hila nintzela uste zenuen?

– Bai, Jana. 1985eko Baionako Besten ordu txikietan Santizpiritu zubian barrena autoraino zergatik ez zintudan lagundu izan da mila bider egin dudan galdera. Barka ezina nintzen. Hala ginen. Baina hor zaude, Jana.

– Ez nazazula Jana deitu. Ez dut beste aholkurik zuentzat. Badakizue istorioa: Jana exekutatu zuten. Bakea eta bi sos, ezta? Orain Madeleine Proust naiz.

– Banekien *La recherche* zenuela iraun-ikurgai. Verdurin edo Simonet proposatu nien Amaia Ezpeldoiren taldeko ikerlariei. Baina sinpleago zen: Madeleine Proust. Ez dut ahantziko.

Daniel Elgebeltzengana zuzendu zen Jana. Luzeki besarkatu ziren. Momentu ukigarria zen, negarrak eta irriak nahasten zirela. Julietari errana errepikatu zion: ez zezala nehork Janaren izenik ahoska. Bizitzak lanje-

rrean ziren zegoeneko. Danielek egoera baikor berretsi zuen:

– Serial-killerrik ez da gehiago kostalde honetan. Eta erakundeak iragarri zuen menia orokor iraunkorra errespetatzen du. Bakean gaude, arazoak betikoak diren arren. Badakizu: euskararen etorkizuna, presoak eta lekuan lekuko garapen ekonomikoa. Agian helburuak lortzeko baliabideak itxuraldatzekoak ditugu hemendik at. Gure ondokoek guk baino hobeki erreusituko dute. Nork daki? Dena dela, ez ditugu gazte hotzak gerrara bidaliko...

– Zuretzat, Daniel, lagunentzat bezala, Madeleine Proust naiz. Derrigorrez. Baldintza gabekoa da. Ez baldin banauzu hala deitzen, berehala moztuko ditut harremanak.

– Madeleine! Badu hainbeste denbora zure atzetik nabilela! Detektibe rural nazkagarri hau atzeman dut zuregana heltzeko.

– Bera baino nazkagarriago baten beharra dago maiz.

Irria ihesi joan zitzaidan. Soako guztiak nengoen harrirantz itzulikatu ziren. Gurutzaturik bezala haizeaz gozatzen ari nintzen Anatoliako mistiko itzulikarien antzera inguratuz. Ahoa bete karkara askatzen nuen:

happy end delakoak gustatzen zitzaizkidan. Eta zaila suertatuagatik, Euskal Herria ez zen batzuek desiratzen zuten Titanic ontzia. Alderantziz. Igeri egiten ez genekien, baina itsasoa zen gure ama: herstura bakoitzaren ondotik, zauriak gantzaz eta olioz artaturik, berrekiten genion herritar moduko guhaurren xendrari. Ahots ezberdin ugariak biribilkatuz jarraituko genuen menturaz munduaren sinfonia airosa osatzen, gu baino nekezagoa zuten beste jendalde eta herri anitzekin batera.

Gogoeta optimistegia sortu ez ote zitzaidan arrangura nenbilen, Madeleinek Marti Izozta kuttunki zetxikala. Bikote distiratsua moldatuko zuten bizitza hain bihurria izan ez balitz. Bozkarioaren uhinak eraman ninduen: zenbaitetan egin behar zen amets baikorra, sentitu nehork ez gintuela gure olde baketsuan geldiarazten ahalko, ohartu eta onartu euskaldun baten egunerokoa ez zela beti berri txarrez azpatzen, hizkuntza adibidez ez zetzala oraino autopsia gelaren atarian eta jakin mugak, edozein, gainditzekoak zirela. Printzipio soil horiekin zerbaitetara hel gintezkeela nioelarik nirekiko, hondartzako bostak errondan solasean segitu nituen.

– Erretegia eta Uhabiako tabernetan juntatuko gara.

– Emaguzu zure helbidea, Madeleine.

– Ez dut lokalizatu nazaten gutizia izpirik. Horrela date eta ez bestela. Kontuz ibiliko zarete hitzordueta-ra lehiatzean. Eta ez nehori aipa berraurkitu nauzuela. Jende soberak daki jadanik.

– Amaia Ezpeldoi! Zu ere mutus eta kutus beraz. Sariaren eskuratzeko dendan igurikatzen zaitut bihar hamarretan.

Daniel Elgebeltzek boz zakarra zuen. Ez nezakeen asma arreba bizirik harrapatzeaz pozik edo triste ze-goen. Txokearen ondorioak digeritzekoak zituen ala-baina. Janarekin egoteko klandestinitateko ohitura berdinetara plegatu beharko zuen. Historiaren ironia zama zen. Horretaz konturatzeak bihotz malgortua pixkolatu zion. Ageri zen, ordea, zoriontsu zirela Marti eta Julieta. Pika beleak bailiran zebiltzan sablean jau-zika. Marieta gaixoak ez zuen deus egin batzarrak zi-rauen ordu osoan eta, naski, gutxiri interesatzen zi-tzaion bere aburua. Baina aldatu zitekeela marmara-tzen zuen: arreba aurkitzearen obsesioak zurkaiztu senarraren ekina kanbiatuko zen. Zena zelakoa, Ma-deleine Proustek matelan bi musu arinez despeditu

zuenean, Danielenganako sentimenduak ez zituela aldrebestuko zin egin zuen. Ezkondua zen onerako eta txarrerako. Gaurkoa txarra zen, laster ona dastatuko zuen. Denborak minak orbaintzen zituen. Ezaguna zen.

Eguerdiko eguzkiak marea hantaraziko zuen. Arratsaldeko bietan lanera azaltzekoa nintzen Karimen ordez. Bostekoa luzatu nion mirakuluzko Jana-Madeleineri. Zakar zerraikan:

– Ez dakit egin duzunaz eskertuko zaitudanetz. Tragedia horrek isilean beharko zuela segur naiz. Kaka nahasle galanta zara, Amaia Ezpeldoi.

– Zure anaiarentzat nenbilen.

– Diru zama astuna eskaini dizu. Halaber Marti Izoztak eta Wiesbadenen ohaturiko Jean Lavignek. Sosak baizik ez zaitu interesatzen ala?

– Lanera noa. Ez dut eztabaidatzeko astirik.

– Alta on zenuke gaiaz hausnartzea!

– Banoa...

– Entzun iezadazu: ona uste dugunak bakarretan zauririk larrienak eragiten ditu eta txarra zaigunak gozatzen gaitu. Aitzinetik ezin da jakin bestearentzat zer den egokia. Jakitearen harpe beltzean harilkatzen da jende-harremanaren funtsa. Bestea ezezaguna da,

guhaur guhaurri ezezagun gagozkion bezala. Huts egiten dugu hurkoa, arerioa edo etsaia bereak ez baina gureak diren intentzioz janzten dugunean eta gerra hazten. Norbera ez da guztiaren neurria. Zergatik kontatzen dizut hori?

Madeleine Proust Erretegiarantz bideratu zen hondartzatik. Familiako kideak joanak ziren. Bizitza salbatu zion sekretuari atxikia zen. Patarrean gora autobus geltokirantz konkortzen zelatatu ninduenean askatu zen olatuen atzamarretarik. Opari zitzaidan itsasoa soako amultsuaz laztandu nuen. Arratsaldea zaborrak erratzaz metatzen, palaz inarrosten, pulotan matoz plantatzen ustiatuko nuen Dederekin. Zernaitzeko kalostrapean eta Lubarriko haritzaren maldan euripean hoztuz harrapatu marranta salbu, gaitzeko forman nintzen. Dedek estimatuko zuen.

–30–

Erran gabe zihoan, behingoz, Pazko astelehen arratsalde hartan lanean nehoiz ez bezala loriatu nintzela. Fredok gidatzen zuen kamioia eta gibelean Dede eta biok karrika izkinetako zaborrak trebeki intsuldatzen genbiltzan. Besagainka zainartaz jaurtitzen genituen poltsa beltzak xehatzen zituen sabel borobilkariaren ahora. Kopeta zolan eta ezkerreko bekainean neuzkan orbainez burlatu zitzaidan Dede:

– Senarrak jo zaitu?

– Ez duzue besterik!

– Ardura horrela baita. Ubeldurak dituen emaztea eskaileretan erori da edo haserre bulta batez lagunak tuinakoz azpildu du. Ez dituzu egunkariak irakurtzen?

– Ez dut denborarik. Eta publizitatez beteak dira... –eta irriz nerraikan–: Soizu hortxeko paper pulo horri. Erreklamak, izparringiak, paper zaharrak.

– Doaikezin.

Barnealdetik aspaldian ohatzera etorria zen Dede, baina herriko mintza molde zenbait atxikiak zituen, hala nola ukatzen ez nuen plazera hazten zidan *doaikezin* ospetsua. Hogei urtez SAFAM lantegian burdina

plegatzen ari izana zen, hormetan behera herdoila baizik ez zerion fabrika hertsi zieten arte. Borroka neketsua eraman eta hondarrean plan sozial duina erdietsi zuten. Dede Baionako garbitzaileen taldean sartu zen, gehienak aitzin-erretretara bidali zituztelarik, adina zeukatelako. Zaborketaritza ez zen egiazko lana Dederentzat:

– Burdina sutan isurtzen zen labearen aurrean infernuaren sarreran nintzela ziruditan. Negar metalikoak hausten zitzaizkigun oinetaraino. Korrika egiten genuen erreduraren mehatxuetarik urruntzeko. Kaskoak, argiak, haga meharrak, esku larru eta zapata bereziak generamatzan. Lanjerosa zen. Izugarri.

– Beraz aldaketa estimatzen duzu?

– Alaina! Pixka bat alfertu naizela iruditzen zait ordea. Hau ez da akigarria, ez da egiazko lana, baina noiztenka pleinitzen entzuten zaitudalarik zure zirikatzeko gogoa dut.

– Ohartua naiz, bai.

Espaloietan zikin zaku urratuak aurkitzen ziren ardura kartoi zutunen maldan. Nonahi botatzen zituzten hiritarrek. Zakurrarekin batera jaistean kantoirik gordeenean pausatzen zituzten, jabeak zakarrontzia eta aberetxoak bere gorotza ketan. Pannecau zubiaren

hegietan lauzpabost kaka mordo errekuperatu nituen palarekin.

Dedek murmuzikaz zerraikan:

– Badakizu datorren astean hasiko direla SAFAM lantegiaren desegiten. Gunea kutsadura kimikoaz garbituko dute gero, eta hiriari itzuliko zaio eremua. Kasik hiru hektarea, bazauzu! Ehun eta laurogei urteko historia amilduko da azantz, burdin urrin mikatz eta errauts kaltegarriak hegaldaraziz. Hor gaindi aspaldian hitz ematen diguten suediar altzari supersaltegia irekiko da naski. Politikariek bata bestearen ildotik zortziehun enplegu sortuko dituztela segurtatzen digute.

– Egia?

– Egokiago liteke Aturri ahoa inarrosi duen metalurgiaren ohorezko erakustokia eraikiko balute! Bada mamia! Bokale-Tarnoseko ola ikaragarriak jada non zeuden ez da asmatzen. Aturri bazterreko Baionako egituren aztarnak agudo desagertuko dira. Gure zailtasun, izerdi, pataska, elkartasun eta bizimoduetarik ez da deus gelditukо, arraiki esplotatu zuten langileriaren destinoaz ahalke bailiran. Gutaz *tabula rasa* egingo dute.

– Ez zinena zu CGTko ordezkaria?

– Nola igarri duzu?

Hondakinak lurrean hartu, zakartegi berdeak hustu eta punpa arinez igotzen ginen kamioiaren atzealdeko plataformara. Ez ginen isiltzen. Dedek aitortzen zidanez, hitz egitea zen lanean gehien maite zuena. Eguzkiaz, euriaz, klaseen arteko gatazkaz, CG-Tren ahuleziaz, botere neoliberalari erreformen aldeko bilakatu zela frogatzeko agian zioenez, goizeko seietan gurutzatzen genituen eskale eta etxegabeez, beltzez, zuriez, gainerakoez, gizonen aiduru zeuden ekialdeko neskatxez, sirenak airean zerabiltzaten polizia kotxeez, geltokiko bidaiari eratorlariez. Milaka ziren gaiak. Ez ginen aspertzen. Nihaurk ere aski nuen zabor poltsa bat ikustea, aurtikitzailearen nortasun agiriaren orraztatzeko. Ez zitzaigun gozo hargatik zikinak karrika hasean abandonatzen zituztenen funts andeatuetan eskua sartzea izen-abizenen bilatzeko.

Hiriko garbitzaileen junta-lekura iritsi ginenean konturatu nintzen ez nuela Jana Elgebeltzen aferaz pentsatu. Sei orduko lanaldia aski zitzaidan guztiaren ahanzteko? Beharbada Dederen kalaka etengabearen konpainia xarmantak muinak jabaldu zizkidan. Baionako zeruan izarrak ageri ziren kliskari. Argiak troxa-

tzen zituen ibaiak, ertzak, teilatuak, hiru hizkuntzetako bide seinale hanpurusak.

Zerbitzua bukatzean Dederen bostekoa inarrosi nuen, gizonki. Jario ustel eta zizkolatsuz hezetu arropak bizkar zakuan zerratu nituen berehala xahatzeko.

– Bihar tenore berean?

– Bai.

– Aviron Bayonnais larunbatean Parisen kontra ari da. Jinen zara? Txartela hartuko dizut?

– Mila esker. Baina datorren asteburuan lagunarekin herrira noa.

– Zanpatzen zaituenarekin?

Karkazail ozenek urratu zuten hiria. Oinez gindoazen gure habietara, auto zarata eta keen erditik. Erroberen isuriaren xuxurla belarrian kilikari zebilkidan ibilaldian zehar. Egitekoak zerrendatu nituen ahots apalez:

– Dutxatu eta Wittig Bar-en diren adiskideengana lehiatu. Bihar goizean Daniel Elgebeltzen dendatik pasatu irabazi dudan diru parrastaren eskuratzeko. Merezi dut, ez?

– Bistan dena merezi duzula –ihardetsi zidan karrikan lo egiteko ohitura zeukan emazte higatuak.

Kargatua zen. Karriot batean zeramatzan jantziak, egunkariak, janariak eta kozinatzeko tresnak. Begiztatua nuen frankotan zakarrontziak mirazkatzen, epea doi-doia iraungita zuten elikagaiak harrotzen, bilatzen eta azkenean harrapatzen. Monoprixen harmailetan ahurra estiratzen zuen larunbatetan, hezur eta larru baino ez zen Mehetegikoa zitekeen zakurrotsoaren aldamenean. Hiriko poliziek aldi oroz haizatzen zuten Santizpiritu zubiaren bestaldera.

Santizpiritu auzoaren famak indarrean segitzen zuen: Baiona oparoak bere altzoan desiratzen ez zituenak aterpetzen zituen. Erdi Aro bukaeran Portugaldik eta Espainiatik haizatu judutarrekin hasi zen, geroago Landetarik eta Euskal Herri barnealdeetarik hurbildu proletarioak aterpetu zituen, eta *persona non grata* graduaz bataiaturiko mundu osoko migranteak bezain zurubi sozialean behera lerratu herrestak goza zitzakeen, nahiz eta bertako hiritar plazentek petizioak plazaratzen zituzten eskaleak delinkuenteak zirela salatzeko.

– Euro bat bazenuke?

A2 autobusak Clemenceau plazan botatu ninduen. Birikak harrotu zizkidan Miarritzeko aire gaziak. Gauerdi iria zen Oteizaren burdinazko tailuaren itzale-

tik sugetu nintzenean Wittig Bar helburu. Hatsanka iritsi nintzen tabernara. Sarrerako eskaiez beztitu *butx* gotorrak pedigria aztertu zidan:

– Ez da orainokoan hertsiko. Lasai!

– Badakit. Lagunak aiduru dauzkat.

– Ez duzu zure buruaren zuritzearen beharrik. Zoaz. Hantxe dira alegrantziarik handienean.

Eroak bezala dantzan ari ziren bikote gazteen artetik xendra urratu nuen. Billard-aren ipularretan serioski multzotu adin ertaineko andereak begietsi nituen. Bizkarra kontuarrean berme zeukaten neska bakartiek, aldiz, alkohol azkarrak zurrupatzen zituzten Wittig zerratuko zenean, atzamar zorrotzekiko harraparien gisa, aterako ziren gaixo eperren soinetara gosaioki jauzi egiteko. Pantailan Battant taldearen bideoa zebilen. Talderatzean Prezios pulposaren larru beltzaren distirak harritu ninduen, Zokoren urrez brodatu buru-zapi eta djellaba berriak, Deborah gero eta biluziago zelarik Scully besarka zetxikala, Ilse barre uhargi baizik ez zen. Eta Nolwen... Nolwenez zer?... Ba maite nuen emaztea zela, oinarrizko andraidea eta Frantzia neoliberal kontserbadoreak noizbait sexu bereko kide biren ezkontza zilegituko zuenean, mintzo zen ber beti kexu zirudien Baionako auzapezaren ai-

tzinean esposatuko nuena baitzen. Bezperaren biharamuna ez zen haatik. Alderantziz: politikariek eta apezpikuek generoen teoria faltsua gaitzesten zuten arraiki, familia saindua gizon eta emazte batek moldatzen zutela mailukatuz.

Nolwenen magalean kabitzera ernatu nintzen. Ezpainak ezpainei ausikari eta sorbaldan Scullyren atzamar meharrak haztari nabaritzen nituen. Andraidearen gorputzaren ikara sutsuak sentitzen nituen, maite nuena sumendia bailitzan.

Preziosek unearen mistikotasun urria hautsi zuen:

– Hemen gara gu ere... Riesling menturaz? Eta arradaz?

– Baiki. Plazer dut zuekin izatea. Arrats apala zaborrekin teman eraman dut.

– Jana Elgebeltzen desagertzea ez ote zen zinezko zaborra?

– Bistan dena, Nolwen. Pozik nago Daniel Elgebeltzi misterioa argitu diogulakoan. Baina ez naiz segur Madeleine Proust hain kontentu zegoenik. Beldurrez dihardu.

– Satorrak bezain mutu geratuko gara.

– Hala espero dut, Zoko.

– Nire txartela eskaini diozu?

– Ilse... besteek ez ikusteko moduan egin nuen lehen gauza izan zen.

Riesling distiratsuz ito basoak koskatu genituen: txin-txin. Melissa Etheridgeren boz azukretuak horditzen gintuen. Horman zintzilikatu zuri-beltzezko Wittigen potreta ohoratu genuen. Haren irria gurea zen, gure irria haren ondarea.

Jean Lavignek Wiesbadenera oporretara gonbidatzen gintuela jakinarazi nien:

– Seiok?

– Bai, seiak. Ez zaitezela arranguratu, Deborah; badu lekua eta dirua guztiontzat.

– Eta Wiesbadenen musulman belodunak hemen baino errazago onartzen dituzte?

– Baliteke.

Hirurak jo zituen zilarrez azpildu ostatuko barraren gibeleko ordulariak. Txiste, arraileria, musu, balaka, zirto eta noizbehinka pentsu seriosagoak artekatuz jardun genuen. Daniel Elgebeltzen zerbitzuko eraman inkestak uhertu ninduela azpimarratu nuen. Izpiritua zirrimarratu zidan. Erakunde armatuaren presentziak belaunaldi osoak markatu zituen Iparraldean. Metraileta gordagiz gordagi azpaturiko historia zaharra zen jadanik. Herdoilarena. Eta munduan barna ehun mila-

ka ziren nehork bilatzen ez zituen bizidunak: ogia erosi aitzakiaz atera eta hatzik gabe natura terriblearen erraietan urtzen zihoazen. Hargatik gu, Jana Elgebeltzen pare osagarrian geunden, nortasun finkatuegia ez ukan arren, zaborraren erdian atzeman zitekeen perlak gintezkeen edo argia irensten zuten labaharri beltzaranak. Lurraren sabelean, gutariko bakoitzarenean nola, zeuden harkaitz metamorfikoetarik ginela nioen segundoan, taberna sarrerako *butx* saldoa haserre altxatu zitzaigun:

– Ez zarete tenoreaz ohartzen ala? Garbitzen hasiak dira... Kanpora... Bihar ere zabalik dateke.

– Botila hustu dezagun.

– Hondar malkoa partekatu eta mugituko gara.

– Bai horixe.

Wiesbadengo Villa Clementine
egoitzan idatzi nobela honen burutzeko
Akitania eta Hesse eskualde birazkatuek
opari utzi gelaz, denboraz eta diruaz
baliatu nintzen bi hilabetez.

Eskerrak han eta hemen ezagutu
Corinne, Olivier, Hartmut, Stefanie,
Michael, Martin, Katerina, Tina,
Elena eta Chantal adiskideei.